



E R N A I R E N

I I I .

K O N G R E S U A

ERNAI



AURKIBIDEA

1. SAR HITZA	6
2. TESTUINGURUAREN ETA ZIKLO POLITIKOAREN ERRONKAK	8
2.1. Nazioarteko eta Euskal Herriko testuingurua	8
2.2. Gazteria.	20
3. ERNAI GAZTE ANTOLAKUNDEA	28
3.1. Ernairen misioa	28
3.2. Ernai Ezker Abertzalearen baitan	30
3.3. Ernai Ezker Independentismoaren baitan	31
4. PROIEKTU POLITIKOA	34
4.1. Subjektua definitzen	39
5. GAZTE ESTRATEGIA	42
5.1. Gazte Estrategiaren funtsa	42
5.2. Gazte Estrategiaren ziklo honetako erronka nagusia:	
Gazte Frontea	46
5.3. Gazte Estrategiaren lan lerro nagusiak	58
5.4. Gazte borrokaren ezaugarritzea	85
5.5. Nazio Estrategiarantz	88
6. FUNTZIONAMENDUA	92
6.1. Antolakunde eredua	92
6.2. Eraketa eredua	98
6.3. Militantzia eredua	100
6.4. Barne lerroak	106
7. ANTOLAKETA	112
7.1. Antolaketa marko eta ardurak	112
7.2. Nazio Eraikuntza aparatua	115
7.3. Unibertsitete aparatua	117
7.4. Antolaketa lokala	118
7.5. Ziklo eta espazioak	122
8. AMAIERAKO HITZA	124
9. GLOSARIOA	127

SABAZA

1. SAR HITZA

Ehuleak dira ehunak ehotzen dituzten langileak. Kolore, forma, tamaina, material... ezberdinak elkarren artean ongi ehotzea da ehuleen eguneroko jarduna, eta erronka. Esku artean duten guztiari forma eman nahi izaten diote, ehun bakoitzaren ezaugarriak errespetatuz, puntada finez hurrengoarekin ehotu, eta pixkanaka pixkanaka handia den zerbaiti forma emanez.

Hori da ehotzea.

Ernaik ere Herri hau ehotzeko erronka eta helburua du. Ernaiko militanteok ehuleak gara, eta izango gara. Eskuz esku hamaika borroka, ideia, kezka eta ametsi forma eman eta Euskal Herri aske, sozialista eta feminista erakitzeko anbizioa dugu. Hori izango da gure ehun handiena, konplexuena, ederrena, lan gehien eskatuko diguna, eta aldi berean maitatuena.

Horretarako, ezinbestean behar izaten da bide-orri bat, hori da esku artean dugun ponentzia. Dugun materiala begiratu, ukitu, ingurua irakurri eta ehuleon misioa zehaztu; lortu beharreko proiektua neurtu eta zehaztu; Gazte Estrategiaren ehun guztiak prestatu; lana antolatu eta ekin. Hori zen garai bateko ehuleek egiten zuten prozesua, eta baita guk egin berri duguna ere.

Militanteon arteko hamaika eztabaida, hausnarketa, buru-hauste eta anbizioaren ondorioa da hau. Ikasturte osoan zehar espazioz espazio osatzen joan garena, puntada bakoitzaz ideiak gero eta gehiago zorrotzuz eta elkar josiz. Ehotzen ponentziak ekarpen determinantea egin nahi baitu: askapen prozesua eta Gazte Estrategia azken bururaino eramatea.

ESTABLISHED

FOR PEOPLE

2. TESTUINGURUAREN ETA ZIKLO POLITIKOAREN ERRONKAK

Testuinguruaren azterketa on bat estrategia egoki bat garatzeko ezinbesteko faktorea da. Ernairen kongresu orotan egiten dugun moduan, testuingurua eta jendartea aztertzeko ariketatik abiatu gara. Hurrengo orrietan aztertuko ditugun joera sozial eta politiko guztiak bi eremu nagusitan bereizi ditugu: batetik, nazioarteko eta Euskal Herriko testuinguru orokorra; bigarrenik, gazteriari lotutako egoeraren azterketa. Bi eremu horiekin batera, ziklo politikoari lotutako erronkak identifikatzen saiatu gara. Ez atal hone-tan bertan garapen sakona emateko, baizik eta Gazte Estrategiaren baitan erronka horiek betetzeko garatu beharreko strategiaren muina kokatzeko.

Azterketan sartu aurretik, testuinguru politikoaren, sozialaren eta gazteria-ren azterketa egoki bat egiteko hautatu dugun unearen garrantzia azpimarratu nahiko genuke. Ernairen sorreratik hona ez dugu sakoneko ariketarik egin eta, hori gutxi balitz, azken urteetan mota guztietako jendarte joera berriak sortu edo indartu dira; zeresanik ez Covid-19aren krisiaren ostean. Horrek gazteon egoera bera modu sakonean aldatu duelakoan gaude eta, hortaz, gaiari sakontasunez zein argitasunez erreparatzen saiatu gara.

2. 1. NAZIOARTEKO ETA EUSKAL HERRIKO TESTUINGURUA

Mundua

Sistema kapitalista zisheteropatriarkal eta koloniala da egungo sistema ekonomiko, politiko, kulturala eta soziala. Burgesiaren etekin ekonomikoaren metaketari erantzun eta gutxi batzuen botere eta zapalkuntza adierazpenak betiketzean oinarritzen da. Sistema kapitalista zisheteropatriarkala kapitalaren etekin metaketa bermatzen duen zapalkuntza askotariko siste-

ma ekonomiko, juridiko, politiko eta kulturala da. Bere oinarrian zapaltzaile eta zapalduen jendartea dago, etengabeko talka eta kontraesanean. Interes kontrajarriak dituzten talde sozialetan funtsatzen den egituraketaren inguruan ari gara, beraz.

Egun, XXI. mendeko hirugarren hamarkadaren hasieran, sistema kapitalista zisheteropatriarkala hegemonikoa da maila globalean. Dena den, mugitzen ari da mundua eta polo bakarreko mundutik (AEBen gidaritzapean) eszenatoki berri baterantz goaz: AEBek nagusitasun militarra eta kulturala mantentzen duten arren, Txina nagusitasun ekonomikoa eskuratzetik gero eta gertuago dago (BPGari dagokionez edota energia baliabideak lortzeko lehian, besteak beste) eta nagusitasun berriak lortzeko lehia bete-betean murgilduta dago. Horrek guztiak eszenatoki global berri baterantz garamatza, zeinetan polo bakarreko mundutik polo anitzeko mundurantz goazen. Aurrerago sakonduko dugun arren, Europa bloke geopolitiko gisa indarra galtzen ari da, mundu mailako agertokian bigarren mailan geldituz. Egoera horrek guztiak nazioarteko gatazka armatu, politiko eta ekonomikoak areagotzeko eszenatoki egokia ahalbidetzen du: azken hilabeteetako Ukrainako gertakariak horren adibide dira.

Sistemaren baitan garatzen diren askotariko zapalkuntzek gure bizitzen esparru guztiak zeharkatzen dituzte. Klase zapalkuntza, genero zapalkuntza, nazio zapalkuntza, ekozidua, sexu zein genero disidenteen zapalkuntza, kolonialismoa, arrazakeria, heldu boterea... dira sistema kapitalista zisheteropatriarkalaren baitan garatzen diren zapalkuntza esanguratsuenetako batzuk. Beraz, kapitala eta bizitzaren arteko talkak ezaugarritzen du gaur egungo errealitatea. Zapalkuntza horiek gaingitu eta zapalkuntzarik gabeko jendartearen eraikuntzan lerratzen da Ernai, sistema kapitalista zisheteropatriarkala iraultzeko borrokan.

Sistema kapitalista fase neoliberallean dago: 1970. hamarkadan hasi, 1980. hamarkadako oldarralditik jarraitu (Ongizate Estatu deiturikoaren suntsiketan oinarritzen zena eta Margaret Thatcherren *There is no Alternative* esamolde ezaguna ikur izan zuena) eta Sobietar Batasunaren desegiteak maila globaleko sistema bilakatu arte. Neoliberalismoaren izaera ekonomikoa, soziala, politikoa zein kulturala da. Ereku guztietan garatzen da haren ofentsiba, Estatuaren botereguneetan zein korporazio edo multinazionalen. Estatuaren baliabide publikoak desegin eta pribatizatzen ditu, demokrazia pribatizatu eta minimoetara eramaten du eta gizabanako ororen subjektibitateetan eragiteko gaitasun ikaragarria du, balio kapitalista eta indibidualistak sustatuz.

Sistema kapitalista zisheteropatriarkalak eta neoliberalismoak oldarraldi berri bat izan dute azken urteotan, 2008ko krisiaz geroztik, finantza krisia krisi ekonomiko, sozial eta politikoa bihurtu ostean. Hori gutxi balitz, 2020an, bigarren krisi batekin, Covid-19ak mundua hankaz gora jarri eta osasun krisiak krisi anizkoitz bete-betara eraman ditu munduko lurralde gehientsuenak. Beraz, krisi anizkoitza lehenagotik baldin bazegoen, krisi anizkoitzaren azelerazio eta gogortzea da Covid-19aren baitan indartutako testuingurua. Azelerazio hori krisi anizkoitzean zein honek sortutako eta ondorengo lefroetan landuko ditugun hamaika joeretan ere jazo da; esaterako kontrol sozialaren areagotze eta askatasun politikoen murrizketan. Ondorioz, egungo errealitatea sistema kapitalista zisheteropatriarkalaren eta honen fase neoliberalaren parekorik gabeko oldarraldian kokatzen da.

Krisi anizkoitza diogunean, krisi sistemikoaren edo zibilizazio krisiaren inguruan ari gara. Pandemia garaian sindemia kontzeptua ere erabili da definizioarako. Krisi zehatz bat beharrean, jendartea zeharkatzen duten eta elkarren artean konektaturik dauden krisi estrukturalak bizi ditugu: zaintza krisia, krisi klimatikoa, osasun larrialdia, klase zapalkuntzaren areagotzea, genero zapalkuntzaren indartzea, indibidualismoa eta sare komunitarioen deuseztapena, migrazio krisia, etab. Finean, kapitala eta bizitzaren arteko talka gero eta gordinagoaren aurrean gaude.

Aipamen berezia egingo diegu bost jendarte-aldaketa oso esanguratsuei: digitalizazioari, krisi klimatikoari, migrazio fluxuei, auzi demografikoari eta langileriaren eta herri sektoreen prekarizazioari. Fenomeno global horiek zentralak izango dira nazioartean eta, aurrerago sakonduko dugun moduan, baita Euskal Herrian ere. Euskal Herriko gazte zapalduongan duten eragina aztertzeke ardura gure egiten dugu.

Krisi klimatikoa edo larrialdi klimatikoa egungo gaitzik esanguratsuenetakoa da. Ekoizpen modu kapitalistaren ondorioz, energia baliabide ez berriztagarriak eta baliabide fosilak (gasa, petrolio, ikatza...) agortzen joango dira datozen hamarkadetan. Gaur egun erabiltzen dugun energia kantitatea erabiltzea ezinezkoa izango da, energia berriztagarriekin ezin baitaiteke horrenbeste energia erabili. Horrek, eta elkar loturik dauden krisi klimatikoaren bestelako ertz batzuek, (berotegi efektua edota biodibertsitatearen suntsiketak, besteak beste) orain arte ezagutu dugun munduaren ordena zailtzen jarriko dute. Zibilizazio krisian gaude jada eta ezkerreko iraultzaile ororen eginbeharra izango da erronka horiei neurria hartu eta gure herriek beharrezkoa duten trantsizioa egitea. Interes pribatuen gainetik, onura kolektiboa jarriko duen ekonomia sozialista planifikatu batek soilik bermatu

dezake planetaren jasangarritasuna. Finean, esan dezakegu etorkizuneko Euskal Herri sozialista eta feminista ekologista izango dela edo ez dela izango. Horregatik, krisi klimatikoaren aurkako borroka gure proiektuaren eta estrategiaren muinera eramateko konpromisoa dugu hurrengo urteetan.

Digitalizazioari erreparatuz gero, bizitzaren esparru guztietan (lan eremuan, hezkuntzan, aisialdian, harremanetan edo sozializazioan...) eragin ikaragarria duen fenomeno dela azpimarratu beharra dugu. Hurrengo urteetako jendarte antolaketaren funtsezko eremuetako bat da: egungo gizarte eredu logika kapitalista, patriarkalak, neoliberalak eta kontrol soziala sustatzeko tresna izaten ari da. Burgesiaren etekin metaketa da egungo digitalizazio ereduaren helburua, besteak beste, lan eremuan lanpostuen suntsiketa edota bizi eta harreman eredu likidoak indartuta. Kontrara, errotik ezberdina izango den digitalizazioan kokatzen dugu gure burua: baliabide eta ondasun digitalak zerbitzu komun gisa ulertu, bizitza duinen mesedetan jarri eta zerbitzu eta egitura digitalen kontrola herritar, langile eta gazteongan egon behar dela deritzogu.

Migrazio krisia eta horri lotutako migrazio fluxuak hurrengo urteetan areagotuko diren fenomenoak izango dira, maila globalean zein Euskal Herrian. Horien arrazoiak ugariak dira: gatazka armatuak, oinarri ekonomikodunak edo krisi klimatikoari lotutakoak. Krisi humanitarioak, batzuk zein besteak.

Auzi demografikoari dagokionez, mundu mailako biztanleria hazten ari da eta aurretiaz aipatutako migrazio fluxuak direla eta, mugimendu konstantean dago. Biztanleriak mundu mailan hazten jarraituko du, baina ez mendealdean edota Europan. Kapitalismoa gehien garatu duten herrialdeetan biztanleriaren zahartze prozesua eta gazteriak erlatiboki pisua galtzea da gertatzen ari den fenomenoak. Euskal Herria bera adibide ezin hobea da. Gainera, landa eta hiriguneen desorekak geroz eta handiagoak dira, mundu mailako biztanleria hiriguneetan pilatzen ari da.

Langileriaren eta herri sektoreen prekarizazioa: kapitalismo zisheteropatriarkalak eta egungo fase neoliberalak joera honen indartze batera garamatzate. Gainera, digitalizazioak, krisi klimatikoak edota potentzia kapitalisten arteko lehiak joera honetan sakontzeko baldintzak sortzen dituzte. Kapitala eta ondasunaren banaketa gero eta desorekatuagoa da, oligarkia aberastu eta langileria eta herri sektoreak gero eta pobregoak bilakatuta. Europa da fenomeno honen adibide argia.

Hurrengo urte eta ziklo politikoarekin jarraituta, mundu mailako erronka horien guztien artean korrante ideologiko, politiko eta ekonomikoen arteko lehia biziko dugula aurreikusten dugu, maila globalean zein Europan. Haek dira azpimarragarrienak:

Lehena, neoliberalismoaren indartzea: oraindik ere joera nagusia da eta eremu ekonomikoa (pribatizazioak, multinazionalen boterea handitzea...), politikoa (botere guneak eremu politikotik ekonomikora mugiaraztea), kulturala (indibidualismoa, atomizazioa...) eta soziala zeharkatzen ditu. Kontuan hartzeko fenomeno da, bigarrenik, krisi anizkoitzaren aurrean burgesiak elikatzen duen faxismoa eta eskuin muturraren gorakada; jendartearen eragiteko gaitasuna irabazi eta nolabaiteko faxismo sozialari bide eman dio. Hirugarrena, ongizate estatuaren indartze bat aldarrikatzen dutenak dira, baina hori gauzatzeko baldintza material eta ekonomikorik ez dago.

Nazioarteko ezkerak, bitartean, zailtasunak ditu langile eta herri sektore zabalentzat (eta eurekin batera) proiektu sendo bat sortzeko. Alta, sistema kapitalistaren baitan eraikitako espektatiba kolektiboen erortzeak ezker iraultzaileko mugimenduoi aukera berriak irekitzen dizkigu. Gainera, ekosozialismotik datozen indarrek, Hego Amerikako prozesu askatzaileek edo Europako estaturik gabeko nazioen independentziarako borrokek emantzipazio prozesuak aurrera ateratzeko gaitasuna dute.

Burujabetza bizitzako espazio guztietara eta jendartearen antolakuntzara eraman eta langileen, gazteria zapalduaren eta herri sektoreen boteretzetik zapalkuntza oro gainditzea da krisi anizkoitzaren aurrean alternatiba bakarra. Egungo Europan, estaturik gabeko nazioen independentziaren aldeko borrokek gaitasun berezia dute prozesu askatzaile horiek aurrera eramateko: Katalunian, Korsikan, Eskozian edota Euskal Herrian, besteak beste. Horrenbestez, egungo nazio-estatuak kapitalismoa eta neoliberalismoa sustatzeko agente aktiboak baldin badira, guk burujabetzaren bidez errotiko gizarte aldaketa eta antolamendurantz lerratuko diren estatuak ditugu alternatibatzat.

Europa

Europa kapitalismoaren erdigune edo zentro ekonomiko, inperialista eta kulturala izan da historikoki. II. Mundu Gerraren ostean, Europa mailan kapital eta merkantzien zirkulazio librea garatzeko eta langile mugimenduen eta herrialde sozialisten aurrerapenaren beldur, Europar Batasuna sortu

zen. Era berean, garai bertsuetan gertatu ziren hainbat fenomenok posizio hori galtzera eraman dute, bai Europa kontinentea bera eta baita 27 estatuk osatutako Europar Batasuna ere. Bi Mundu Gerren osteko polo bikoitzeko eszenatokia izan zen lehen pauso esanguratsua eta ondoren, Afrika eta Asiako herrialdeen deskolonizazioa. Gaur egun, Europar Batasunaren proiektuaren ezegonkortasunak, EBk proiektutzat kokatutako Ongizate Estatuaren erortzeak, munduko demografian pisu gero eta txikiagoa izateak... bestelako potentzia batzuekin hainbat eremutako lehia ekonomiko, politiko, kulturala galtzen egotera darama. Europaren gaitasun eta indar geopolitikoak gutxitzen ari da eta, ondorioz, barne mailako kontraesan sakonak sortzen ari dira proiektu honen gidaria den oligarkiaren artean.

Bi dira izaera globala duten eta Europar eragin esanguratsua duten fenomenoak, aurrez aztertu ditugunak: migrazio krisia eta faxismoaren hazkundera. Lehenengoaren kasuan, Afrika eta Ekialde Hurbiletik Europara datozen errefuxiatuen egoera azpimarratzekoa da. Ez Europar Batasunak ezta bertako estatuak ez dituzte giza eskubideak bermatzen. Europar Batasunak aldarrikatzen dituen balioak (giza eskubideak, besteak beste) zalantzan jartzea eragiten ari da. Bigarrenik, faxismoaren eta eskuin muturraren gorakada handia da eta eragite gaitasuna irabazten ari dira. Lekuan leku forma eta izaera propioa duten arren, xenofobia eta migrazioen kontrako diskurtsoa, nazionalismo kontserbadore eta baztertzailea, Europar Batasunarekiko eszeptizismoa eta autoritarismoa dituzte ezaugarri nagusitzat.

Europar Batasunari dagokionez, askatasunak, justizia eta giza eskubideak bermatzen dituen proiektu politikoa izatearen zantzurik txikiena ere ez du. Sinesgarritasun krisian dago Europar Batasuna: errefuxiatuen krisiak EBren aurpegirik zitalena erakutsi du, iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen desberdintasun ekonomikoak handiak dira, eskuin muturreko agintari askok Europaren aurkako diskurtsoak dituzte, Brexitak Europar Batasuna zatiezina eta behin betikoa izatearen paradigma hautsi du, herritarrengandik urrunen dagoen eta izaera demokratikorik ez duen erakundea da, etab.

Frantziako Estatua

Frantziar Estatua mundu mailako potentzia izatetik, bigarren mailara igarotzen ari da geopolitikari dagokionez. Are gehiago, Europa gidatzeko lehian, Alemaniaren nagusitasun ekonomiko eta politikoaren atzetik dago. Bestetik, nazioarteko harremani begira Frantziaren izaera inperiala ezaugarri azpimarragarria da, oraindik ere geratzen zaizkion koloniak mantendu eta Afrikako kolonia zaharretan eragin inperialistari eusteko posizioa baitu. Bai-

na fenomeno horrek ez du geopolitikari lotutako eragina soilik, are gehiago, alderik alde zeharkatzen du frantziar errealitatea. Eskuin muturrak Frantziaren (zuriaren, kontserbadorearen, inperialistaren...) desagertpenaren arriskua kokatu du bere diskurtsoaren erdigunean.

Frantziar estatuaren zentralizazioak eragiten du Ipar Euskal Herrian burujabetza falta. Horren adibide dira hizkuntza eskubideen etengabeko urraketa (Brebeta eta Baxoa frantsesez egitea) eta Macronismoa eta ultra eskuinaren gorakada nabaria (baita Ipar Euskal Herrian ere), batez ere azken hauteskundeetan. Euskal Herria turismora bideratzeak espekulazioa areagotu du eta horrek eragina izan du gazteon emantzipazioan, hau da, hau zaildu egin du.

Frantziako Estatuaren egoera honen aurrean, ikuspegi askatzaitetik ulertu ditugun bi erreakzio egon dira azken urteetan: batetik, politika neoliberalen aurrean greba ziklo indartsua eta Txaleko Horien fenomenoak, indar esanguratsukoak biak. Bestetik, naziorik gabeko estatuaren borrokan indarra goranzko joeran egotea, gero eta pisu handiagoarekin Frantziako Estatuan: Korsikako askapen mugimenduaren indartzea, Kaledonia Berrian erreferenduma egin izana eta Ipar Euskal Herrian mugimendu abertzalearen aurrerapausoak dira horien erakusgarri.

Espainiar Estatua

Aurrez landutako mundu mailako joerek ere zeharkatzen dute Espainiako Estatua. 1978ko Erregimenean oinarritzen da egun Espainiako Erreina, 40 urteko diktadura faxistarekin hausturarik ez eta dena ondo lotuta mantentzeko erreformaren osteko erregimena, alegia. 1978ko Erregimenean Frankismotik zetozen indar armatu berberak, epaile eta egitura judizialaren oinarri berberak, komunikabide berberak eta burgesia berbera ditugu agintean egun. Finean, maskara politikoa aldatu, nazioarteko zilegitasuna lortu eta aipatutako elite guztien boterea eta espainiar batasuna mantentzeko operazioa izan zen Trantsizioa, gaur egun ere indarrean dagoen erregimena ahalbidetu zuena.

Trantsizioan hausturaren eta erreformaren arteko borroka bizi izan zen. Lehenengo, errotiko aldaketa demokratikoaren alde, bigarrena, aurrez aipatutako eta azkenean burutu zen erreforma eta aurpegi garbiketaren defentsan. Apurka-apurka, Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua izan da haustura defendatzen Estatuari bataila planteatu dion bakarra, borroka hori 40 urte geroago bizirik mantenduz. Nazio auzia 1978ko Erregimena-

ren katebegi ahulena zela defendatzen zuen orduan Ezker Abertzaleak eta, gaur egun ere, hori bera da Estatuarekin haustura lor dezakeen bakarra.

Harrokeriarik gabe, baina harrotasunez esan dezakegu Ezker Abertzaleak lortu duela 40 urteotan 1978ko Erregimena hausteko nazio askapena giltzarri gisa kokatzea. Egun Herrialde Katalanetan eta Galizian ere ikuspegi politiko horrek indar askoz handiagoa du, ezkerreko independentismoa izanik egun ere alternatiba bakarra 1978ko Erregimenaren aurrean. Espainiako Estatuaren proiektuak atxikimendu maila txikia du Euskal Herrian zein estatuturik gabeko nazioetan, baina era berean, egungo erregimenaren babes falta ez da eredu alternatibo baten (nazio zapalduen errepublikan) aldeko borrokan maila berean bihurtzen. Horratx independentiston erronka.

2011tik aurrera 1978ko Erregimena krisi larrian murgildu zen: M15 mugimendua, Catalunyaoko prozes independentista eta Euskal Herriko ziklo politikoaren aldaketak eraginda. Egun, M15aren eta Catalunyaoko procesaren neutralizazioak eta Euskal Herrian Estatuarekiko konfrontazioa behar beste indartu ez izanak, Estatuak krisi hori kontrolpean izatera eraman du. Hala ere, Espainiar Estatuaren sinesgarritasun falta larriak hor dirau eta areagotu egin da. Beste krisi bat probokatzeko gaitasuna izanez gero, arrakalak handitu egingo dira 1978ko Erregimenean.

Euskal Herria

Nazioarteko testuinguruaren eragina bete-betean bizi dugu eta, hori gutxi balitz, gertakari edota jendarte aldaketa horiei guztiei erantzuteko egitura eta estatu propiorik gabe, burujabetzarik ez eta menpekotasun egoera osoan gaude euskal herritarrok. Hego Euskal Herriko bi gobernu autonomikoek ez dute burujabetza ezta eraldaketa sozialerako urrats esanguratsu bakar bat ere ematen. Gure Herria kapitalismo zisheteropatriarkalaren eta neoliberalismoaren eragin bete-betean dago: indibidualismoa, joera autoritarioak, ehun publikoaren pribatizazioa eta ehun komunitarioaren ahultzea bizi ditugu. Horri lotutako krisi anizkoitza egoera lazgarria uzten ari da eremu sozioekonomikoan baita ere: etxegabetzeak, gazteon larrialdi egoera, gaixotasun psikosozialak, langabezia eta prekaritate estrukturala, lantegien itxiera eta komertzio txikien hondamendia...

Horrekin batera, aipatzekoa da metropoliek gero eta pisu handiagoa dutela landa eremuak husten ari diren bitartean. Hiriguneei dagokienez, bi aurpegi suma ditzazkegu: alde batetik, hiriguneak dira sistema kapitalista heteropatriarkalaren birproduktzioerako eremu nagusiak; eta bestetik, eral-

daketarako potentzial politiko handiko guneak ere badira, bertan dagoen aniztasun politiko eta kulturalagatik zein batzen duten biztanleria kopuruegatik. Beraz, Euskal Herria irabazteko, eremu hauek irabazi behar ditugu. Hau horrela, antolakundearen neurria hartu behar diogu hiriburuek daukaten eraginari herrialde zein nazional mailan, eta errealitate honi erantzun dioten estrategia politiko eta organizatiboak garatu behar ditugu. Gehien-goak sortu eta osatzera goazen ziklo politikoan, ezinbestekoa da Antolakunde gisa Herri Frontea zein Gazte Frontea artikulatzeko erronka nagusiari heltzea hiriguneetan.

Hori guztia gutxi balitz, nazio zapaldua garen heinean, etengabe gaude estatutu zapaltzaileen asimilazioaren arriskuan. Gainera, sistema kapitalista zisheteropatriarkalak eta neoliberalismoak bultzatutako joerak ere Euskal Herriaren etsaiak dira. Nazio askapen mugimenduak eta baita Ernaik ere etengabe egingo dute horren aurka.

Aztertutako bost jendarte aldaketek (auzi demografikoak, krisi klimatikoak, migrazio fluxuek, digitalizazioak eta langileriaren prekarizazioak) Euskal Herrian ere pisu berezia izango dute. Migrazio fluxuetatik tiraka, Euskal Herri gero eta anitzago baten aurrean gaude eta egongo gara. Gaur gaurkoz arrazakeriarik gabeko mugimendu bat izan eta dekolonialitatea praktikara eramatek urrun gaudela aitortuta, hurrengo urteetako erronka gisa kokatzen dugu dekolonialitateak guregan eta gure lanketetan pisua hartzea.

Euskal Herrian fenomeno propioak ere baditugu. Hor kokatzen dugu Euskal Herrian nazio bulkadaren eta gatazka nazionalaren apaltzeari (edo gatazka honen ikusgarritasunarena) dagokion joera. Euskal Herriko kaleak bete ditugun arren, konfrontazioa eta borroka egon den arren, Herri gisa Espainiako eta Frantziako estatuekin konfrontazioa apala da egun. Estrategia orokorraren baitan nazio kontzientzia indartzea beharrezkoa izango da hurrengo urteetan, baita aktibazio sozialerako eta masa borrokarako gaitasuna indartzea ere. Nazio kontzientziaren indartzeak, gazte mailako apustuez gain, mugimendu gisa egin beharreko apustuak eskatuko ditu. Hori bilatzearekin batera, Gazte Estrategiaren atalean garatzen dugun naziozintzaren lan lerroa aktibatzeke apustua egin dugu.

Eremu politikoan begirada jarrita, Ezker Abertzalearen estrategia aldaketa da azken urteetako aldagai garrantzitsuenak. Ez bakarrik Ezker Abertzalearen ibilbideari erreparatzen diogunean, baita Euskal Herriko egoera politikoaz aztertzeari ekiten diogunean ere. Ziklo batetik besterako trantsizioan igaro dugu azken hamarkada. Orain Sorturen, EH Bilduren, LABen eta Ernai-

ren kongresuek ziklo berriaren oinarriak behin betiko finkatzeko eginkizuna dute. Ziklo politiko berri bat zabaltzearekin batera, bigarren Euskal Matxinada bat irekitzea da gure eginkizuna: 50-60 urtetako borroka ziklo baten uzta jaso eta oinarriak jarri ostean, berpizkunde nazional, eraldatzaile, komunitario eta askatzaile baterantz. Euskal Matxinada hau proiektu independentista eraldatzaile batean egikaritzea dagokigu.

Gatazka armatuaren ondorioen konponbidearen auzia ere badugu, erabateko konponbidea gatazka politikoa ebatzita, hau da, agertoki demokratikoa eta autodeterminazio eskubidea onartuta (proiektu guztiek aukera berberak), lortuko da. Horrez gain, hurrengo urteetako erronka nagusia preso eta iheslarien askatasuna lortzean eta gatazkaren kontakizunean datza. Ernaik gazte ikuspegitik landu eta transmisiorako ardura berezia du eta gure egiten dugu erronka hau.

Azken urteetan preso eta iheslarien etxeratzean eman diren aurrerapausoak nahikoa ez diren arren, urrats erreal eta baliotsuak ere izan dira. Kongresu hau egiten ari garen unean apenas dago presorik Madrildik behera eta geroz eta gehiago dira Euskal Herriko kartzeletan daudenak. Epe laburrean, erronka nagusia salbuespeneko legediarekin amaitzea da eta preso guztiak Euskal Herrian egoteak urrats kualitatibo esanguratsua ekar lezake. Era berean, eta azken urteetan salbuespen neurrien amaiera eskatzeko mugimenduekin egin bezala, izaera zabaleko mugimendua izango da gakoa burkide guztiak kaleratzeko bidean. Horrez gain, hirugarren graduak preso gehiago egoteak orain arte ezezagunak ziren egoerak ekartzen ari da eta preso eta iheslarien kaleratzearen aldeko borroka horri egokitu behar gaitzaizkio. Baina kontuz, Estatuko botere faktikoek ahal bezain beste egingo dute aurrerapauso oro atzera botatzeko, hirugarren graduak atzera botaz edo epaiketa berriak muntatuz.

Beste alde batetik, ziklo politiko berriak jazarpen eredu berria dakarkigu, eta horren azterketa egokia egiten hastearen beharra identifikatzen dugu. Lehenengo eta behin, Euskal Herriaren gatazka politikoan, konfrontazio armatuan oinarritutako fasea bizi izanak eragina izaten jarraitzen du Euskal Herrian garatzen den errepresioan. Sozialki errepresioa normalizatu du jendaratearen zati batek, kode penala izugarri gogorra da eta hainbat alderdi eta komunikabidek kanpaina politiko eta mediatiko ikaragarriak egiteko gaitasuna dute. Altsasuko gazteen auzia izan da azken urteetako adibiderik gordinena eta argiena.

Beste hiru gako ere pisu nabarmena dute jazarpenaren areagotzean. Batetik, digitalizazioa dela eta jazarpena garatzeko baliabideak eta teknologia ikaragarri handitzen doaz, kontrol sozialerako eta jazarpeneko baliabideak biderkatuz. Bigarrenik, jazarpen ekonomikorako tresneria ere indartu dute espainiar eta frantziar estatuak azken urteetan, Mozal Legea izanik adibide argiena. Honekin guztiarekin sozialki errepresioa orokortu da, baina are gehiago horren justifikazioa eta zilegitasuna. Azkenik, 78ko Erregimenaren (estatu aparatatu guztiak direla ulertuta, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako gobernua kasu) eta estatu espainiarraren zein frantziarraren izaeran herrien zapalkuntza esentziala dago. Horretarako, beharrezkoa denean sen autoritario, antidemokratiko eta errepresioa erakusten dute. Argi esan dezakegu askapen prozesuak aurrerapauso kualitatiboak egin ahala jazarpena areagotuko dela

Hurrengo urteetan Euskal Gazteriak eta oro har askapen prozesuan edo borroka emantzipatzaileetan bizi dezakegun errepresioa ondo aztertu beharrean gaude. Hori horrela, hurrengo urteetako zeregina izango da mugimendu mailako hausnarketak garatzea, ziklo berriaren jazarpenaren eta honi aurre egiteko estrategiaren inguruan. Ernaik hausnarketa horiek sustatzeko konpromisoa hartuko du.

Euskal Herriak azken urteetan herri mugimenduen edo mugimendu sozialen olatua bizi izan du: pentsionisten mugimendua, mugimendu feministaren mobilizazio masiboak eta artikulazioa, erabakitako eskubidearen aldeko inizatibak, Altsasuko gazteekin autoritarismoaren aurkako bulkada erraldoia, 2020ko greba orokorreko konfluentzia esperientziak, etab. Pandemia osteko agertokian mugimendu horiek apalduta daude eta beraien indarberritzea eta mugimendu berrien lehertzea lehentasuna da. Hastapen fasean dauden edota indarberritze sakon bat behar duten mugimenduen artean hurrengoak kokatu ditzakegu: mugimendu ekologista, euskalgintza, arrazakeriaren kontrako mugimendua, euskal selekzioen ofizialtasunaren aldekoa, transmaribollo borroka, hezkuntza mugimendua, gazte mugimenduak, etab.

Askapen mugimenduko subjektuetan murgilduta, Euskal Herria Bildu eta Sortu dira aztertu beharreko subjektuak. EH Bildu herritar batasun zabal gisa gorpuztea da erronka: masa mobilizazioak eta herri batzarrak bere gain geratuko dira eta herrietan ere mahai politikoak izango ditu, kargu publikoek gain bestelako militanteekin osatuta. Honekin, EH Bilduren kale izaera indartu eta, horrez gain, erakundeak gobernatzeko anbizioarekin jarraitzea izango dira gakoak, biak ala biak, prozesu politikoaren mesedetan kokatuz.

Bestetik, Sortuk EH Bildurekin funtzio bereizketa argia egin eta herri mugimendu edo mugimendu sozialen hauspotze eta dinamizazioan bete-betean sartzeko erronka du, Ezker Abertzaleko komunitate politikoa trinkotu eta aurrera begira jartzekoa, baita herrietarainoko antolakuntza eredu eraginkorra sortzekoa ere. Horrez gain, askapen mugimenduaren zuzendaritza lanak dagozkio Sorturi, alderdi-mugimendua den heinean, baita lan hori askapen mugimenduaren eragile eta norbanako ezberdinekin batera egitea ere.

Eremu politiko-administratibo bakoitzean sakonduz, Ipar Euskal Herrian egituraketa administratiboa eratu da. Egituraketa administratibo berria ahula izan arren, Ipar Euskal Herria errealitate politiko eta instituzional gisa marrazten du lehenengoz. Bestetik, gatazkaren ondorioen konponbidean aitzindaria izan da eta kontsentsu oso zabalak eta herri aktibazio handia lortu dira. Etxebizitza, laborantza eta euskararen aldeko mugimenduek ere eragiteko gaitasuna handitu dute. Azkenik, Ezker Independentismoa inoiz baino indartsuagoa da eta hurrengo ziklo politikoan benetako alternatiba bilakatzeke apustua du, aipatutako lan lerroetan sakondu eta baldintza berriak sortzeko asmoarekin.

Nafarroa Garaian Ezker Independentismoaren hazkunde esanguratsua izaten ari da azken urteetan. Maila elektoralean indartu eta egonkortu, udal asko eta oso garrantzitsuetan gobernagarritasuna erakutsi eta dinamika ezberdinen bidez gaitasun mobilizatzailea ere handituta (Nafarroa berriz altxa, euskararen aldeko borroka...). Bestetik, identitate nafarraren hegonia eskuin muturrari lehiazteko gaitasuna erakusten ari da Ezker Independentismoa, nafartasuna balio euskaldun eta eraldatzaileekin lotuta. Azkenik, ikuspegi geografiko batetik, Nafarroaren hegoaldean Ezker Independentismoaren hazkundeak ere garrantzia berezia du. Testuinguru horretan, aldaketa integralaren bidean kokatzen den estrategia garatzearen beharra ikusten dugu, Ezker Independentismoa zein mugimendu sozialak indartuta.

Euskal Autonomia Erkidegoan, batetik, EAJren nagusitasun politiko eta kulturala dago, bestetik, eremu sozialari dagokionez, hainbat zailtasun izan ditu Ezker Independentismoak borroka eraginkorren artikulazioan. Horrez gain, hiriguneetan proiektu independentistak duen babes soziala baxua da egun. Korapilo horiei aurre egitea, mobilizazio zikloa indartu eta egonkortzea eta Ezker Independentismoa alternatiba politiko erreal bilakatzea izango dira erronka hurrengo urteetan. Horretarako guztirako, askotariko mugimendu sozialen etengabeko indartzea bultzatu beharko da.

2.2. GAZTERIA

Gazteriaren kontzeptua

Gazteria produkzio indarren eta jendarteko harreman ereduaren baitan gartzen den subjektua da. Aro historiko bakoitzean gazteriak bete duen funtzio soziala aldatzen joan da eta horrekin batera gazteen gaineko ikuskera, irudikapena eta ulerkera. Prozesu horren ondorioz, gazteriak jendarte kapitalista zisheteropatriarkalean funtzio zehatz batzuk betetzen ditu: klase egituraketari dagokionez lan indar merkeenetako bat da, sozializazioaren adina izanik, alienazioaren eta heldu boterearen bidez sistemari integrazioa, etab.

Horrenbestez, gazteria ez da kategoria ahistoriko eta uniforme bat, errealitate sozial osoaren baitan mugimenduan dagoen eta aldatzen doan kategoria edo talde soziala baizik. Eta ez da bere aldaketan objektu, subjektu baizik. Hau da, jendartean bere posizioak aldatu eta iraultzeko gaitasuna duen subjektua da, gizartea bera aldatzeko indarra duena. Errealitate partikular propioa da gazteriarena; heterogeneoa, baina errealitate partikular bat, lanketa eta estrategia propioa behar dituena.

Gazteriaren egoera partikular horrek bultzatuta, zapalkuntza egoera gordin batean kokatzearekin batera, askapenerako subjektu gisa, borrokarako subjektu gisa, baldintza berezietan kokatzen gara. Sistemak bizi baldintza bereziki txarrak eskaintzeak beste eredu batzuen inguruan hausnartzeko eta horien alde borrokatzeko indar berezia eman digu. Borroka eta joera askatzaile berrien aitzindari izan gara, belaunaldiz belaunaldi, eta zer esanik ez egungo testuinguruan. Errealitatea irauli eta erroko aldaketekin amestu du gazteriak beti, hamaika iraultza eta matxinadetan lehen lerroan egon eta horiek gidatuz. Egun ere, gazteriaren potentzialitatea, euskal gazteriaren gaitasuna, Euskal Herrian aldaketa erradikalak gauzatzeko adinakoa da.

Egungo gazteriaren egoera: belaunaldi krisia

Gazteok prekarizazio eta desjabetze prozesu orokor eta espektatiba kolektiboen krisi baten aurrean gaude. Kapitalismoaren etekin metaketak bultzatutako gazteon bizi baldintzen okertzearen eta kapitalismo zisheteropatriarkalaren eta neoliberalismoaren oldarraldi ideologikoaren eraginez, hain zuzen ere, azken hamarkadetako bi krisiek prozesua azeleratu dutelarik. Esan bezala, krisi anizkoitzak eta egungo egoera zehatzak modu berezitan eragiten digu gazteoi, bizitzaren eremu guztiak zeharkatuz: ma-

terialak, kulturalak, sinbolikoak, etab. Bizitza eta kapitalaren arteko talkak forma berezia hartzen du gazteon egoera partikularrean. Horren eraginez, gero eta zailagoa da bizi proiektu duin bat gauzatzea eta are gehiago bizi eredu askatzaileak garatzea. Horri guztiari eta hurrengo lerroetan sakonduko dugunari deritzogu belaunaldi krisia eta Ernairen zeregin garrantzitsuena egoera hori iraultzea da.

Lan eremuan etengabekoa eta estrukturala den prekarizazioa bizi dugu, azken bi krisi nagusiek areagotu besterik egin ez dutena. Hitz gutxitan, lan merkatuan funtzio zehatz bat dugu gazteok: lan indar merkeena izatea, horrela, burgesiak are plusbalio gehiago eskuratuta. Gure lan indarra merkeago saltzeko antolaketa zehatz bat dago, beraz. Adibidez, esperientzia faltan oinarritutako argudio iraingarriekin lan kontraturik gabe edo lan kontratu negargarriekin jardutea (praktika kontratuak, lan munduan murgiltzeko kontratuak...) edota Aldi Baterako Laneko Enpresak (ABLE: langile bat eta haren enplegatzaillearen arteko bitartekari gisa aritzen den enpresa).

Hezkuntza sistema aipatu berri dugun lan merkatura sarbidea da. Baina hori baino gehiago ere bai, haur eta gazteon sozializatorako sistemak eta estatu zapaltzaileek duten instituzio indartsuenetakoa da: lehiakortasuna eta balio kapitalistak, sistemarekiko eta heldu boterearekiko alienazioa edota curriculum arrotzak ezartzeko.

Merkatuak etxebizitza bat lortzeko eskaintzen digun aukera bakarra alokatu edo erostea da. Kapitalaren zirkulazioaren logikan sartzen dira bi aukera horiek, kapitalaren etengabeko irabaziak bilatzeko helburuarekin. Etxebizitza merkantzia bilakatu da beraz, hau da, irabaziak lortzeko espekulazio-tresna hutsa da. 30 urterekin emantzipatzen gara Euskal Herriko gazteak. Emantzipatzeko ezintasunak, gainera, bizi proiektu bat garatu, gure bizitzan jabe izan eta burujabe izatea galarazten digu bete-betean.

Neoliberalismoaren oldarraldi ideologikoaren eragina ere bortitza izaten ari da. Euskal Herria joera globalen aurrean babesgabe dago eta herri gisa sen komunitario indartsua dugun arren, eragin oso lazarriak dakartza neoliberalismoak. Gero eta atomizatuago eta bakartuago bizi gara, sare komunitarioak ahuldu dira eta, gutxi balitz, pandemiak egoera zailagoa bilakatu du. Halere, Euskal Herriak eta baita belaunaldi berriok sen komunitarioarako gaitasun ikaragarria dugu. Eta ziklo politiko honetan erronka da belaunaldi gisa sen komunitarioa eta jendarte sareak indartzeko lehen lerroan egotea, herria izan eta eragitea.

Horrek guztiak eta krisi anizkoitz estrukturalaren aurrean egoteak, gazteoi espektatiba kolektiboen krisira garamatza. Aurrez aipatutako egoera material gordinak (lana eta etxebizitzaz gain, ikas baldintzetan, prezioen igoeran...) eta bizitza duin eta egonkor baten deuseztapenak, espektatiba kolektibo horien suntsitzea dakar. Batez ere gazteoi eragiten digun fenomeno da. Ziurgabetasunak eta espektatiba faltak marrazten dute gure etorkizuna. Haurtzarotik saldu diguten bizitza perfektua, sakrifizioaren truke lortuko genuen hori, gaur egun kea dela ikus dezakegu. Espektatiben erortze kolektibo honek ondorio psikosozial larriak dituena gero eta nabarmenagoa da eta problematika horren aurrean arreta jarri beharko dugu hurrengo urteetan ere. Kontuan hartu behar dugu gaur egungo belaunaldiok eta etorkizunean etorriko direnek ez dugula besterik ezagutu, errealitate honetan sozializatu garea.

Gazteriaren sozializazioa eta harremanak

Pertsonen sozializazio prozesua etengabekoa bada ere, haurtzaroa eta gaztaroa dira sozializazio orokorra, sozializazio politikoa eta identitate pertsonal eta kolektiboa garatzeko une erabakigarrienak. Hamaika agente dira determinanteak sozializazio horretan: familia, hezkuntza sistema edo eskola, komunikabideak, haurtzaro eta gaztaroko harreman sareak (lagun taldeak, bestelako elkarte edo bilguneak...) etab. Kapitalismoaren eta neoliberalismoaren eraginez, logika kapitalista eta neoliberala zabaltzen duten jendarte instituzioak ari dira indartzen. Hala nola: mentalitate kapitalista, neoliberala eta matxista sustatzen duten komunikabide handiak, aisialdi eredu kontsumista, hezkuntza sistema pribatizatu eta neoliberala bihurtzea, etab.

Sozializazioaren ezinbesteko faktore dira harreman sozialak. Neoliberalismoak horien izaera gero eta likidoagoa bultzatzen du inongo ardurara afektiborik gabekoa: oso gaztetatik sare sozialen erabilera masiboa, ehun komunitarioen gutxitzea, identitate indibidualaren indartzea... Hurrengo urteetako erronka da auzi horri erreparatu eta gazteriaren harreman ereduak baldintzatzen duen ofentsiba neoliberalak geldiaraztea. Gazteriaren harremanak espazio eta sare kolektiboen baitan eta logika eraldatzaile eta elkartasunezkoetan garatzea da gure helburua. Jendarte kapitalista zisheteropatriarkalak indibidualismora eramaten gaituen bitartean, logika kolektibo eta komunitarioak indartu eta interdependentzia aitortu beharrean gaude: identitaterik gabeko ez-lekuen aurrean, identitate eraldatzaileetan oinarritutako lekuak bilatuz, bizi eredu likidoen aurrean heldulekuak eskainiz, askatasun liberalaren aurrean zaintza aldarrikatuz...

Baldintza material negargarriek, espektatiba kolektiboen erortzeak eta gure bizitzak zeharkatzen dituzten zapalkuntzek ziurgabetasun egoera ikaragarriara garamatzate. Ez dakigu etorkizunean heldulekuak izango ditugun edo ez, zainduak izan eta parekoa zaindu ahalko dugun, biziraun ahal izango dugun... Horri guztiari sistemak erantzukizuna norbanakoarengan jartzeko egiten duen presioa gehitu behar diogu, gaixotasun psikosozialak inoiz baino gehiago hedatzea ekarri baitu. Hurrengo urteetako gazteen problematika nagusietako bat izango dela deritzogu, baita pandemiaren testuingurua igarota ere. Erroetaraino doan irakurketa mahaigaineratu eta sistema kapitalista zisheteropatriarkala horren atzean dagoela ikusarazteko ardura dugu.

Ernaik gazteriaren harreman eta sozializazioari adi erreparatu behar dio, fenomeno berriak detektatu eta beharrezko planteamenduak garatzeko: sozializazioa garatzeko eredu askatzaile edo eraldatzaileak, harreman sozialak garatzeko komunitatea eraikitzeke planteamenduak, logika kolektibo eta komunitarioen hedapena, indarkerien aurreko erantzunen artikulazioa... geure egitekoak dira.

Bizi ereduak: aisialdiaren garrantzia eta kriminalizazioaren funtzioa

Sistema kapitalista zisheteropatriarkalak gazteriaren eredu propio eta interesatua eraikitzen du. Gazteak izan behar gara positiboak, ausartak, ekintzaileak, konpromisorik ez hartzean oinarritzen garen gazte "askeak", anbiziotsuak eta espektatiba handikoak, identitate solidoetatik ihes egiten dugunak, etengabe erosi eta kontsumitzen dugunak... Bitartean, lan eta bizi baldintza negargarriak eskaini eta horien erantzule egiten gaituzte, erantzukizun indibiduala kokatuz gure egoeraren oinarrian. Sistema kapitalista zisheteropatriarkalak gazteriaren prototipo edo eredu zehatz bat bultzatzen du, beraz, horretarako baliabide ekonomiko, kultural eta politikoak erabiliz. Hedabide handiek, korporazio handiek, erakundeek, alderdi politiko konbentzionalek eta beste hainbat agentek sakontzen dute gazteriaren eredu zehatz horretan.

Gazteen aisialdiak arreta berezia merezi duela deritzogu. Batez ere kapitalismo zisheteropatriarkalak zehazten du egun dugun aisialdi ereduak, balio matxistak, kontsumistak eta erdaldunak nagusituz. Aisialdi mota gehienak zeharkatzen dituzte balio horiek eta jaiari lotutako aisialdian are nabarmenagoa dela esan dezakegu. Gainera, bizi eredu zehatz bat hauspotzeko balio du aisialdi eredu horrek. Asteaz zehar pertsona produktiboak (ahalik eta gehien) izan behar gara: ikasi, lan egin, gorputz normatiboak kirolaren eta dieten bidez lortu, hizkuntzak ikasi, etab. Bakarrik gaude edo eredu oso in-

dibidualistei jarraituz asteko momenturik gehienetan. Behin asteburua helduta, egoera beste muturrera eramanez, kontsumo basatian eta desfasean oinarritutako sozializaziora, aisialdira eta jaira bideratuak dira gure bizitzak. Asterik aste errepikatzen da eskema hori, astean zehar sistemarentzat produktiboak izan, asteburuan hortik ihes egiteko. Horrez gain, alienazioa eta sistemarekiko pasibitatea sustatzeko aisialdi ereduak indar handia dute. Droga kontsumoa hor kokatu dezakegu. Eta azken urteetan gazteen artean ikaragarri gora egin duen ludopatia ere bai. Fenomeno berria ez den arren, apustu-etxeen hedapenarekin esponentzialki hazi da eta problematika oso esanguratsua da egungo gazteriaren artean. Horrez gain, aipatzekoa da gazteen artean hedatu den beste fenomenoak: kriptomonetak eta inbertsio sasi finantzieroak.

Gazteriaren kriminalizazioari ere erreparatu nahi diogu. Pandemiarekin lehen planoan jarri den problematika da, baina pandemiatik haratago ulertu behar duguna. Sistemak gazteria idealizatzen du, betiere balio kapitalista eta zisheteropatriarkalen gainean eraikitako eredu erdigunean jarriz. Eredu horretatik disidente garen momentuan (gure identitatearekiko, harremanak garatzeko momentuan, espazio publikoaren erabileran, militantzia politikoan...) sistemaren kriminalizazioa jasaten dugu. Esan bezala, pandemiak lehen planora ekarri du eta formaz aldatuko den arren, aurrerantzean ere pisua izango duen fenomeno da.

Historikoki Gazte Antolakundeak zein Gazte Mugimenduak garrantzi handia eman diote gazteen problematika horiei, baita aisialdi eredu alternatiboen eraikuntzari ere. Gaur egungo testuinguruan logika hori berresten dugu: balio eraldatzaile, euskaldun eta feministetan oinarritutako aisialdia sustatzea, jai herrikoiak bultzatzea, apustu etxeen edo alienazio forma ezberdinen aurka egitea, bizi eredu eraldatzaile eta komunitarioak sustatzea, etab. Hitz gutxitan, sistemak bultzatzen duen gazteriaren ideia hautsi behar dugu eta hortik irteten garen gazteen kriminalizazioari aurre egin. Aurrez aipatutako balio eraldatzaileetan kokatzen den gazteria hegemoniko bihurtu arte, borroka materialak garatu eta aisialdiari eta harremanei lotutako planteamen-
duak eraiki behar ditugu.

Gazteria sistemaren, Espainiako Estatuaren eta Euskal Herriaren aurrean

Sistema kapitalista zisheteropatriarkalarekiko eta hura bermatu eta betikotzen duen 78ko erregimen espainiarraren proiektuekiko gazteriaren atxikimendua txikia edo oso txikia da. Alta, sistema kapitalista zisheteropatriarkalak babes esplizitu handia izan gabe ere, sustatzen dituen balio eta bizi

ereduek babes sozial handia izan dezakete: bizi proiektu bat garatzearen ulerkerari, harremantze eta sozializazio ereduari, kontsumo ereduari edota bizi erritmo eta moldeei dagokienez, besteak beste. Bestetik, azken markadetako borrokak eta egungoak 78ko espainiar erregimenaren babes ikaragarri higitu du. Hori horrela izanda ere, hurrengo lerroetan azalduko dugun moduan, proiektu independentista eraldatzaile baten babes soziala eta, batez ere, horrekiko aktibazio politikoa, ez dago Espainiako Estatuarekiko desatxikimenduaren maila berean.

Desatxikimendu horrek ez dakar, bere horretan, gazteriaren indarra proiektu askatzaileetara bideratzea. Sistema kapitalista zisheteropatriarkalaren garaipen handienetakoa sistemaren asimilazio positiboa egon ez arren (jendeak sistema ontzat ez jo arren), asimilazio negatiboa existitzea da: sistemarekin bat egin ez arren, alternatibarik ez dagoela pentsatuta, pasibotasuna edota aterabide indibiduala hautatzen ditugu. Gauzak horrela, sistema kapitalistaren eta 78ko Erregimenaren aurrean ondorengo hiru erantzunak identifikatzen ditugu: erresignazioa, haserrea eta eraldaketa.

- **Erresignazioa:** gazteriaren parte handi batek sistema ontzat jo ez arren, egoera onartu edo aterabide indibidualak bilatzen ditu. Hau da, gaur egungo gazteriaren egoeraren ezaugarrietako bat eta Ernaik egoera hori irauli eta kontzientzia hartzearen bidez aktibazio politikoa sustatzeko erronka estrategikoa du.
- **Haserrea:** Euskal Herrian apalagoa izan den arren, haserreari lotutako erreakzio instantaneo eta aurrez antolatu gabekoak gertatu dira nazioartean: Herrialde Katalanetan kasu. Beste izaera batekin, baina injustizien, autoritarismoen edo eraso matxista edo lgtbfobikoen aurrean ere, gazteriaren erantzuna masiboa eta irmoa izan da maiz. Espektatibarik gabeko eta ziurgabetasunez beteriko jendartean eztanda sozialak aukera erreala dira; are gehiago, gazteriaren artean eta bokazio eraldatzaileak dagoen Herri batean. Haserrea kanalizatzea eta energia eraldatzaile bihurtzea da iraultzaileon egitekoa.
- **Eraldaketa:** azkenik, eraldaketarako borrokara batzen garen gazteak gaude. Ernai eta gure komunitatean, herri eta gazte mugimenduetan, proiektu komunitarioetan, injustizien aurrean eta bestelako hamaika espazio eraldatzailetan antolatzen gara. Hitz gutxitan, erresignazioa eta haserrea aktibazio eraldatzaile bihurtzea dugu erronka politikotzat.

Nazio pultsuaren ahultzea aztertu dugu lehenago. Gazteon artean ere garratzen ari den fenomeno da: hezkuntza sistemak, esaterako, Euskal Herria marko gisa pisua galtzen ari da, digitalizazioaren eta neoliberalismoaren eraginez Euskal Herritik kanpoko hedabideak eta entretenimendurako eskaintza indartzen ari da, estatuarekin konfrontazioa ahultzen... Gainera, azken urteetan ezkerreko gazteria abertzalea batzeko espazio edo egitasmo batzuen ahultzea eman dela ikusi ahal izan dugu: euskal selekzioaren ofizialtasunaren aldeko partiduak edo ikastolen aldeko jaialdiak, besteak beste. Era berean, modu naturalean bizi dute euskalduntasuna eta euskal herritarra izatea gazte asko eta askok, lehenengo identifikazio eremuetako bat izanda. Identitate horren politizazio maila nahiko genukeen bezain bestekoa ez den arren, abagunea parez pare dugu.

GAZ
GAZ
GAZ

GAZ
GAZ
GAZ

GAZ
GAZ
GAZ

GAZ
GAZ
GAZ

GAZ
GAZ
GAZ

GAZ
GAZ
GAZ

3. ERNAI GAZTE ANTOLAKUNDEA

Ernai Ezker Abertzalearen baitan kokatzen den gazte antolakunde autonomo eta iraultzailea da. Euskal Herria aske, sozialista, feminista eta euskalduna lortzea du helburu, eta xede hori eskuratzeko bidean, Ernairen funtzio behinena Gazte Boterearen eraikuntza dela ulertzen dugu. Zapalkuntza forma oro (klase, nazio, sexu zein genero disideenteena, heldu boterea, amalurarekikoa, kulturala, koloniala/arrazista...) gainditu asmoz antolatzen da eta horren mesedetan jarduten duen Gazte Estrategia propioa du, testuingurura eta momentura egokitzeko gaitasuna izango duena. Bide horretan, praktika zein balore iraultzailetan sakondu eta hedatzea dagokio Antolakundeari zein bertako militanteei.

Gazte Antolakundeak izaera feminista, sozialista, independentista, euskalduna, ekologista eta internazionalista du, eta hauetako bakoitzak gure eguneroko jardunean isla du. Zentzu horretan, bereziki azpimarra jarri nahi diogu feminismoa transbertsalki ulertzeari eta ondorengo lerro eta ideietan hori garatzeari. Azkenik, ponentziaren tesietan jaso dugun moduan, Antolakundearen izaera dekolonial-antiarrazistan, transmaribibolloan eta anti-faxistan pausoak emateko hautua egiten dugu. Zentzu horretan, azpimarra egin nahi dugu ardatz hauetako bakoitza transbertsalki ulertzeari eta ondorengo lerro eta ideietan hori garatzeari.

3.1. ERNAIREN MISIOA

Gazte Antolakundearentzat ezinbestekoa da bere erronka politikoak momentuko fase politikora egokitzea. Hori gure indarguneetako bat bada ere, baditugu Ezker Abertzalearekiko hiru eginkizun nagusi, denboran zehar gure esentzian jarraitu dutenak etengabeko egokitzapenean dihardutelako. Batetik, askapen mugimenduaren ildo politiko orokorrekiko gazte estrategia garatu eta praktikara eramatea; Gazte Estrategiaren xedea gazte zapalduon errealitatea iraultzea izanik. Bigarrenik, belaunaldi berriak Ezker Abertzalearen proiektura batu eta balioen transmisioa bermatzea. Eginkizun horren baitan kokatuko genuke koadro politikoak sortzea eta gure memoriaren transmisioa egitea. Eta azkenik, mugimenduan gazte begirada bermatu eta gure egunerokora praktika berriak ekartzea: antolatzeko modu anitzak, epikotasuna, gazte ikuspegia txertatzea, iruditegi berritzailea, borroka molde zein borroka eremu berriak...

Gazte independentistak sortzea da estrategia independentista eraldatzailearen baitako gure funtziorik behinena. Izan ere, Ernaik prozesu independentista bultzatzeko ardurua du, hausturak bilatu eta askapen mugimenduaren abiada azeleratzekoa. Hurrengo zikloaren garapenerako bloke nagusizat Ezker Independentismoa kokatzen dugu, azken horrek izan behar du egungo fase politikoan erreferentzia politiko-instituzional-sozial nagusia. Mugimendu horrekiko atxikimendua duten gazte guztientzat erreferentziatzeko gazte antolakundea Ernai izan behar da, prozesua bera erakargarri egin eta gazteriaren artean hegemoniko bilakatzeko anbizioarekin.

Prozesu independentista garatzeko gazte perspektiba txertatzea, borroka berriak mahaigaineratzea eta aipatutako beste hamaika ertzetan sakontzeaz gain, gazte independentistak sortzea ezinbestekoa da. Eta horretarako naziogintzaren ardatza indartzea beharrezkotzat jotzen dugu, eginkizun hori geure misio egiten dugularik.

Esan bezala, estrategia independentista eraldatzailearen baitako Gazte Estrategiak norabidetzen du gure jarduna. Fase politiko honen baitako gure misio nagusia Gazte Frontearen artikulazioan datza eta, beraz, burujabetza eta eraldaketa sozialean sakontzeko gazteria antolatzean. Hori betetzeko ezinbestekoa da Gazte Mugimenduaren lana eta, ondorioz, gazte mugimenduak dauden lekuetan indartu eta ez dauden lekuetan sortzea da oraingo fasean indartu behar duguna.

Gazte Mugimenduak Gazte Frontearen logikan ardaztu behar ditugu. Horretarako beharrezkoa dugu logika aldarrikatzaileak eta eratzzaileak bultzatzea, konfluentzia espazioak indartzea eta horietan guztietan gazteon bizi baldintzak hobetu eta bizi ereduak eraldatzeko anbizioa hedatzea, eta pedagogia independentista egitea. Prozesu horiek indartzeko Ernaiko militanteok inizatibaz eta erantzukizunez jokatu dugu, umiltasunez eta apaltasunez, ehungileen filosofiaren baitako lana eginez.

Euskal Herriari eta zehazki gazteriarri zuzentzen gatzazkio, Euskal Herriko gazteria zapaldua izanik artikulatu nahi dugun subjektua. Hortaz, gazteriarrekiko iritzi sortzaileak eta politizatzaileak izan behar dugu, horri mobilizatzeko eta antolatzeko espazio anitzak eskaintzea gure misio nagusienetarikoa izanik.

3.2. ERNAI EZKER ABERTZALEAREN BAITAN

Ernai Ezker Abertzalearen baitan kokatzen den gazte antolakunde autonomo eta buruaskia da. Ildo orokorraren baitako gazte estrategia gauzatzeko autonomia da eta, aldi berean, askapen prozesuaren ikuspegi integrala garatzeko ardura ere badu. Zentzu horretan ulertzen dugu Ernaik iritzi sortzailea izateko eta gazteak politizatzeke duen ardura eta estrategia orokorrari ekarpena egin behar diogu zentzu horretan ere. Horrela, Ernaik posizio propioak ere izango ditu, mugimenduko beste eragile batzuekiko ezberdinak izan daitezkeenak; beti ere, estrategia komunari ekarpena egingo diola ebatziz gero.

Abianen zehaztu eta hurrengo kongresu prozesuetan berretsi bezala, Sorturi dagokio Ezker Abertzalearen baitan kokatzen diren herritar guztien bilgune politikoa izatea eta prozesu independentista eraldatzailearen mesedetan antolatzea. Baita ildo politikoaren, irismen luzeko hausnarketen eztabaida-guneen eta Ezker Abertzalean eztabaida kolektiboan garapenerako esparruen dinamizatzailer izatea ere.

Sorturi funtzio horiek egozten badizkiogu ere, Ernaik Gazte Estrategia garatze bidean askapen mugimenduaren integraltasunari eta jendarte osoari erreparatu behar dio. Horretarako, hausnarketa propioak egin eta horietan sakontzea dagokigu. Bi zentzu nagusitan: Ezker Abertzalearen baitan gure hausnarketen ekarpena modu eraginkor eta aberasgarrian egiteko; eta bestetik, jendarteko elementu estruktural zein koiunturalen inguruan Ernaik ahots eta diskurtso propioa izateko.

Ernaiko kide guztiak gara Sortzaile, eta ondorioz norbanako moduan hartzen dugu parte Sortun (kongresu prozesuei eta herri batzarrei dagokionean batez ere). Herri edo auzoko taldeetan ere Sorturen herri estrategiari ekarpena egitea gure funtzioetako bat da, eta horretarako, alde batetik, aldebikoak eta bestetik Sorturen Kongresu prozesuak ditugu. Aldebikoak tokian toki egiteak apustu partekatuek egitea, herriaren egoera aztertzea eta koordinaziorako gune sistematizatuak izatea ekarriko du. Kongresu prozesuetan, berriz, norbanako moduan hartuko dugu parte. Horien inguruko elikadura jasotzeko Ernairen baitako espazioak ere irekiko ditugu, ekarpena egin ahal izateko trebatzeko zentzuan eta ez posizio bateratu batekin ekiteko.

Euskal Nazio Askapen Mugimendua osatzen duten beste bidelagunekin ere harremanak estutu eta elkarlanerako espazioak indartzen jarraituko dugu. LAB klase-sindikatuak izango da gure erreferentziazko sindikatuak eta borroka sozioekonomikoan bidelagun. Helburu estrategikoetan bat egiteaz gain,

egungo testuinguruan, borroka soziosindikalean aliatu garrantzitsua dugu. Bestetik, eta gatazkaren ondorioen konponbidearekin zuzenki loturik, EPPK eta ELPKekin harremana mantendu eta estutuko dugu, euskal errepresaliatu politikoen bi kolektibo nagusiak baitira.

3.3. ERNAI EZKER INDEPENDENTISMOAREN BAITAN

Ezker Independentismoa balio independentista eta ezkertiarren baitan artikulatzen den espazio politiko eta soziala da, mugimendu izaera duena. Independentziaren eta Euskal Errepublikaren proiektua azken bururaino eramateko funtzioa du.

Ezker Abertzaleari eta gure proiektu politikoari lotutako hainbat funtzioekin batera, ziklo politiko honetan prozesu independentista eraldatzailea egikaritu eta ezkerreko independentismoarekiko zenbait misio ditugula landu berri dugu: gazte independentistak sortzea, prozesu independentistan gazte perspektiba txertatu eta mugimendua aberastea eta Gazte Frontearen artikulazio eta dinamizazio politikoa. Misio horien gauzapenerako, Ernai Ezker Independentismoaren baitan erreferentziatzeko gazte antolakundea eta dinamizatzailea izan behar da.

Ezker Independentismoaren baitako harremanetan sakontzen joan behar dugu. Hego Euskal Herrian Ezker Independentistaren erreferentzia politiko nagusia den EH Bildurekin harreman zuzena izango dugu. EH Bilduk hurrengo ziklo politikoan euskal jendarteko hegemonia lortze bidean egingo du lan, maila politiko, sozial zein kulturean.

Harreman horretan badira kontuan hartzeko zenbait faktore: lehenengoa, gure estrategiaren baitan erakundeek hainbat funtzio betetzen dituzten arren, herrigintza eta Herri Boterea dira funtsezko aldagaiak. Baita erakundeetako boterea eraginkorra izateko ere, baina argi eduki behar dugu bai botere-gune instituzionaletara iristean eta baita iristeko prozesuan ere, talkek egongo direla Gazte Boterearen-Herri Boterearen eta Botere Instituzionalaren artean. Kasu hauetan, egoera ezberdinak egon daitezkeela jakitun, protesta sozialak areagotzearen aldeko apustua egiten dugu, alternatiben eraikuntzan sakontzeko aukerak zabaltzea exijituz. Logika honetan sakontzea beharrezkoa dela deritzogu, harreman horretan kontraesanak sortuko badira ere, gure estrategia politikoa hauspotuko dutelako.

Bigarrena, Ernaik gizarteko auzi estruktural zein koianturalen gainean ahots propioa izateko hautuak hainbat unetan EHBilduk eta Ernaik posizio ezber-

dinak izatea ekarriko du. Batzuetan, posizio ezberdin hauek bi noranzkotan gatazkak eta kalteak sortuko dituztelarik, baina beti ere hauen kudeaketarako borondatea izango dugularik. Kasu horietan, unean une erabakiko da kontraesan horiek nola kudeatu, izan barne-mekanismoen edo harremanen bidez, zein publikoki gure ezinegona edo desadostasuna plazaratuz; hau strategiaren mesedetan baldin badao, eta gazteriari eta Euskal Herriari Ernaik duen posizioa azaltzeko helburuarekin.

Bestelako herri-mugimendu-eragile-elkarteekin eta, batez ere, askapen prozesuan eta burujabetza prozesuan kokatzen direnekin beharrezkoak diren aliantzak, zubiak eta harremanak eraikitzen jarraituko dugu. Kasuan kasu aztertu beharrekoa bada ere, aldebiko harremanean oinarrituko gara, ekarpena norabide bikotzekoa izan dadin. Ezkerreko Independentismoaren eragile horien artean kokatzen ditugu: Euskal Herriko Bilgune Feminista, Euskal Herrian Euskaraz, Gure Esku, Ikama, etab.

TO
THE
BOTTLE

WATER

4. PROIEKTU POLITIKOA

Askapen prozesua da gurea, zapalkuntzarik gabeko jendarte eredu parekidea helburu duena. Mundu hobe bateranzko ekarpena egingo dugu maila globalean, baina geuretik; lurraldetua baita gure prozesua: Euskal Herrian eta jendarte euskaldunean.

Historikoki Gazte Antolakundeak eta Ezker Abertzaleak izandako proiektu politikoan berresten gara. Independentzia, sozialismoa eta feminismoa dira gure helburu estrategikoak eta, ondorioz, gure proiektu politikoak, zapalkuntzarik gabeko jendarte bat marrazten duen ortzi-muga. Izenez proiektu politikoak aldatzen ez badugu ere, izanez bestelako borrokekin osagarritzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Txanponaren bi aldean metaforatik jaio zen gure proiektu politikoak, askapen nazionala eta soziala elkarlotuz eta osagarrituz. Egun poliedroaren forma hartu duela esan dezakegu; izan ere gure proiektuak hamaika aurpegi ditu eta aurpegi bakoitza, borroka bakoitza zuzenean dago besteekin harremanetan. Poliedroaren alde bakoitza ez dugulako deslotuta ulertzen, bat eginda baizik.

Gure proiektuak nazio askapena du ardatz, eta beste askapenei bide emateko palanka bezala ulertzen dugu hau. Independentziarako borrokaren noranzkoan kokatzen ditugu euskal sozialismorako eta jendarte feminista baterako borrokak, batzuk besteari aurrera egiteko aukerak sortzen dizkiolako. Estatu baten eraikuntzak beste borrokei ere atea irekitzen baitizkie; zeinetan botere guneetako indar korrelazioa gure aldekoagoa izango litzatekeen, eta ezkerreko proiektu bat garatu eta burujabetza prozesuan aurrera urratsak emateko aukera handiagoa edukiko genukeen. Hori horrela izanik ere, alorrez alor gaurdanik hasi behar dugu baldintzak sortzen Euskal Herria feminista, sozialista eta euskalduna eraikitzen.

Gazte Antolakundeak eta baita gure proiektu politikoak ere zenbait interpelazio jaso izan ditu hainbat ikuspegitik. Eta interpelazio horiek lehenago egon badira ere, gaur da eguna zeina Antolakundearen baitan interpelazio horien pertzepzioa aldatu den. Irakurketa politiko bat egin eta gure proiektuan zein estrategian bete beharreko funtzioaren inguruan hausnartu eta proiektua egokituko dugu. Baita alderantzizko noranzkoan ere: borroka horiei gure proiektu politikoak egiten dien ekarpena landu eta baliatu behar dugu. Zentzu horretan kokatzen ditugu euskara, borroka ekologista eta transmaribibo-

llo borroka; jakitun beste horrenbeste interpelazio ere baditugula eta hauek lantzen joan behar dugula, borroka antiarrazista eta dekoloniala kasu.

Gure proiektu politikoa osatzen duten helburu eta borroken ortzi-muga Euskal Herri aske eta burujabe batean pertsona eta kolektibo ororen emantzipazioa da. Erronka handiak ditugu parez pare, gure proiektu politikoa gauzagarri egiteko bidean urrats garrantzitsuak eman behar ditugu; ildo bakoitzean proposatutako pausoak eman eta guztia askapen prozesuaren mesedetan jarri behar dugu. Gure bizitzako espazio guztietan burujabetzak eta, ondorioz, boterea eskuratzen joan behar gara; zapalkuntza ezberdinak gaindituko dituen jendarte eredu bat eraiki eta eskuratzeko.

Proiektu politikoa ezaugarritzera garamatzaten eta indartu beharreko sei ardatz definitu baditugu ere, garrantzitsua da hau ikuspegi intersektional batetik irakurri eta lantzea. Izan ere, guztiak daude elkarreraginean, ezin ditugu mailakatu eta batean aurrera urratsak eman ahala besteetan ere ematen joango gara; nahiz eta kasu batzuetan ardatz bakoitzak estrategia propioa garatu beharko duen.

Independentzia

Estatu espainiar eta frantziarraren menpeko garen bitartean etengabeko zapalkuntza eta asimilaziora kondenatuta gaude, erreforma ezinak direlako, antidemokratikoak, izaera zentralista dutelako... etengabeko zapalkuntza eta asimilaziora kondenatuta gaude estatu espainiar eta frantziarraren menpeko garen bitartean. Egoera horren aurrean eta euskalduntasunetik, nazio bat izatearen nahi eta beharretik egiten dugu guk independentziarako hautua. Estatuetik haustura gisa ulertzen dugu independentzia, egungo formazio sozialarekin apurtzen duen iraultza momentu gisa irudikatzen dugu. Apurketa horrek indar korrelazioan aldaketa bat ekarriko luke berekin.

Helburu taktiko-estrategiko gisa kokatzen dugu independentzia. Estrategikoa delako gure proiektu politikoa garatze bidean eta, aldi berean, haustura momentuko helburu taktiko bat delako, gure Herria eraikitzen jarraitu ahal izateko.

Horregatik da independentzia aldi berean tresna eta helburu. Garrantzitsua da hori horrela ulertzea. Izan ere, helburu estrategiko moduan ulertu genezake, independentzia lortzeak soilik ez duelako guk amesten dugun Herria eraikiko; baina gainontzeko zapalkuntzen gaindipenerako ezinbestekoa da

independentzia. Euskal Herrian burujabetza absolutua eskuratzeko beharrezko jauzia da independentzia, estatu propio bat, eskuratzea.

Sozialismoa

XXI. mendera egokitutako euskal sozialismoa dugu helburu. Gure herriaren idiosinkrasiara eta ezaugarri ezaugarri sozial, politiko, ekonomiko eta kultural propioetara egokitzen den eta sen komunitarioa erdigunean jarriko duen sozialismoa, hain zuzen ere.

Eredu kapitalistarekiko alternatiba integrala da euskal sozialismoa. Gu-txi batzuen etekinaren metatzearen eta langileriaren esplotazioaren ordez, jendartearen askatasuna eta berdintasuna oinarritzat izango lukeena; kapitalaren diktadura ekonomikoaren eta ekoizpen bitartekoen jabetza pribatuaren ordez, langile klasearen kontrolpeko eta bere zerbitzurako ehun ekonomikoa erdigunean jarriko lukeena. Eta ekoizpen modu kapitalistan oinarritutako ingurunearen ustiaketa basatiaren ordez, ekonomia planifikatuaren, desazkundearen eta ekojustiziaren ikuspegitik jardungo lukeena.

Krisi anizkoitzari aurre egiteko alternatiba sozialismotik eraiki behar dugu, sozialismorik gabe ez delako alternatibarik izango. Etengabeko borroka materiala eta ideologikoa praktikan jarri behar ditugu iraulketa ekonomikoa gertatu dadin. Eta bide horretan sozialismoa gauzagarri aurkeztu behar dugu, zubiak eraikiz eta ahalbidetuko lukeen egoera egonkortuz.

Feminismoa

Feminismoak munduan egoteko modu bat ematen digu, gure baitako ezin-negon kolektiboei aterabide bat, gure inguruaz (eta buruaz) zalantza egite-tera eramaten gaituena. Sistema kapitalistak bere burua sustengatzeko patriarkatua behar duela jakinik, dominazio-harremanak ikusarazi eta kontzientzia hartzera bultzatzen gaitu, gure buruen jabe izatera eta bizitza duinen aldeko etengabeko ahots izatera. Hamaika ahaldundze eta deseraikuntza prozesuetatik igaro, giza harremanak irauli eta sakoneko eraldaketa sozialak kolektiboki egiteko bidea da feminismoa.

Ernaik euskal feminismoa bera du helburu, eta euskal feminismoaren tradizio teorikotik edaten dugu. Historikoki zapalkuntza hirukoitzaren teoria (nazio, klase eta genero ikuspegia elkar lotzen eta aztertzen dituen) oinarri izanda joan gara gure feminismoa eraikitzen. Oinarri horretatik abiatuta,

bestelako zapalkuntzek ere duten eraginaz jabetu eta, egun, zapalkuntza anizkoitzen inguruan hitz egiten dugu.

Historikoki zapalkuntza hirukoitz gisa landu ditugun elementuez gain, gai-nontzeko zapalkuntzei bide emateko ikuspegi integral eta interseksionala jorratu behar dugu. Zapalkuntza guztiak elkar loturik, elkar konektaturik eta elkarreraginean daudela ulertu, eta horiek bizi ditugunon aliantzen potentzialitatea berresten dugu.

Eguno paradigman, burujabetzen (pluralean) beharra azpimarratzen dugu. Eta ikuspegi horretatik burujabetza feministak forma eta dimentsio ezberdinetan eskuratu eta boteretze prozesuan aurrera urratsak eman behar ditugu.

Euskara

Euskarak Euskal Herria behar du bizirauteko. Eta Euskal Herriak ere euskara behar du, horrek ezaugarritzen baitu gure proiektu politikoa. Hizkuntza zapalkuntza gaindituko duen askapen prozesua bultzatu behar dugu, finean, euskarak nazio bat behar duelako. Inoiz baino argiago ikus dezakegu egungo testuinguruan: euskararen aurkako erasoen gorakada, euskalduntze prozesuek emandako emaitza eskasa, euskalgintzaren gihar ahula, eremu militanteetan ere erabileraren beherakada...

Euskaraz ikasi, lan egin eta bizitzea etengabe urratzen zaigun eskubidea da. Eskubidea aldarrikatzeaz harago, irisgarritasuna eta normalizazioa ezinbestekoak ditugu gure proiektu politikoa garatu ahal izateko: hizkuntza hedatzen jarraitu dadin eta gure herrian euskaraz bizitzeko hautua edonork egin ahal izateko. Egun, euskararen erabilera bera gatazka politikoa da, eta guk hautu politiko bat egiten dugu euskaldun hiztun aktibo izateko, gatazka hori azaleratu eta gainditze bidean. Euskarak estatu bat, hiztun aktiboak eta arnaguneak behar baititu bizirauteko.

Bestetik, Euskal Herriaren identitatearen eraikuntzan zein euskal kulturaren ezinbesteko elementua dugu. Geroz eta nabarmenagoa da Hego eta Iparraldeko gazteen arteko distantzia, eta hori zuzenki lotuta dago jasotzen ditugun erreferentzia kulturelekin. Honi aurre egiteko euskara da lotzen gaituen elementu nagusia. Euskararen balio sinbolikoa gure nazioa ardatzen duen gako nagusienetako bat da. Herria eta nazioa egiten ditu, euskararik gabe ez dago nazio askapen prozesurik. Eta beraz, erabilera eta normalizaziorik gabe ezingo dugu aurrera urratsik eman.

Ekologismoa

Hurrengo hamarkadako jendarte aldaketa esanguratsuenetarikoa izango da krisi klimatikoak eragindakoa, kapitalismoak berak sorturiko eta elikaturiko fenomenoak. Izan ere, haien etekinak handitzeko amalurra suntsitu eta lehengaiak ustiatzeko prozesu bortitzari eman dio bide. Gainera, orain norbanakoan jarri nahi dute krisi klimatikoaren erantzukizuna, eta gure gain jarri dute jarrera ekologistak hartzearen konpromisoa, eta kapitalismo berdea erabiltzen dute haien buruak justifikatzeko. Baina argi dugu ekologismoa eta sistema kapitalista banaezinak direla, hau da, kapitalismoarekin hautsi behar dugu benetan ekojustizian oinarritutako jendarte eredia lortzeko.

Testuinguruan aipatu gisa, gainproduktio eta kontsumo basatian bizi gara, eta desazkundearen zein sistemaren errotiko aldaketa ezinbestekoa da zentzu honetan, kolapso ekologikora garamatzana sistema kapitalista bera delako. Gure aurrekoak baino gutxiago kontsumituz biziko den eta bizi nahi dugun belaunaldia izan behar du geureak, komunitate ikuspegi batetik ekojustizian aurrera urratsak emango dituen. Zentzu horretan, ekojustizia deituko genioke pertsona orok naturak eskaintzen dizkigun baliabideak eskuratzeko eskubidea izan, eta hauek errespetatzeko betebeharrari.

Transmaribollo borroka

Transmaribollo subjektua subjektu politiko erradikalizatu eta indar politiko handiko gisa ulertzen dugu. Zisheteroarauari aurre egin eta posizio asimilazionistetatik eta kapitalismoak onartzen dituen markoetatik haratago antolatzen den borroka da. Historikoki klase borroka eta borroka antifaxistarekin oso lotuta egon da.

Inposatzen diguten bizi ereduaren aurrean zisheteroaraua kolokan jartzen du eta bestelako irakurketa bat egiten du gizarte-egitura bera zalantzan jarriz. Jendarte antolaketa, familia nuklearra, errealitate bitarra, gorputz normatiboak, genero rola... ezbaian jarri eta bestelako eredu bat mahai-gaineratzen du transmaribollo borrokak.

Normaren barruan eraikitzea baino, gairadipenaren aldeko borroka gisa ulertzen dugu; emantzipazio indibiduala baino, kolektibotasunaren askatasunaren bilaketa. Horregatik, burujabetzak eskuratzeko bidean kokatzen dugu, gure gorputz eta bizitzaren gaineko erabakiaren aldeko borroka delako.

4.1. SUBJEKTUA DEFINITZEN

Ernairen xedea Euskal Herriko gazteria zapalduaren bizi baldintza eta bizi ereduak eraldatzea da. Euskal Herriko gazteriak jasaten dituen hamaika zapalkuntza formak irauli eta bizi baldintzak duintzeko bidean ekarpena egin behar du.

Euskal Herriko gazte zapalduon bizi baldintzak eta bizi ereduak hobetzea xede badugu ere, irakurketa espezifikoak egiten dugu artikulatu nahi dugun subjektuarekiko. Historikoki Ezker Abertzaleko Gazte Antolakundearentzat Euskal Gazteria izan da iraultzarako subjektu. Urtez luzez Euskal Gazteria Gazte Antolakundearen proiektu politikoaren baitan artikulatzen zen gazteriaz gain, Gazte Mugimenduetako subjektuari erreferentzia egiteko erabili izan da. Hala ere, imajinario kolektiboan oso proiektu politikoari eta Gazte Antolakundeari lotua ulertu izan da, faktore ezberdinak medio: garaiko estrategia eta dinamizazio politikoaren ulerkerak, errepresioaren eragina...

Egungo estrategia, ordea, bitzta duinak eskuratzeko gazte mailan eraldaketa sozialean eta burujabetzan sakontzeko bloke zabal bat eratzean oinarritzen da; gehiengoak osatzen eta ez gazteriaren gehiengo gure proiektu politikoaren baitan artikulatzen. Hori horrela izanik, egungo Gazte Estrategiaren formak bi subjektu izendatzera garamatza: Gazte Frontearen baitan artikulatuko den masa zabalak, eta Gazte Estrategia bururaino eramango duen masa, gure proiektu politikoaren baitan artikulatzen dena.

Lehena, Gazte Frontearen baitan artikulatzera goazen subjektu zabalak izango litzateke, gehiengoak metatzera bideratzen duguna. Hori Euskal Gazteria gisa izendatuko dugu, datorren ziklo politikorako erronka nagusia horren osaketa izanik. Aipatu bezala, eraldaketa sozialaren eta burujabetzaren bidean aurrera urratsak ematea izango da subjektu horren xedea. Borroka sektorialen bidez, tokian tokiko alternatibak eraikiz, masa mobilizazioak bultzatuz...

Bigarrena, proiektu politikoaren baitan artikulatutako subjektua da. Bere funtzioa Gazte Estrategia muturreraino eramane eta Gazte Frontea prozesu independentistaren mesedetan norabidetzea eta bertan pedagogia independentista egitea da. Euskal Gazteria Independentista izendatuko dugu; beste hainbat baliorekin (feministarekin, sozialistarekin, euskaldunarekin, iraultzailearekin...) batera, ezaugarritzearen ardatz nagusia izatera independentista delako.

Artikulaziorako izendatu ditugun bi subjektuak ez ditugu modu dikotomikoan ulertzen. Kontrara, elkarri estuki lotuta daudela ulertzen dugu, Euskal Gazteria guztiok osatzen dugula, alegia. Gazte Frontean artikulatutako masa eta gure proiektu politikoaren baitan elkartutakoak etengabe egon behar dugu harremanean eta elkar elikatuz, beraz, guztiak Euskal Gazterien parte garela ulertzen dugu.

Teorikoki edota azalpenetan bi subjektuak ezberdinduko baditugu ere, kanpo jardunean Euskal Gazteria terminoa erabiliko dugu bai proiektu politikoari, baita Gazte Fronteari ere erreferentzia egiterakoan. Izan ere, batetik, guztiok barnebiltzen gaituen kontzeptua Euskal Gazteria delako eta bestetik, datorren ziklo politikoan hegemonizatzeraz goazen subjektua delako.

THE
GREAT
EST
EST

5. GAZTE ESTRATEGIA

5.1. GAZTE ESTRATEGIAREN FUNTSA

Gazte Estrategia Ernairen epe luzera begirako bide-orria da, independentzia, sozialismoa eta feminismoa lortu arteko bidea. Dinamikoa da eta Gazte Antolakundeak etengabe du berau gaurkotu eta koiunturaren egoerara egokitzeko zeregina. Ortzimuga berbera izanda ere, unean uneko testuinguru eta ziklo politikoaren erronketara egokitzen den estrategiari buruz ari gara, beraz.

Ezaugarri bi azpimarratuko ditugu. Bata, Ernairen Gazte Estrategiak estrategia nazionala izateko anbizioa du. Egun gure jardun-eremua Hego Euskal Herria bada ere, Ernairen konpromisoa da zazpi herrialdeetako gazteok estrategia bateratua eratzea; eta hurrengo urteetan horretara bidean lan egiten jarraituko dugu. Bigarrena, estrategia interseksionala izatea da; borroka eta zapalkuntza ezberdinen prismetik ulertzen dugulako estrategia.

Ernairen jarduna Euskal Herri aske, sozialista eta feminista eraikitzeko Ezker Abertzale osoaren jardunean kokatzen da eta, era berean, Ernaiko kideek diseinatzeko GAZTE ESTRATEGIAREN bide-orri osoa. Logika horretatik ulertzen dugu egungo ziklo politikoan GAZTE ESTRATEGIA estrategia independentista eraldatzailearen baitan kokatzea. Ezker Abertzale mailan diseinaturiko estrategia horrek Ernairen estrategia norabidetzen du eta, aldi berean, GAZTE ESTRATEGIAREN diseinu eta garapen osoa Ernairi dagokio.

Hurrengo orrialdeetan sakonduko dugun arren, GAZTE ESTRATEGIAREN egungo ziklo politikorako erronka nagusia GAZTE FRONTEAREN osaketa da. GAZTEON zapalkuntza egoerari aterabidea emateko bultzatzen duen aldeko frontea, burujabetza eta eraldaketa sozialak norabidetzen dutena.

5.1.1. ESTRATEGIA INDEPENDENTISTA ERALDATZAILEA

2016. urtean amaitu genuen Ezker Abertzaleko antolakunde eta kideok Abian eztabaida prozesua. Orduz geroztik, estrategia independentista eraldatzailea da egungo ziklo politikorako bide-orri komuna. Estrategia horren bidez, herritarren gehiengoak independentzia babestea eta bultzatzea dugu xede: mugimendu independentista zabal eta askotarikoa eraiki, hege-

monia kultural eta ideologikoa irabazi eta jendartearen gehiengoa prozesu independentista eraldatzailea azken bururaino eramateko aldebakarrekoak diren pausoak emateko prestatzean datza. Gehiengoen (langileen eta herri sektoreen) indar-metaketa burujabetzak eskuratzeko eta eraldaketa sozialerako bidean kokatzean datza.

Estrategia horren garapenean, burujabetza, eraldaketa soziala eta Euskal Herriaren erabakitze eskubidea (baita erabakitze eskubide formala edo autodeterminazio eskubidea ere) babesteko eta bultzatuko duen Bloke Historikoaren osaketa da xedea. Bloke Historiko hori lurraldearen, unearen edo erronka zehatzen arabera forma ezberdinak har ditzakeen aliantza-espazioen multzoa da.

Estrategiaren izaeran sakontzeko, hiru ezaugarri eta irismen estrategiko ulertzea garrantzitsua da:

- **Haustura demokratikoa:** estatuekiko haustura prozesu demokratikoaz ari gara. Estatuak egungo formazio sozial kapitalista, zisheteropatriarkal eta inperialista-koloniala mantentzeko egiturak direla jakinda, horiekiko haustura ezinbestekoa da Euskal Herriko formazio sozialean aldaketa kualitatiboak ezartzeko. Erabakitzeko eskubidearen aitortza eta gauzapenerako baldintzak eraiki, eta autodeterminazio eskubidea eskuratu eta gauzatzeaz ari gara. Benetako haustura demokratiko bat gauzatzeko helburua badugu, estatuekiko konfrontazioa ezinbestean eman behar da.
- **Prozesu eratzailerak:** egunez egun errealitate sozial berri hori eraikitzea da strategiaren funtsa, Ezker Abertzalean ibilbide luzea duen Nazio Eraikuntza estrategia da izaera eratzailerak horren erregaiak. Horrek burujabetza(k) eraikitzea eskatzen du, hau da, erabakitzeko gaitasun materialen eraikuntza gauzatzea.
- **Euskal langile eta herri sektoreak batu eta protagonista bilakatu:** Euskal langileria eta herri sektoreen baldintza material, sozial eta sinbolikoen hobekuntza lortzeko, herri sektore horien parte hartzea ezinbestekoa da. Soilik gero eta oinarri sendoagoa eta zabalagoa izanda egin ahalko du aurrera prozesuak.

Azkenik, estrategia independentista eraldatzailearen irismen estrategikoa azpimarratu behar dugu; Euskal Herri aske, sozialista eta feministara bidean ezinbesteko jauzia delako. Estrategia gauzatzeak Euskal Errepublikak

ren eraikuntza esan nahi du, eta horrek zapalkuntzarik gabeko jendartea erdiesteko eszenatokia parez pare irekiko digu.

5.1.2. BURUJABETZA

Bizitzaren eta jendartearen antolaketaren arlo guztietan erabakitzeko ahalmena eskuratzeari deritzogu burujabetza. Eremu horien artean daude: energia baliabideak, gure gorputzen gaineko kontrola, hizkuntza eskubi-deak, sistema sozioekonomikoa edota eredu politikoa. Burujabetzak beraz, bizi baldintzak hobetu eta bizi ereduak eraldatu zein jendartearen antolaketa errotik iraultzeko ezinbesteko tresna dira. Horregatik ulertzen ditugu eraldaketa sozialarekin zein errotiko gizarte aldaketarekin loturan. Era berean, erabakimena eta boterea eskuratzeko, botere harreman orekin hausteko, helburu dugu burujabetza.

Sistema kapitalista zisheteropatriarkalak eta estatuek boterea herritarren-gandik urruntzen dute. Gure bizitzen gaineko erabakiak gero eta urrunago hartzen dira, eta erabaki horiek kapitalaren mesedetan kokatzen dira gero eta gehiago. Horrela, kapitala eta bizitzaren arteko talkan, gehiengo sozial zabalak bizitzaren alde lerratu eta boteretzeko ezinbesteko auzia da burujabetza. Gaur egungo errealitatean, prozesu iraultzaile bat aurrera eramateko giltzarri nagusia da. Horregatik Herri aske, sozialista eta feministara arte eratu eta metatuko dugu burujabetza.

Burujabetzaz ari garenean prozesu bati buruz ari gara. Burujabetza prozesua dinamikoa da, etengabe gaurkotuz eta egokituz doalako. Prozesua metatzailea da, burujabetza kuota gero eta handiagoak eskuratzea eta eratzea xedetzat duelako. Kolektiboa da, gehiengo sozialen boteretzeari oinarrizten delako. Beraz, boterearekin harreman estuan dago, burujabetza eskuratu ahala erabakiak hartu eta gauzatu ahal izateko boterea eskuratzen baita. Burujabetzaren bidez garatzen den praktika orok edukiz betetzen du burujabetza, hau da, burujabetza prozesua aurrera joan ahala burujabetza edukiz mardulduko da.

Estaturik gabeko nazioen askapen prozesuetan eta Euskal Herriko askapen prozesuan zehazki, burujabetza independentziarekin harremanean ulertu behar dugu. Burujabetzak eskuratzea eta burujabetzaren aldeko gehien-goak sortzea hautu independentistarako giltzarri nagusia izango da; hau da, burujabetza prozesuak hautu independentistarako baldintzak sortzen ditu. Era berean, independentzia ezinbesteko aldagaia izango da burujabetza prozesuak aurrera jarrai dezan: burujabetza azken bururaino eramateko

zein horri lotutako errotiko eraldaketa soziala eskuratzeko nahitaezko urratsa delako independentzia.

5.1.3. GAZTE BOTEREA

Gazte Boterea burujabetzara bidean gazteok bizi proiektu burujabeak eta bizi eredu askatzaileak garatu ahal izateko eskuratzen dugun gaitasun kolektiboa da. Egungo ziklo politikotik hasi eta Euskal Herri aske, sozialista eta feministara arte irauten duen boteretze prozesua, gazteon zapalkuntza oro gainditzeko ezinbestekoa.

Gazte Boterea sistema kapitalista zisheteropatriarkalaren boterearekin etengabeko talkan dago, baita horrek bultzatzen duen Heldu Boterearekin ere. Kapitalismo zisheteropatriarkalak botere zapaltzailea darabil: baliabide ekonomiko, politiko, judizial zein kulturalen bidez, kapital metaketa eta interes zisheteropatriarkalak boterean indartuz. Heldu Boterearekin gazteria sistema kapitalista zisheteropatriarkalean asimilatzeke mota guztietako dominazio sistemei egiten diegu erreferentzia: familia, hezkuntza sistema, lan-merkatuaren egituraketa, egungo estatu egiturak, etab. Heldu Botereak gazteok bizi eredu kapitalista eta zisheteropatriarkalean integratzea dakar. Hitz gutxitan, Heldu Boterea sistemaren erreprodukzioa bermatzeko botere-sistema da. Hori horrela, Gazte Boterea, botere zapaltzailearen aurka, gazteon bizitzon erabateko erabakimena lortuz eta bizi ereduak errotik eraldatuz, bizi eredu askatzaileak eraikitzea da. Beste hitz batzuetan, gazteon emantzipazioa sisteman integratzearekin lotzen duen ideia hautsi, eta gure bizitzako alor guztien gaineko erabakiak hartu eta gauzatzeko eskubi-dea irabaztea da.

Gazte Boterea boteretze prozesuan oinarritzen da. Prozesu horretan gazteok boterea lehiatu egiten dugu (botere zapaltzaileen aurrean arrakalak sortuz), boterea eraiki egiten dugu (praktika eratzzaileen bidez alternatibak sortuz) eta hortik boterea gureganatu egiten dugu. Gazte Botereak ahalduentze indibidual zein kolektiboa du oinarrian, baina ezinbestean kolektiboan eskuratzen da. Eta ahalduentzeak subjektu zapaldu eta desjabetu gisa boteretzerara garamatza.

Gazte Mugimenduen eta Euskal Gazteriaren antolakuntza eta borrokaren muinean dago Gazte Boterea; problematika zehatzen lanketan zein Gazte Frontearen artikulazio eta osaketa orokorrean. Gazte Boterea alternatibak eraikuntzaren bidez sortzen da, baina ez soilik modu horretara. Aldarrikapenen bitartez zapaltzaileekiko boterea lehiatuz eta borroka horrekiko kon-

tzientzia hartuz eta zabalduz ere gauzatzen dugu gazteon boteretze prozesua. Horiek guztiak gazte problematikaren gainditzeko bidean kokatzen ditugu.

5.2. GAZTE ESTRATEGIAREN EGUNGO ZIKLORAKO ERRONKA NAGUSIA: GAZTE FRONTEA

Orain arte landu dugun moduan, Gazte Estrategia momentu politiko orora egokitzea dagokigu. Egungo ziklo politikoan Gazte Frontearen artikulazioa eta osaketa kokatzen dugu erronka nagusi gisa. Gazte Frontearen inguruan jardun aurretik, ziklo politikoa definitzea garrantzitsua da: gaur egungo ziklo politikoa 78ko Erregimena eta frantses estatu jakobinoarekin hautsi arteko fase osoa da; hau da, estrategia independentista eraldatzailea garatu eta estatu espainiar zein frantsesarekin hautsi ondoren Euskal Herriar burujabetza formalean oinarritutako fase politikoa abiatu arteko tarteari. Horrek, ziklo politiko berri bati ateak irekiko lizkioke. Egungo ziklo politikoan, estrategia independentista eraldatzailearen garapenerako, Bloke Historikoarekin harremanean ulertzen dugu Gazte Frontea: gazteriak osatutako fronte propioa da, baina ziklo, testuinguru eta noranzko berean jardungo dute batak zein besteak, eraldaketa sozialerantz zein burujabetzarantz. Elkar harremanean eta elkar elikatuz ulertzen ditugu biak.

Horrela, egungo ziklo politikoan garatzen dugun jarduna eta dinamizazio politikoa Gazte Frontearen artikulazioaren norabidean egingo dugu. Gazte Mugimenduaren eta gazteriaren aktibazioari eta antolaketari lotutako artikulazioaren inguruan ari gara, ideia eta aldarrikapen batzuen baitan garatzen den artikulazioa. Baina hortik harago ere badao: Gazte Frontearen osaketa ez baita une zehatz batzuetako egitasmo edo borroketan bakarrik garatzen, Gazte Mugimenduan eta gazteriaren artean balio eraldatzailez osatutako zentzu komuna nagusitzea ere Gazte Frontearen parte da. Gure anbizioa gazte zapalduen gehiengoak Euskal Gazteriaren balio, pentsamendu eta aktibazioarekin bat egitea baita.

Zentzu komun horren eraikuntza gaur egun hegemonikoa den zentzu komunarekin lehian ulertzen dugu. Egungo sistemak ezartzen duen ikuspegi eta ideologia politiko, kultural, moral eta intelektualari alternatiba bezala aurkeztuko dena. Kontra hegemonikoa gaur egun. Gazte Frontearen batasun elementua ere izango da zentzu komun eraldatzailea. Erronka, berriz, Euskal Herriko gazteria zapaldu osoan hegemoniko bilakatzea dugu.

Finean, Euskal Gazteria batuko duen proiektu politiko edo ortzi-muga baten eraikuntzaz ari gara, gazteria osatzen dugun subjektu ezberdinen artean hausnartua, osatua eta adostua izango dena. Ez dena Ernairen proiektu politikoaren berdina izango, baina Ernaiko militanteok beste proiektu politiko batean sinesten duten kideekin batera eraikitzeko konpromisoa hartzen duguna. Aipaturiko proiektu politiko edo ortzi-muga hau ezin dugu Ernairenarekin parekatu, izatez, askoz ere lausoagoa eta dinamikoagoa izango baita.

Gazte Frontea dinamikoa da. Etengabe mugimenduan dagoen artikulazioari buruz ari gara. Euskal Herriaren zein gazteriaren testuingurua aldatzen doan heinean, Gazte Frontearen ezaugarritze zehatza ere moldatzen joango da. Dinamikoa da baita ere prozesu izaera duelako; eta prozesu izaera horretan indarrak eta boterea metatzen dituelako, bide gorabeheratsuan, baina botere kuota gero eta handiagoak irabazteko anbizioarekin.

Gazte Frontea konplexua da. Bere baitan bizitza duinen aldeko askotarikoa ideia, pentsamolde eta aldarriak daude; gazteon bizi baldintzak eta bizi ereduak eraldatzeko bokazioak eta zapalkuntza ezberdinen gaintitzea bilatzen duten indarrek osatuta. Konplexutasunak aberastasuna ere badakar eta hortik, potentzialitatea. Bestetik, kontrakotasunak izan ditzaketen posizioak ere barnean izatea ekar dezake, betiere oinarri komun batzuk egongo direla jakinda. Gazte Frontea ez baitugu borroka berdintsu eta erabat homogeneo gisa edo aldarrikapen bakar baten baitan ulertzen, balio eta zentzu komun berberaren baitan bizi eta jardutea baita Gazte Frontea lotu eta harilkatzen duena.

Konplexutasun horretatik tiraka, Gazte Frontearen baitan antolatu eta aktibatu daitezkeen gazteetako askok euren burua kontzienteki kokatuko dute norabide horretan. Beste batzuek, ziurrenik ez. Gazte Frontearen balio eta zentzu komunaren baitan kokatu eta norabide berean ekarpena egin, baina aldi berean Gazte Frontearen baitan ez hautematea gertatzen den fenomeno da. Era berean, gure xedea, ahalik eta gazte eta gazte espresio gehienek modu kontzientean Gazte Frontearen pertzepzioa izatea da; hori baita Gazte Frontearen indartze, hedapen eta gazte boterearen lorpenerako bermerik handienetakoa. Eta norabide horretan, Ernaik erabili izan duen kontzeptu eta erronka bat izatetik, gero eta gehiagok bere egiten duen erronka izatea bultzatuko dugu.

Gazte Frontearen ezaugarriekin jarraituta, ezinbestekoa da Gazte Mugimenduaren eta gazteria ez antolatuaeren papera ulertzea, biak ala biak ezinbestekoak baitira. Gazte Mugimenduak Gazte Frontearen oinarri an-

tolatua dira: eguneroko antolakuntza espazioak ireki, borroka zehatzak mahaigaineratu, ekarpen ideologikoa egin, batera-jotzeak mahaigaineratu... egiten dituzte. Gazte Mugimenduak Gazte Frontearen motorra izatea da gure anbizio eta helburu. Bestetik, iraunkorki antolatzen ez den gazteriak badu lekua Gazte Frontean. Are gehiago, gazte zapaldu ez antolatu oro Gazte Frontearen baitan artikulatzea da xedea eta, apurka-apurka, gero eta gazte gehiago erresignaziotik aktibazio puntualera salto egitea. Unean uneko aktibazioetatik, antolakuntza iraunkorrera igarotzea, alegia.

Gazte Frontearen ezaugarritzean jardun dugun moduan, zerk ardatzen duen ebatzea ezinbestekoa da; hau da, zeintzuk diren Gazte Frontea mamitzen duten edukiak. Aipatutako izaera dinamikoa eta konplexutasuna ulertuta, gogoratu behar dugu zerk ardatzen duen Gazte Frontea: gazteon bizitza duinak eskuratu ahal izateko eta zapalkuntza oro gainditzeko bokazioak, borroka horiek eraldaketa sozialaren eta burujabetzaren norabidean kokatzeak, eta baita balio eraldatzailez osatutako zentzu komuna lehiatzeak ere. Aipatutako zentzu komuna partekatzeak norabide politiko berdintsuan kokatzen ditu borroka ezberdinak. Bizi dugun une politikoan, gazteriaren egungo behar, nahi eta grina aztertuta, Gazte Frontearen erdigunean bizi baldintza duinak eta bizi eredu askatzaileen aldarrikapenak kokatzen ditugu. Garrantzitsua deritzogu horiek prekaritatearen lanketa hertsia batera ez mugatzea. Prekaritateak pisu nabarmena izan arren, Euskal Herriko gazteria zapalduaren bizitzako eremu guztiak eraldatzeko anbizioa eta aldarrikapenak kokatzen ditugu edukien muinean.

Bestelako aldarri eta nahi eraldatzaileak ere Gazte Frontearen baitan ulertzen ditugu eta, azaldu bezala, norabide eta zentzu komun berberak elkar lotzen dituzte guztiak. Hurrengo lerroetan sakonduko dugu horietan, baina hauek liriateke: batetik, hezkuntza eta Ikasle Mugimendua, eta naziogintzaren lan lerroak (hurrengo zikloan protagonismo berezia izango dutenak). Bigarrenik, borroka ildo gisa kokatzen ditugunak: feminismoa, gaztetxe eta gazte asanbladak, transmaribibollo borroka, lan, etxebizitza eta bizi baldintza duinen aldeko lerroak, euskalgintza, ekologismoa, gazte sortzaileen lan lerroa, etab. Jakina, aipatutako eremuek Gazte Fronteaz gaindiko lan eremuak ere badituzte, baina borroka horietan gazte problematikaren lanketak eta gazte ikuspegiz jarduteak harilkatzen ditu Gazte Frontearekin.

Orain arte Gazte Frontearen ezaugarritze eta edukien inguruan jardun dugu; hurrengo lerroetan horren artikulazio eta eraikuntzarako gakoak diren prozesu eta logikak garatuko ditugu: Gazte Boterearekin harremana, triange-

luaren logika (zeinak Gazte Frontearen dimentsioak argitzen dizkigun), prozesu izaera eta logika eratzaille eta aldarrikatzailearen aldeko apustua.

Gazte Frontea eta Gazte Boterea

Gazte Fronteak boterea du oinarrian. Artikulazio mailak gora egin ahala, orduan eta botere gehiago metatzea ekarriko du. Hitz gutxitan, gazteon bizi baldintzak duindu eta bizi ereduak eraldatzeko norabidean boterea eskuratu behar dugu. Horretarako, Gazte Boterearen eremuan garatu dugun metaketa logika darabilgu: Gazte Mugimenduen eta Euskal Gazteriaren antolakuntza eta borrokaren muinean dago Gazte Boterea; problematika zehatzen lanketan zein Gazte Frontearen artikulazio eta osaketa orokorrean. Gazte Boterea alternatiben eraikuntzaren bidez sortzen da, baina ez soilik modu horretara. Aldarrikapenen bitartez zapaltzaileekiko boterea lehiatuz eta borroka horrekiko kontzientzia hartuz eta zabalduz ere gauzatu dugun gazteon boteretze prozesua. Horiek guztiak gazte problematikaren gainditzerako bidean kokatzen ditugu. Hala ere, ezin dugu ahaztu Gazte Boterearen metaketa prozesuak egungo ziklo politikoa gainditzeko duela. Baina, aldi berean, logika hori guztiz baliagarria da egungo zikloko erronkan murgiltzeko, Gazte Frontearen artikulazio eta osaketarako.

Triangeluaren logika

Gazte Frontearen artikulazioaren dimentsioak eta horien artean dagoen harremana ulertzeko darabilgu triangeluaren logika. Hiru dimentsio ezberdin kokatzen ditugu bertan, hirurak elkarrekintzan: lokala, sektoriala eta orokorra.

Dimentsio lokalaren inguruan ari garenean, herri eta auzoetako eremuari buruz ari gara: Gazte Frontearen oinarria eta gure eragite eremu nagusia. Errealitate lokalaren arabera lanketak zein eremu sektoriale lotutakoak garatzen dira herri, auzo eta eskualdeetan. Gainera, lekuan leku garatzen diren borrokak aldarrikapen orokorragoen esperientzia konkretuak dira, azken hauek indartzen dituztelarik. Aldarrikapen orokorren ikuspegitik ere garrantzia berezia du maila lokalak.

Maila lokaleko azterketa egokiak egin, gazteriaren beharrak identifikatu, bizi baldintzak hobetzeko garaipen txikien aukera leihoak identifikatu, lekuan leku bizi ereduak eraldatzeko egin ditzakegun planteamendu edo alternatibak garatu... Hori guztia egin eta borroka esperientziak biderkatzea dagokigu. Gazte Mugimenduak indartu eta ez dauden lekuan sortzea dago-

kigu; eta horien bidez gazteria zapalduari eskaintza egokiak egin, aktibatu eta borrokarako erregai bihurtzea dagokigu. Prozesu horien guztien bidez Gazte Frontearen oinarria indartzea da gure xedea.

Hamaika izaera eta formako borrokak, beraz. Baina ez hori bakarrik. Gazte Frontearen logikaren oinarrian dago Gazte Mugimendu ezberdinak eta gazteria oro har bizitza duinen aldeko borroka bateratuan kokatzea. Horretarako funtzio estrategikoa dute dimentsio honetan garatzen ditugun konfluentzia logika eta espazioek. Horien izaera eta forma askotarikoa izango da (espazio zehatz bat, espazioen arteko koordinazio bat, dinamika bat, unean une aktibatzen den elkargune zehatz bat...), baina kasu guztietan hainbat gakoaren baitan bultzatuko ditugu espazio horiek: gazteon bizi baldintzak hobetu eta bizi ereduak eraldatzeko logika ardatz izatea, gazte batasunaren eta konfluentziaren logika, gazte mugimenduen saretzea, Gazte Mugimendua eta gazteriaren arteko harremanak indartzea, etab. Herriz herri eta auzorik auzo konfluentzia espazioen sorrera eta indartzea apustu estrategikoa da.

Dimentsio lokalaren baitan, ordea, eskala ezberdinak daude: hala nola, hiriburuak eta herri txikiak. Garrantzitsua da ezberdintasun horiek izendatzea, Gazte Frontearen artikulazioak eta bereziki konfluentzia espazioek forma oso ezberdina hartzen dutelako horietako bakoitzean. Hortaz, Gazte Frontearen hipotesiaren implementazioan aurrera urratsak eman behar ditugu, tokian toki eskalaren arabera Gazte Frontearen artikulaziorako estrategia eta plan propioak garatuz. Zentzu honetan, aipamen berezia egin nahiko genieke hiriburuei. Hiriburuetan Euskal Herriko biztanleriaren herena bizi da. Horrez gain, hiriburuetako jarduera politiko eta sozialek eragin politiko berezia eta oihartzun mediatiko handiagoa izaten dute maiz, eta horiei erantzutea garrantzi handikoa da. Horri gehitu behar zaio dinamika politiko nazionalaren lurreratze espazio nagusi direla. Gazte Mugimenduari dagokionez, dimentsio eta aberastasun handia lor daitezkeen eremuak dira. Gazte Frontearen maila lokaleko artikulazioan baldintza onenak dituzten eremuen inguruan ari gara; beraz, Gazte Frontearen osaketan eta ikusgarritasunean ekarpen estrategikoa egitea bultzatuko dugu. Honetarako hiriburuetako proposamen politikoa osatzera goaz.

Dimentsio sektorialaren inguruan ari garenean eremu zehatzei lotutako lanketei buruz ari gara: feminismoa, gaztetxe eta gazte asanbladak, transmaribollo borroka, gazte euskaltzaleen borroka, etab. Horietatik mota ugari-ko lanketak egin ditzakegu. Eta indar berezia dute edukiei lotutako ekarpen politikoa egiteko, baita alternatiben eraikuntzarako zein problematika zehatzen aurrean aldarrikapen mugimenduak martxan jartzeko ere.

Eremuz eremu egoera eta baldintza ezberdinak izan arren, guztietan bi gako dira aintzat hartzekoak: batetik, maila lokaleko lanketa zehatzen garapena; eta bestetik, eremu edo ildo horren baitan garatzen den saretze eta artikulazio orokorra. Sektore edo ildo baten artikulazioa subjektu edo mugimendu espezifikoen sorreraraino heldu daiteke, eta horrek eremuaren ahalduzko politikoa areagotu, eremuko kidegoari elikadura politikoa eskaini eta mugimendu horren eragin gaitasuna biderkatu dezake. Euskal Herriko Neska* Gazteen mugimendua da prozesu horren eredu argia. Gainera, eremuz eremu artikulazioan aurrera pausoak egin ahala, eremu horren bidez maila orokorreko artikulazioa indartzeko baldintzak hobekiago izango dira: mugimenduaren eragite gaitasunagatik, mugimenduaren inguruko gazteriari elikadura politikoa eskaintzeko gaitasunagatik, ekarpen politiko eta ideologikoagatik, etab. Mugimendu sektorial bakoitzaren baldintzak eta hedapen gaitasunak ezberdinak diren arren, aipatutako logika horiek ahalik eta gehien hedatzea eta indartzea da gure erronka.

Azkenik, Gazte Frontearen dimentsio orokorra daukagu, zeinak Gazte Mugimenduaren artikulazio sakonagoa eta garatuagoa duen oinarri. Batez ere nazio mailako artikulazio izan ohi da. Gazte Mugimenduen eta gazteriaren sinergia eta batera-jotzei buruz ari gara, behetik gorako prozesuen inguruan. Prozesu horietan edukiak askotarikoak izan daitezke, baina oro har gazte batasuna oinarri izanda gazte gisa gure egoera iraultzean dute ardatza: antolakuntza, borroka eta gazte boterearen eraikuntza dira oinarri. Eremu horrek ekarpen berezia egiten dio gazte subjektuaren kontzientzia hartzeari eta hortik, borrokarako subjektu gisa indartzen du. Nazioz gertatzen diren erreakzioak ere ekarpen berezia egiten du maila orokorrak. Nazio mailako jardunak Euskal Herria marraztu eta eraikitzeke gaitasuna du: Euskal Herria borrokarako eta askapenerako marko gisa kokatuz edota Euskal Herriko lurralde ezberdinetako gazteria eta gazte mugimenduak bat egin eta harremanak eraikiz.

Hiru dimentsioak elkar eraginean daude. Dimentsio orokor zein dimentsio sektorialaren osaketarako dimentsio lokala da oinarri nagusia: kapital humanoarekin, proiektuekin, esperientzia zehatzekin, espazioekin eta alternatibekin osatzen dituelako. Aldi berean, dimentsio sektorialak, edukiz eta antolaketarako espazioekin gorpuzten du orokorra. Horiek biak (dimentsio orokorra zein dimentsio sektoriala) lokalaren iturri ideologiko nagusia dira. Hirurak elkar lotuta ulertu behar ditugu, baina ez soilik bata bestek elikatu eta osatzen dituelako, baizik eta, eragile edo subjektu bakar batek hiru dimentsioetan jardun dezakeelako. Beraz, ez ditugu sailkatzeke posizio bezala ulertu behar. Hiru dimentsioen arteko sinbiosia da Gazte frontea osatzen duena.

Prozesu metatzailea

Prozesu metatzaile gisa ulertzen dugu Gazte Frontea. Ez da egun batetik besterako sorkuntza bat, ezta etengabe haziko den prozesua lineala ere. Goranzko eta beheranzko zikloak ditu, aurrerapausoak eta atzerapausoak ere bai. Hamaika faktorek baldintzatuko dute aipatutako zikloa: testuinguru politiko eta sozialaren faktoreek zein gazte borrokaren bidez sortutako baldintzek. Gure erronka aurreratze zikloetan ahalik eta indar gehien, botere gehien, metatzea da. Botere hori sendotu eta goranzko zikloetan oinarri egokiak jarritz, atzeraldi ahalik eta txikiak izatea lortu eta ahal bezain las-ter goranzko zikloan berriz kokatzea bilatu behar dugu.

Goranzko zikloak indartzeko, eta azkenengo urteetako olatu sozialen testuingurua eta pandemiak geroztik nazioartean areagotu diren gizarte-lehertzeak aintzat hartuta, salto kualitatiboak ematea bilatu eta horietatik gazteriaren olatu propio gisa indartzeko apustua egiten dugu.

Logika eratzaillearekin proiektu alternatiboak eta logika aldarrikatzailearekin aldarrikapen mugimenduak

Bi borroka-logika nagusi baliatu behar ditugu Gazte Frontearen eraikuntzan: logika eratzaillea eta aldarrikatzailea. Eta gazte borroken espresio horien indartzeak Euskal Gazteria subjektu politiko gisa eratu eta indartzea dakar, borroka eta proiektu berriak martxan jartzeko gaitasuna biderkatuz. Era berean, aipatutako bi logikek bi motatako borroka politikoekin harreman zuzena dute: logika eratzailleak proiektu alternatiboen eraikuntzara garamatza eta aldarrikatzaileak, berriz, aldarrikapen mugimenduak martxan jartzera. Era berean, bi logika hauek ez ditugu bereizita ulertu behar; hau da, gazte mugimenduko eragile berak gauzatu ditzake biak. Esaterako, okupazioari lotutako proiektu batek udalari aldarrikapenak egin dakizkioke, bataren indarretik bestea erdietsiz.

Logika eratzaillea auto-eraketa bidez Gazte Boterea sortzean datza, Gazte Mugimendutik sortu eta garatzen ditugun alternatibien eraikuntzaren bitartez. Alternatiba horiek gazte problematikari aurre egin, bizi baldintzak hobetu eta bizi eredu askatzaileak sortzeko bokazioa dute; eta ekarpen ikaragarria egiten dute azken horretan. Komunitatea sortu eta saretzen dute, eta gazteok inoren zain egon gabe gure buruaren jabe izatea sustatzen dute. Jendarte berri bat irudikatu eta proiektatzen dute, eredu berrietan sakontzeko balio dutelako. Hainbat Eremutatik sortu eta forma anitzeko alternatibak sustatzea dagokigu, boterea abstraktiotik konkreziara eramanez.

Gaztetxeetan, Covid-19aren itxialdiaren aurrean zaintza sareetan, sortzaile eta kulturgileen hamaika proiektutan, proiektu komunikatiboetan, hizkuntza arnas-guneak sortzean, espazio feministak eratzean, etxebizitza okupatuen proiektuetan, gazteon lan baldintza duinen defentsarako egitasmoetan... hamaika eremutan egin dugu lan norabide horretan. Lekuan lekuko errealitate eta baldintzak ondo aztertu eta alternatibak eratzeko lana indartuko dugu hurrengo urteetan.

Logika aldarrikatzailea inposatutako markoaren barruan bizi baldintzak hobetzeko edota inposatutako markoa gainditzeko eredu berriak exijitzean datza; horretarako, mobilizazioan eta aldarrikapenean oinarrituz. Esan bezala, inposatutako markoaren barruan, berehalako neurri edo aldaketak exijitzea izango da batzuetan: hezkuntza erreforma bat geldiaraztea, gazteon prekaritate egoerarekin amaitzeko eta bizi baldintzak hobetzeko neurriak exijitzea, gaixotasun psikosozialen tratamendurako baliabide publiko duinak eskatzea, garraio publiko duin bat eskatzeko kanpaina martxan jarzea, etab. Besteetan, ordea, egungo eredu politiko edo ekonomikoa bere osotasunean inpugnatzeko eta eredu berri bat aldarrikatzeko.

Logika aldarrikatzaileak herri aktibaziorako potentzialitate ikaragarria du eta, horren bidez, borroka ideologikoa egiteko, jendartea politizatu eta agenda politikoa markatzeko. Gainera, garaipen txikiak eskuratzeak balio berezia du, borrokak merezi duela ikusarazteko funtzioa ere betetzen duelako, borrokarako grina zabalduz. Gure eginkizun nagusia gazteriaren bizi baldintzak hobetzeko planteamendu egokiak egin eta beharrezkoak diren dinamika, kanpaina edo mobilizazio zehatzak mahaigaineratzea da: azterketa egokia egin, aldarri eta planteamendu zehatz eta egokiak mahaigaineratu, gazteria aktibatu eta garaipenak eskuratu.

Gazte Mugimendua da logika eta borroka horien subjektu nagusia. Bi logika hauek ezinbestekoak dira Gazte Frontearen eraikuntzan eta osaketan, eta oro har gazteon bizi baldintzak hobetu eta bizi ereduak eraldatzeko borrokan. Garrantzitsua da biak ala biak uztartu daitezkeela ulertzea eta bi logiken garapena herriz herri hedatzea. Hori horrela izanda, bi logika horietako lanketak herriz herri garatzeko anbizioarekin ekingo diogu hurrengo ziklo politikoari, gazte borrokaren adierazpen anitzak Euskal Herriko auzo eta herrietan hedatuz.

Azkenik, aldarrikapen mugimenduek, proiektu alternatiboen eraikuntzak eta gazte borroka mota ugariak, gazteria borrokarako subjektu gisa eratzten dute. Hau da, gero eta gazte gehiagok gazte zapaldu izatearen kontzientzia

hartzea eta hori iraultzeko aktibazioa dakartzate. Euskal Gazteriaren boterete prozesu hori, borrokarako eta kolektibo gisa askatzeko subjektu moduan eratzea, funtsezkoa da, gaitasunak biderkatzen baititu. Prozesu horri pisu berezia eman nahi diogu. Gazte subjektua eratzea funtsezkoa delako Gazte Frontearen osaketa gauzatu ahal izateko. Aldarrikapen mugimenduak zein alternatibak gazte subjektuaren kontzientzia hartzean ekarpena egiten dutela ulertu behar dugu. Are gehiago, Gazte Mugimenduan bultzatu ditzakegun egitasmo batzuk zuzen-zuzenean helburu moduan izan dezakete subjektuaren eratzea; besteak beste, batera-jotzeek.

Gazte Fronterantz, Ernairen funtzioak

Bi funtzio nagusiren baitan ulertzen dugu Gazte Frontearen baitako gure jarduna: batetik, Gazte Frontearen artikulazioari buru-belarri ekitea, horren dinamizazio politikoa gure eginez; bestetik, pedagogia independentista egiteko funtzioa. Bi horiek elkar lotuta ulertzen ditugu, izan biak ala biak etengabe egingo ditugulako, zein batak bestea elikatuko duelako.

Dinamizazio politikoaren inguruan ez dugu atal honetan sakonduko, Gazte Frontearen bloke guztian baitago gure dinamizazio politikoa ardatzen duen norabidea. Militantzia ereduaren atalean sakonduko dugu gure militantzia garatzeko forma eta izaeraren inguruan.

Pedagogia independentista gure praktika ardatzen duen funtzio nagusia da. Pedagogia independentistak askotariko formak hartzen dituen arren, ortzi-muga nagusi bat du: gazteria posizio eta aktibazio independentistara igarotzea. Izen propioz zein espazio zabaletan eragitearen bidez egingo dugu pedagogia independentista, gazteriaren gehiengoa aktibazio independentistara lotzea ipar izanda. Hau da, Gazte Frontearen eduki eta balioei garapena eman ahal izateko independentzia alternatiba gisa mahai-gaineratuko dugu, aktibazio politikoa areagotzea eta gazteriaren artean identitate independentista eraldatzailea hedatzea helburu.

Espazio zabalak mota guztietako Gazte Mugimendu, Herri Mugimendu eta bestelako espresio antolatuak dira. Gaurdanik espazio horietan pedagogia independentista egiteak dekantazio independentista gauzatu ahal izateko eragite politikoan du funtsa. Gaur egungo testuinguru zehatzean, pedagogia independentista hori gehienetan ez da esplizitua izango eta hurrengo ariketen bidez sustatuko dugu: marko geografiko zein politikoa Euskal Herriaren baitan kokatuz, estatuaren injerentzien edo bestelako gertakarien aurrean espazio horietatik erantzunak gauzatuz, burujabetzaren paradig-

ma indartzuz, hemen erabakitzeko logika sustatuz, Euskal Herrirako proposamen egituratzaileak eginez, harreman sareak Euskal Herriaren baitan eraikiz, naziozintza eginez, euskaraz eta euskaratik jardunez, etab.

Bi eremutan egingo dugu azpimarra. Lehenik, burujabetzaren lanketan azpimarra berezia egitea dagokigu, eremu ugaritan burujabetzaren lanketa egiteak; hau da, burujabetzak bizitza duinak izateko eta eraldaketa sozialerako ezinbestekoak direla erakusteak, ekarpen berezia egiten dio prozesu independentista eraldatzaileari. Ariketa horren bidez independentzia edukiz beteko dugulako, eta burujabetzak eskuratzeak burujabetza formalaren edo autodeterminazio eskubidearen nahia areagotuko duelako. Burujabetza eta eraldaketa sozialean sakontzeko independentzia aukera bakarra bihurtuko den testuingurua erdietsi arte.

Bigarrena eremua naziozintzarena da. Gazte mugimenduei dagokionez Euskal Herriko markoa naturalizat jotzen da ia kasu guztietan. Urte luzeetako borroka eta lanaren fruitua da hori. Baina ezin gaitezke horrekin konformatu. Gure anbizioa gazte mugimenduek politikoki Euskal Herriaren irudikapenarekin ere bat egitea izan behar da: gazte mugimenduen proiektu eta lanketa zehatzen garapena Euskal Herriarekin lotuta egotea, zein Euskal Herria nazio zapaldu gisa kokatzea eta aitortzea, alegia. Jakina, unean une eta eremuan eremu, pisu bat edo beste izango du horri begirako lanketa sustatzeak.

Espazio zabaletan eta gazte mugimenduetan egin beharreko pedagogia independentistaren nondik norako garrantzitsuenak landu ditugu. Lan horrek izango du hurrengo urteetan protagonismo nagusia. Baina horiez gain, gazte mugimenduen eta gazteriaren espazio zabaletatik pedagogia independentista esplizitua edo aldarri independentista egiteko apustu politikoa ere gure egiten dugu. Horretarako, EH! Gazteok independentzia marka gazteriaren espresio zabal bihurtzeko erronka bagenuen ere, markaren bidea amaitutzat eman eta tresna berriak bilatuko ditugu funtzio hori betetzeko.

Tresna konkretu hori(ek) gazteria eta bereziki belaunaldi berriak independentziaren borrokara batzeko helburua izango du(te). Independentzia aldarrikatu eta bizitzeko hamaika modu bildu nahi ditugu, aldarri independentista esplizitua indartu eta gazteriaren artean identitate independentista hedatzeko. Gainera, egungo testuinguruan politizazio iturriak ugariak izan arren, gazte asko eta askoren politizazio ardatz nagusiak nazio ardatza izaten jarraitzen du. Hori horrela, abertzaletasuna aktibazio independentista bihurtzea dugu apustu.

Horretara heldu ahal izateko, apustu argiak identifikatuko ditugu, maila lokal zein nazionalen. Apustu horietan aktibatuko diren gazteekin hausnarketa politikoa ere landuko dugu.

Ernairen dinamika propiotik ere pedagogia independentista egingo dugu. Egunerokoan jendartean dauden gertakari zehatzak transbertsalagoak diren problematikekin lotuko ditugu, burujabetza parametroetan kokatuz eta independentzia edukiz betez. Gazteriaren problematikak burujabetzaren eta estatu propio baten beharrezkin lotzea dagokigu; bizi baldintzen hobetzea eta bizi eredu askatzaileak eskuratzea etengabe harilkatuz Gazte Boterearen eraikuntzarekin zein burujabetza eta errotiko aldaketa sozialarekin.

Burujabetza eta eraldaketa sozialaren lanketarekin batera, estatuarekin haustura eta aldarrikapen independentista esplizitua indartuko dugu kongresu honetatik aurrera. Pedagogia independentista esplizitu hori burujabetzaren lanketarekin batera egingo dugu, ekarpen kualitatiboa eginez ziklo politikoaren helburu nagusiari.

Ernairen dinamika politiko propioa

Ernaik egingo duen pedagogia independentistaren muina kokatuta, dinamika propioaren nondik norakoetan sakonduko dugu. Dinamika propioaren maila nazionalen, eremu sektorialean eta maila lokalean garatuko dugu. Euskal Herriko gazteria zapalduarengana heltzeko ezinbestekoa izango da hiru eremuetako lanketa: maila nazionalak norabidea markatuko digu, eremu sektorialek lanketa zehatzen gaineko sakontasuna eskaini eta herri zein auzoetako dinamika propioek gazteriarengana gerturatuko gaituzte. Hurrengo paragrafoetan dinamika propioaren lerro zentrala garatuko dugu, nazio mailan zein maila lokalean pisu nagusia izango duena. Borroka eremuen atalean, bestalde, ikuspegi sektorialetik garatzekoa azalduko dugu.

Ernaik garatuko duen dinamika propioaren lerro nagusia hurrengo gakoek ardaztuko dute:

- Ernairen dinamika propiotik garatzen dugun hori, gazte mugimenduekin edo lanketa zabalagoekin lotuta ulertuko dugu. Zehatzago: Ernairen dinamika politiko propioak, eta horren bidez egingo dugun pedagogia independentistak, gazte mugimenduetan, herri mugimenduetan eta, oro har, jendartean eragin, ekarpen kualitatiboa egin eta baldintza berriak sortzeko funtzioa du.

- Bizi baldintza eta bizi erduei lotutako lerro nagusi bat izango du Ernaik. Bizi baldintzen alorrean gazteok bizi dugun etengabeko prekarizazioa eta bizi eredu kapitalista zisheteropatriarkala problematizatzea dagoki-gu. Epe laburrean, bizi baldintzen berehalako duintzea premiazkoa dela aldarrikatuko dugu. Gazteriaren egoera salatzearekin batera, horren aurrean gure bizi baldintzak hobetzea xede dituen aldarrikapen eta proposamen taktikoak garatuko ditugu.
- Salaketa eta proposamen taktiko horiek arnas luzeko begiradarekin lotuko ditugu: gazteria Gazte Boterearen eraikuntzan lerratzea hauspotuz, burujabetza eta erroko jendarte aldaketa ezinbesteko aldarrikapen gisa kokatuz eta independentziaren beharra azaleratuz. Horren baitan kokatzen dugu independentziaren aldarrikapen esplizitua indartzea. Horrela, gaur egungo erakunde eta sistemaren mugak ikusaraziko ditugu hauen gaintzea aldarrikatuz. Aldi berean, Gazte Boterea bera da kontzeptu gisa mahai gainean jarri beharreko apustua. Burujabetza ere hitz egin behar den arren, gaur egun burujabetza terminoak burujabetza formalean pentsatzera soilik garamatza. Horregatik, Gazte Boterearen aldeko posizionamendua hedatzeko apustua egin beharko genuke, eta gutxinaka hau burujabetzarekin lotzekoa, etorkizunean burujabetza terminoak burujabetza formalari soilik erreferentzia egin ez diezaion. Azken finean, gure estrategiaren oinarria Gazte Boterearen eraikuntza baldin bada, Ernaik bete beharreko funtzioak dira eraikuntza hori aldarrikatzea, eraikuntzaren nolakotasunean sakontzea, baliabide teoriko eta praktikoak sortzea eta Gazte Boterearen eraikuntza Herri Boterearekin, Ikasle Boterearekin... eta beste hainbat esparru eta subjektuk gara ditzaketen botereekin lotzea.
- Euskal Herriko gazteria zapaldua askotarikoa da, eta bizi baldintza eta bizi ereduak hamaika zapalkuntzek zeharkatzen dituzte. Horri erantzuteko dinamika propioaren izaera ikuspegi interseksionaletik indartuko dugu. Desoreka berezia egingo dugu ikuspegi feminista, ekologista eta transmaribolloa indartzeko.
- Borroka ideologikoa, ekimentza eta masa borroka uztartuko ditugu. Dinamika propioaren momentu esanguratsuena masa mobilizazioena izango da. Horiei begira, gazteria zabala interpelatu eta erakartzeko gaitasuna areagotuko dugu. Koiunturaren arabera zehaztuko ditugu aldarri edo edukiak, unean une estrategia independentista eraldatzailea eta Gazte Estrategia hauspotzeko egokienak diren planteamenduak eginez. Eta, betiere, sakoneko begirada proiektu politikoaren baitatik ardaztuz.

• 5.3. GAZTE ESTRATEGIAREN LAN LERRO NAGUSIAK

Egungo ziklo politikoan Gazte Estrategiaren erronka nagusia den Gazte Fronteaz jardun dugu orain arte, hurrengo urteetan eta zikloan gure norabidea markatuko duen erronka orokorra delako. Hemendik aurrera, Gazte Estrategiaren gainontzeko lan-lerro nagusietan sakonduko dugu. Horretarako, bi gako aintzat hartuko ditugu (orain arte ere landu ditugunak):

- Batetik, aipatutako eremuek Gazte Fronteaz gaindiko lan eremuak dituzte, baina borroka horietan gazte problematikaren lanketak eta gazte ikuspegi jarduteak harilkatzen ditu Gazte Frontearekin. Hori dugu lanerako ikuspegi nagusia.
- Bigarrenik, Gazte Estrategia etorkizuneko Euskal Herri aske, sozialista eta feminista eraiki arteko lerroa den heinean, eta gazte lanketa gainditzen duten lerroak ere badirela aintzat hartuta, eremu horiek zapalkuntzarik gabeko Euskal Herriaren Nazio Eraikuntzan duten funtzio estrategikoa ulertu behar dugu.

2018an Hezkuntzan ahots propioz jarduteko hautua egin genuen. Ordura arte Ikasle Abertzaleak ikasle antolakundearekin aliantza estrategikoa genuen, antolakunde independentista, sozialista eta feminista baitzen. IAre norabide aldaketa ideologiko eta estrategikoaren aurrean egin genuen ekinbide propioz jarduteko hautua, ikasleen problematikei eta egungo ziklo politikoari erantzungo dion ikasle mugimendua artikulatzeko.

Egoera zailean ekin izan behar genion hezkuntzako eremuari, antolaketa maila baxuarekin. Hori horrela izanda ere, azken urteetan hainbat lorpen egin ditugu; eta perspektibaz begiratuta, lorpen horiek balioan jarri eta egindako hautua berresten dugu: Ikama ikasle antolakundearen sorrera eta ibilbidearen hasiera hauspotu izana eta unibertsitatean Ernai antolatzea eta hezkuntza eragile gisa gure bidea abiatu izana. Horrenbestez, gaur egun unibertsitateetan antolatzen garen eta hezkuntzako eremu guztietan gure posizioa eta ekinbidea indartzeko anbizioa dugun antolakundea gara, eremu bakoitzean egoera ezberdinean gaudela aintzat hartuta.

Eremuetan murgildu aurretik, azken aipamen esanguratsu bat egitea dago-kigu: hurrengo zikloko apustu nagusietako gisa kokatzen dugu Ikasle Mugimendua Gazte Frontearen baitan artikulatzea, ikasle problematika gazte problematikaren baitan ulertuta. Ikasle Mugimendua artikulatzen jarraitu eta indartu behar dugu (epe motzean egin behar nagusia da). Horrekin ba-

tera, baina, hezkuntza problematikaren lanketa eta Ikasle Mugimenduaren borroka Gazte Frontearen eremuetako bat izango da.

Esan bezala, eta hezkuntza hiru eremutan banatzen den lerro gisa ulertuta, datorren urteetan lehentasunez hezkuntza estrategia integral bat diseinatu eta martxan jartzeko konpromisoa hartzen dugu. Unibertsitate eremuan Ernai da Ikasle Mugimendua artikulatzeko eragile nagusia, ertainen eremuan Ikamari esleitzen diogu funtzio hori eta Lanbide Heziketan zailtasunak izan ditugu azken urteetan aurrera pausuak emateko eta gure lehentasuna izan ez dela onartu beharra dugu. Hau horrela izanik eta baldintzak hobetu ditugula baloratuta, hezkuntza estrategia oso bat garatzeko momentua da, honek lerro honetan ditugun gainontzeko korapiloak askatuko dituelarik.

Unibertsitatea

Unibertsitatean hezkuntza eragile gisa antolatzeko erabakia berretsi egiten dugu, eremuan zegoen hutsunea betetzen hasteko biderik eraginkorrena izan delako: gure unibertsitateetako proiektu politikoa garatzeko, egungo ziklo politikoko hezkuntzarako praktika politikoa martxan jartzeko, Ernairen dinamika politiko propioa unibertsitateetara eramateko eta Ezker Abertzalearen zein Ezker Independentismoaren proiektu eta lanketak unibertsitateetan hauspotzeko.

Unibertsitateei dagokionez, bi elementu nagusi landuko ditugu: batetik, Unibertsitate Publiko, Nazional, Burujabe eta Komunitarioa, hots, gure unibertsitateetarako proiektua; eta bigarrenik, hurrengo urteetako unibertsitateetako Ikasle Estrategiaren norabidea. Lehenengoarekin hasiko gara, eta ia azkez-tu genuen Unibertsitateetarako Proposamen Politikoan sakonago jorratzen dugun arren, hurrengoak lirateke unibertsitate ereduaren gako nagusiak:

Hezkuntzaren helburua bitzta osoan zehar, esparru guztietan, norbanakoen, komunitateen eta naturaren bizi-iraupena, garapena, ongizatea eta etengabeko hobekuntza da. Hori erdiesteko ezinbestekoak diren konpetentziak ahalik eta gehien garatu eta horretarako bitartekoak eskainiz, bitzta erdigunean jarrita. Norabide horretan, eta hezkuntza eredu horrek zapalkuntzarik gabeko Euskal Herria eraikitzea bidean ekarpena egingo duela aintzat hartuta, Unibertsitate Publiko, Nazional, Burujabe eta Komunitarioa aldarrikatzen dugu.

- **Publikoa:** Hezkuntzarako eskubidea pertsona ororen eskubidea izanik, eskubide hori bermatzea erantzukizun sozial eta kolektiboa da. Euskal

Herriko unibertsitatea erabat doakoa, ez segregatzailea, inklusiboa, euskalduna eta laikoa izango da. Privatizazio prozesu orori ateak itxiko dizkion eredu aldarrikatzen dugu.

- **Burujabea:** Hezkuntzaz hausnartu, eztabaidatu eta erabakiak gauzatze-ko ahalmen propioa izateari deritzogu hezkuntza burujabetza. Horrez gain, Euskal Herriko hezkuntzaz erabakitzeko eskubidea herritar guztio-na dela deritzogu eta ikuspegi horretatik kudeatuko da Hezkuntza gure Herrian. Curriculuma %100 hemen erabakia izango da.
- **Nazionala:** Euskal Herria da gure erreferentziazko marko politikoa, borrokarako gure subjektu politikoa. Beraz, inposatzen zaigun lurralde zatike-taren gainetik, Euskal Herri osorako unibertsitate bat eta bakarra alda-rrikatzen dugu, nazio ikuspegi osoz jardungo duena, herrialde guztietan trataera eta inplikazio berarekin.
- **Komunitarioa:** Egun gailentzen diren joera indibidualisten gainetik, joka-bide hauekin bukatzeko kolektiboa indartu eta elkartasuna eta auzolana landuko ditu. Unibertsitatea herritik eta herriarentzat izango da: komu-nitateari ekarpena eginez, jakintza elkarbanatuz eta komunitatearen es-kura jarritz.

Norabidea, unibertsitateetako Ikasle Estrategia

Unibertsitateetarako proposamen politikoak iparra markatzeaz gain, nora-bidea eta eguneroko borroka eta praktika politikoa ezaugarritzea ahalbi-detzen digu. Balio handiko lana egin dugu proposamen politikoa diseina-tzen eta unibertsitate eragile gisa bidea abiatzen. Baldintza horiek aintzat hartuta, hurrengo urteetan Antolakundetik arreta eta indar berezia jarriko dugu unibertsitate eremua indartzen jarraitzeko. Irmoki sinesten baitugu eremu horretan borrokaren bidez ikasle problematikari aterabidea eman, unibertsitate eredu berri bat mahaigaineratu eta Gazte Frontea indartuko dela.

Norabide horretan, hurrengo urteetan unibertsitateetan gure zeregin edo funtzio nagusiak ebatzi ditugu: Ikasle Mugimendu berria sortu eta indartzea eta Ernairen dinamika politiko propioari unibertsitateetan lekua egitea.

Ikasle Mugimenduari dagokionez, hiru lerro nagusitan jarriko dugu indarra. Lehenengoa, ikasle problematikak salatu, borrokatu eta ikas baldintza dui-nak eskuratzeko lanketak Ikasle Mugimendutik sustatzea. Azken urteetan

ikasle neska* talde, euskara talde eta ikasle talde batzuk lekua hartu dute unibertsitateetan. Esperientzia horietan zein ikasle problematikei lotutako bestelako lanketetan jarriko dugu arreta. Epe labur-ertainean gure zeregin nagusia izango da.

Bigarren zeregina, Ikasle Mugimendua Herri Mugimenduarekin eta, batez ere, Gazte Mugimenduarekin harremantzea eta zubiak eraikitzea izango da, Gazte Frontea harilkatzera begira. Ikasle problematika bestelako gazte problematika batzuekin batera lantzea bilatuko dugu.

Hirugarrenik, ikasle mugimenduen lanketak eta, oro har, ikasle problematikaren gainditzea burujabetzaren behararekin eta burujabetza eskuratzeko nahiarekin lotuko ditugu. Norabide horri ekingo diogu ikasle mugimenduetan dagozkion lanketak sustatuz (aldez aurretik pedagogia independentistaren atalean landutako funtzioak eremu honetan ere garatuz), baita Ernairen dinamika propiotik ere (unibertsitateetarako proposamen politikoa alternatiba erreal bilakatuz).

Azken horretatik tiraka, bigarren funtzio nagusia dugu: Ernairen dinamika propioa indartu eta hezkuntza eragile gisa erreferentzia irabaztea. Horretarako, azken urteetako bideari jarraituz, Unibertsitate Publiko, Nazional, Burujabe eta Komunitarioaren aldeko lanketa egingo dugu. Era berean, lanketa hori unean uneko ikasle problematikekin lotuz egingo dugu: izan hezkuntza edo unibertsitate erreformak edo ikas baldintzei lotutako lanketak. Ikasle Mugimenduari ekarpena egiteko funtzioa ere badugu: problematika ezberdinen aurrean ekarpen kualitatiboa eginez, problematikak piztuz, etab.

Azkenik, Ikasle Estrategia gainditzeko duen zeregin bat ere gure egiten dugu: Ernairen eta Ezker Abertzalearen proiektu politikoaren, prozesu independentistarekin loturiko eta ezkerreko independentismoaren lanketak hauspotzea. Unibertsitateak milaka eta milaka gazteren eguneroko eremua dira, gazte espazio handienetakoak; horregatik gauzatu behar ditugu unibertsitateetan aipatutako lanketak.

Hezkuntza ertaina

2020. urtean sortu zen Ikama ikasle antolakundea, Kargatzen eztabaida prozesuaren fruitu. Ikama apurka-apurka bidea zabaltzen joan da, ikasle problematika landuz eta ertainetako ikasleen artean publikoa, burujabea eta herritarra izango den euskal hezkuntza sistemaren aldarria zabalduz.

Behin ikasle antolakunde berria egonkortze bidean eta Ernairen III. Kongresuaren testuinguruan kokatuta, Ikamarekin harreman ereduak findu dugu.

Harreman ereduaren inguruko hausnarketan harreman eta aliantza estrategikoa adostu dugu. Ernaik gazte mailako estrategia integrala garatzen du eta Ikama hezkuntzari lotutako antolakundeak da. Proiektu politiko zehazki berdina ez izan arren, aliantza estrategiko horren balioa eta garrantzia erabatekoa da, bi proiektuen balioak eta norabidea komunak baitira. Unibertsitateetarako gure proposamen politikoa eta Ikamaren proiektuak hezkuntza sistema berberantz garamatza. Gauzak horrela, ertainetako jardun politiko eta ideologizatzailea Ikamaren gain kokatzen dugu. Guretzat ezinbestekoa da Ikamak ikasleria antolatzeko eta borrokan lerratzeke egiten duen lana.

Bi antolakundeok alde biko harremana izango dugu, herrietatik nazio mailara arte. Ikamarekin harremana egiteko, erronka komunitan murgiltzeko eta Ikama ez dagoen ikastetxeetan taldea sortzea ahalbidetzeko Ernaik hezkuntza arduradunaren figura izango dugu herri eta auzoetan. Hauek gainera, beharren eta momentuaren arabera hezkuntza sareetan elkartuko gara. Bestetik, hezkuntzaz hausnartzeko mahai partekatu bat sortzeko apustua egiten dugu, hezkuntzaz ikuspegi integral batekin pentsatu eta ekiteko.

Ertainekin amaitzeko, Ernairen dinamika propioak ikastetxeetan hartuko du lur, baina hori uneoro zaindu beharko dugu. Oro har, modu puntualean eta intentsitatea zainduz izango da, Ikama baita ikastetxeetako jardun orokorra garatzen duen antolakundeak. Aurrez landu dugun gazteon bizi baldintza eta bizi ereduaren lanketari dagokion eremua, proiektu politikoaren lanketa eta gatazkaren ondorioen konponbidearen eremuak izango dira ikastetxeetara eramango ditugunak. Uneren batean bi antolakundeek hala erabakita eta bien mesedetarako izanik irizpide hauek moldatuko ahalko ditugu.

Lanbide Heziketa

Lanbide Heziketa da hezkuntzaren hirugarren eremua. Azken urteetan Antolakundearen dinamika politikoaren bidez edo LAB sindikatuarekin elkarlanean egitasmo puntualak garatu ditugu Lanbide Heziketako zentroetan. Hala ere, lanketa zehatzez gain, ez dugu jardun iraunkor eta emankorrik lortu eta eremuaren berezitasunera egokitutako bide-orririk gabe gaude. Gaur gaurkoz, planteamendua garaturik ez dagoen arren, Ernairen presentzia bermatu eta, unibertsitateetan egin bezala, estrategia propio bat garatzeko apustua egingo dugu.

5.3.2. NAZIOGINTZA

Euskal Herrian askapen nazionalak izaera poliedrikoa hartu eta zapalkuntza oro gainditzeko eszenatokia irekitzen digu. Nazio zapalkuntzaren kontzientzia eta askapen nazionalaren borroka, beraz, gure estrategiaren muinean daude.

Nazio zapalkuntzak dirauen arren, eta gutxi balitz, estatuko joera zentralistak eta eskuin muturrekoek zapalkuntza are gehiago indartzeko testuingurua sortzen duten arren, azkenengo urteetan haren ikusgarritasunak eta lanketa politikoak behera egin du. Ziklo politikoaren aldaketak eta bestelako borroken agerpenak (politizazio iturriak aberastu dituztenak), potentzialitate ikaragarria eskaini digu gaur egungo belaunaldiari; baina era berean, nazio ardatza lausotu duela esan dezakegu. Neoliberalismoak sustatzen dituen identitate likidoak edo munduko hiritar izaera, gainera, nazio proiektu bat garatu nahi dugunon kontrako joerak dira. Espainiako eta Frantziako estatuekin eta horien erregimen atzerakoiekin bat egiten duen gazteriak ez du gora egin. Baina proiektu horiekin bat ez egiteak ez du esan nahi Euskal Herriari lotutako proiektu batekin, abertzaletasunarekin, bat egiten dutenik. Fenomeno horri guztiari deritzogu nazio pultsuaren ahultzea.

Belaunaldi perspektibatik erreparatzen badiogu, nazio gatatzaren auzia konfrontazio maila baxuagoen bizi izan dugun belaunaldia gara. Belaunaldi berrien politizatzeke eredu berriei erreparatuz gero, bazterrean egon diren eremu ezberdinek pisua hartu dutela ikusi dugu: feminismoak, transmaribibollo borrokak, ekologismoak, klase kontzientziak, borroka antiarrazistak... Urte luzez belaunaldi berrien politizazio iturria nazio kontzientzia izan ostean, askotariko politizazio iturrien testuinguruan gaude. Honekin ez dugu esan nahi nazio kontzientziak politizatzen ez duenik; ardatz politizatzaile nagusietakoa izaten jarraitzen du, baina beste motibazio batzuek lehen ez zuten pisua hartu dute.

Testuinguru horrek korapilo berriak sortzen dituen moduan, potentzialitate handiko aukera berriak sortzen dituelakoan gaude. Artikulazioan asmatuz gero, are gaitasun handiagoa duen proiektua eta estrategia gauzatu dezakegu, zalantzarik gabe. Norabide horretan, nazio kontzientzia, euskalduntasuna eta abertzaletasuna Euskal Gazteriaren bestelako grina askatzaileekin nola landu pentsatzea dagokigu. Euskal Herrian proiektu nazional bat garatzeko nahia grina horien guztien sen askatzailearekin elkarlotzea da belaunaldi gisa dugun erronka esanguratsuenetakoa. Baita emankorrenetakoa ere.

Hutsetik abiatzen ez garen arren, naziogintzari lotutako lan lerro oso bat aktibatu eta gure praktika politikoaren erdigunean kokatzeko erronka dugu. Horrenbestez, Gazte Frontearen artikulazioa erronka nagusi gisa kokatu eta hezkuntzarekin batera, hurrengo urteetan gure apustu nagusizat kokatzen dugu. Naziogintzak nazioaren aldarria egitearekin batera, Nazio Eraikuntza indartu eta ekosistema oso bat sortu behar du, Euskal Gazteria osoa bustiz. Norabide horretan, hiru esparrutan garatuko dugu naziogintza indartzeko gure borroka: nazio auziaren lanketa eta eragin propioa, naziogintza indartzeko borroka eremu zehatzetan egingo ditugun apustuak eta nazio auziaren eragina Gazte Mugimenduan eta gazterian.

Naziogintzak Gazte Estrategia osoan duen eragina ere azpimarratu nahi dugu. Hezkuntzari dagokionez, curriculumari eta eduki didaktikoei begira ekarpen kualitatiboa egin eta gure planteamendua norabidetzen du; bestelako borroka ildoetan, bestalde, ekarpen kualitatibo handia egiten du (gazte sortzaileetan edo euskalgintzan, esaterako) eta Gazte Frontea identitatez, sinbologiaz eta bulkada berriz hornitzen du.

Izan ere, Naziogintza Nazio Eraikuntzarekin estuki lotuta ulertu behar dugu, ez dago naziogintza prozesu bat aurrera eramaterik Nazio Eraikuntza estrategiarik gabe, eta alderantziz. Besteak beste, nazio eraikuntzan egiten dugun lana sinbologiaz eta emozioz betetzeko funtzioa du naziogintzak: pertsona askez osatutako herri baten alde ari gara borrokan, bigarren mailako herritarrik egongo ez den herri bat alde. Honek, XXI. mendeko euskal abertzaletasunaz eta naziotasunaz hausnartzera eraman behar gaitu. Gaur egun Nazioetan pentsatzean nazio zapaltzaileak datozkigu burura, guk identitate eta izaera guztiak onartzen dituen bultzada identitario bat behar dugu, botere sinbolikoa erdiestearekin batera botere politiko, sozial eta materiala ere lehiatuko duena.

Sakona da naziogintzari lotutako hausnarketa; eta anbizioiduna gure estrategia. Antolakundea hausnarketarekin bustitzen jarraitzeko eta lan eremu bakoitzarentzat estrategia propio bat garatu eta gauzatzeko, lantalde propio bat sortuko dugu nazio mailan. Naziogintzaren ikuspegi orokorra landuko du eta ondoren dagokion marko eta aparatuetan izango du garapena. Gauzak horrela, jarraian adierazitako erronkek norabidetuko dituzte gure helburuak eta gure jarduna.

NAZIOGINTZAREN LANKETA PROPIOA

Nazio auzia edo nazio gintza bere baitan landuko duen espazioa litzateke. Euskal Herriaren zapalkuntza egoera, nazio izaera eta aitortza erdigunean kokatzen duen eremua. Nazio gintzari lotutako lanketak pisu zentrala izango luke, eta belaunaldi berriak abertzaletasunarekin bat egin eta ezkerreko independentismoarekin lotzea luke helburu. Abertzaletasunaren eta independentismoaren identitatea eta iruditeria indartzea bilatuko dugu eremu honetatik. Bide horretan, abertzaletasuna ahulen dagoen lekuetan, hiriguneetan, langile-auzoetan edota eremu erdaldunenetan, esaterako, bizitza duinen aldeko borroka nazio gintzaz eta bide batez independentismoarekin uztartzea gako garrantzitsua izango da. Abertzaletasuna oposizio elementu bilakatu behar dugu berriro ere, eta askapen prozesua berraktibatze erabili. 78ko erregimenaren eta Estatu Frantsesaren proiektu politiko, ekonomiko eta kulturalarekin lehiatuko duen abertzaletasuna bultzatu behar dugu.

NAZIOGINTZA INDARTZEKO BORROKA EREMU NAGUSIAK

Euskalgintza

Borroka ildoetan ere landuko dugun arren, nazio gintzaren ikuspegitik azpimarra berezia egingo dugu atal honetan. Euskara eskubide bat eta borroka sozial bat den heinean, nazio gintza hauspotzeko eremu baliotsua da. Euskara baita gure naziotasunaren balio garrantzitsuenetakoa, inportanteena ez bada. Norabide horretan, euskararen auzia birpolitizatzean jarri behar ditugu indarrak: nazio zapaldua garen heinean, estatuek hizkuntza ere zapaldu eta euskararen asimilazio estrategia garatzen dute, frantsesaren eta gaztelaren mesedetan. Euskal Herrian euskaraz aritzea eta bizitzea eragozten du horrek.

Gainera, Hego eta Ipar Euskal Herriaren arteko muga lausotzeko balioa du euskarak, baita mundu neoliberal honetan jarduteko posizio bat eskaini ere. Euskararen biziraupena estatu batekin loturan ikusten dugun herri-tarrak asko eta asko gara; euskarekiko atxikimenduak independentziaren atxikimendua indartzen du, beraz. Euskalduntze fase berri baten atarian egonda, arreta berezia jarriko dugu aipatutako gakoak euskararen lan-keta eta borrokaren bidez indartzeko. Ulertzen dugu euskara izan behar dela Euskal Gazteriaren kohesio elementu nagusienetakoa. Euskara eta euskalgintza Herriarekin eta balio eraldatzaileekin lotzea hauspotuko dugu baita ere. Erabilera sustatzearekin batera, arreta berezia jarriko dugu hizkuntza

gatazkak azaleratzen, eremu horren potentzialitatea askatuko dugu, baldintza berriak sor baititzakete hizkuntza gatazken lanketek. Ulertzen dugu euskaltzaletasuna (euskara hauspotzearen, babestearen, errespetatzearen eta Euskal Herrian euskaraz bizitzearen aldeko posizionamendua) izan behar dela Euskal Gazteriaren kohesio elementu nagusienetakoa.

Gazte sortzaileak

Nazio baten nortasunean, askapen prozesu baten izaeran, zein gazteriarren identitatean kultura funtsezko eremua da. Horregatik kokatzen dugu kulturagintza abertzaletasun eraldatzaile baten mesedetan, eta batik bat, gazteek eta gazte ikuspegiz garatutakoa. Naziogintzari ekarpenean abangoardia izan behar du gazteen kulturagintzak: euskararen garrantzia eta lehentasuna emanez, balio eraldatzaileak hedatuz eta hori guztia zabalitzen duen ekosistema oso bat sortuz Euskal Herriko gazteriaren baitan.

Ernaik ekarpena egingo du norabide horretan. Gure kide eta komunitatearekin hausnarketak eginez, ekosistema horren sorrerarako apustuak eginez, plazak sortuz eta errealitate, diziplina eta estiloetan berritzea sustatuz, besteak beste.

Kirola

Kirolak balioen eta identitateen eraikuntzan funtzio garrantzitsua betetzen du. Sistema kapitalista zisheteropatriarkalak bere balioen baitan antolatzen du kirola; baita Espainiako Estatuak ere, identitate espainiarra inposatzeko. Guk ez diogu lubaki horri uko egingo. Kirola Euskal Herriaren naziotasuna eta balio eraldatzaileak indartzeko esparru gisa kokatzen dugu. Kirola diogunean, kirol modernoek gain Euskal Herriko kirolen sustapenean ahalegindu beharko gara; hauen hedadura txikiagoa bada ere ofizialtasunaren bidera eramango gaituelako. Euskal Herriarekiko atxikimendua, nazio aitortza eta balio eraldatzaileak hauspotzea dugu xede. Euskal Selektzioari dagokionez, ofizialtasunaren aldeko aldarriak zuzenki lotzen gaitu nazioaren aitortza eta nazio zapaldua izatearen kontzientziarekin, baita horri aurre egiteko beharrarekin ere.

Hurrengo urteetan, lan eremu propio bat baino, egun sortuta dauden edo sortzen dabiltzan dinamika, plataforma eta aldarriei (Gu ere bai, Euskal Selektzioaren aldeko jarduna, herri-harmailak...) akonpainamendu lana egingo diogu. Jakinik gaur egun espazio hauetako askoren nolakotasuna zein den, kasuan kasu gure funtzioa zein den baloratu beharko dugu. Kirol jardunal-

dietan espainolismoa eta jakobinismoa salatzea ere gure jardunaren parte izango da; gure nazioa ukatzen dutelako eta hori gutxi balitz, kirolaren esparruan Espainiar zein Frantziar nazionalismoak arrastoak uzten dituelako Euskal Herrian.

Bestalde, kirolean ere naziogintza eta nazio eraikuntza batuko dituen praktika bat aurrera eraman beharrean gaude. Kirol taldeetako entrenatzaileetako asko gazteak dira eta gazte hauetako asko euskaldunak edo euskara-dunak dira, balio feministekin bat egiten dute, balio aurrerakoiak praktikan jartzearen aldekoak dira... Baina kirolak orokorrean kultura kapitalista zisheropatriarkala sustatzen du. Bestalde, kirola da bai haurtzaroan eta baita nerabezaroan ere hezkuntza formaletik at sozializatzeko eta pertsona gisa balio jakin batzuekin hezteko eta identifikatzeko eremu nagusi; eta beraz, kirolaren eremuaren gehiengoa ezin dugu gure jardunetik kanpo utzi. Tokian toki erakunde publikoek eta bestelako erakundeek ildo honetan praktikak dituzten arren, Ernaitik erakundeekiko era independente batean gazteak diren eta era batera edo bestera (entrenatzaileak, IBEF ikasten dutenak, kirolariak...) kirolean inplikaturik dauden gazteak saretzen eta euren praktikaren inguruko hausnarketa batzuk sustatzen saiatu behar gara. Gazte hauei Euskal Herriaren eraikuntzan funtzio bat esleitzeaz ari gara; naziogintzarekin lotura zuzena duen eraikuntzaz: batetik, kirolean euskararen erabilpena sustatuz gero gazteon garapenean botere gune garrantzitsuenetako den batean estatus periferiko batetik zentralitatea hartzea bultzatzen gabiltzalako eta bestetik, haur eta nerabeen artean euskal taldeak, euskal selekzioa, euskal kirolari erreferenteak... sustatuta naziogintza lan erraldoia egiten gabiltzalako...

Antifaxismoa

Faxismoaren oldarraldi berri baten aurrean gauden honetan, belaunaldi ikuspegiz ekin behar diogu antifaxismoari, Euskal Herrian antifaxismoa hegemonikoa izatea belaunaldiz belaunaldi indartzea dagokigulako.

Faxismoarekiko aurkakotasun huts batetik harago, Herri baten edo jendar-te baten identitatearen muinean dagoen balore nagusietakoa izan daiteke antifaxismoa. Antifaxismoak berdintasunaren eta askatasunaren balioak indartzen ditu. Euskal Herrian antifaxismoa hegemonikoa dela esan dezakegu eta, gainera, ezaugarri horrek Espainiatik bereizten gaituela, Herri gisa indartuz. Antifaxismoa borroka feministan, transmaribollo borrokan, borroka antiarrazistan, Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokan eta faxismoak jo puntuan gaituen sektore guztien borroketan dago. Antifaxis-

moa gazteen artean zabaldu eta indartzearekin batera, antifaxismoa borroka berrien ekarpenez berritzeko alea jarriko dugu. Ezin dugu aipatu gabe utzi, gainera, aurreikuspena datozen urteetan oldarraldi faxista bat biziko dugula bizitzako espazio guztietan dela, instituzioetatik hasi eta kaleetaraino. Euskal Herria ez da oldarraldi honetatik kanpo geratuko.

Memoria

Memoriaren gaiari garapen nabarmenagoa eman diogun badiogu, ez da beste lan eremuek balio txikiagoa dutelako. Baina bi elementu azpimarratu behar ditugu: memoriaren lerroak naziogintzan ekarpen handia egiten duela eta, bestetik, estatuak gatazkaren baitan bere alde darabilela eremua. Azken urteetan kezka-iturri bilakatu zaigu memoriaren alorra; mugimendu osoan eta baita Gazte Antolakundean ere. Kezka horretatik abiatuta, lan eremu gisa indartzeko hautua egin eta naziogintza ikuspegiaren baitan kokatu dugu.

Memoriak, herri baten ibilbidearen kontakizunak, nazioa eraiki zein deseraikitzen du. Herri baten eta komunitate baten identitatean, naziogintzan beraz, ekarpen esanguratsua egiten du. Historiaren bukaeran kateatuta nahi gaitu neoliberalismoak, askapenerako itxaropenik gabe (etorkizunik gabe) eta iraganeko borroka askatzaileen lorpenak ahaztuta (iraganik gabe). Espainiako Estatuak ere ondo jabetu da memoriaren garrantziaz, errelatoaren batailan makinaria guztia martxan jarri baitu: Gasteizko Oroimenerako Zentroa, kontakizun bakarra indartzen duten telesailak, biktimen elkarten eskuin muturreko lobby lana, hezkuntza sistema kontaketa faltsuak indartzeko baliatzea... Ofentsiba horrekin Ezker Abertzalearen urte luzeetako borroka isilarazi, Euskal Herriaren izana ezkutatu eta gatazkaren izaera politikoa ukatu nahi dute.

Gure memoriaren ekinbidea, ordea, ez dugu erantzun planora mugatuko. Are gehiago, memoriaren estrategikotasuna ulertuta, gure memoria egin eta herri borroken zein gure Herriaren aitortzaren alde indartzera goaz. Herri memoria eraikiko dugu.

Gazte mailan ardura berezia dugu, belaunaldi berriak hutsetik hasten baikara bizi ez dugun horrekiko. Transmisioaren garrantzia berresten dugu, gure iragana eta orainaren ahotsa izatearena. Eta abertzaletasun eraldatzailean ekarpena egitearekin batera, politizazioarako eremu gisa ere kokatzen dugu.

Bi ziklo nagusi kokatuko ditugun arren, Euskal Herriaren eta borroka askatzaileen bidea lehenagotik datorrela jakinekoa da. Bi ziklo hauekin, ez dugu bata eta bestearen arteko bereizketa bilatzen. Kontrara, borroka ziklo ezberdinen existentzia aitortu eta batetik bestera dagoen haria kokatu nahi dugu.

Lehenengoa, 1936-37tik gaur arteko zikloan kokatzen dugu. Erregimen faxistaren jazarpenak Euskal Herriaren izana arriskuan jartzearekin batera, Herriaren eta askatasunaren aldeko ibilbide batean inflexio puntua eragin zuen. Orduz geroztik, Herri honen zapalkuntza lotuta dago, 1937tik aurrera 40 urteko diktadura faxistaren oinordekoa baita 1978tik aurrera ezartzen den erregimena. Herri honen aitortzaren, erabakimenaren eta mota guztietako borroka emantzipatzaileen haria ere orduz geroztik gaur arte kokatzen dugu.

Euskal Herriaren historia ulertzeko, beraz, 1937tik aurrerako zapalkuntza nazionalaren zein bestelako zapalkuntzen ezarpena ulertu behar dugu. Baita horien aurreko borrokarena ere: gerrako faxismoaren aurreko erresistentzian, 1960. hamarkadatik aurrera ENAMen, langile mugimenduan, euskalgintzan, Herri Mugimenduan, Gazte Mugimenduan, borroka feministan... Euskal Herriaren aitortza, borroka Euskal Herriko markoan egitea eta borroken ezaugarritze eraldatzailea indartu dira. Honen guztiaren kontakizuna eta transmisioa gure egiten dugu, ez iraganean trabatuta geratzeko, baizik eta gure Herriaren egiazko memoriarekin konprometituta gaudelako, egungo nazio-gintzaren izaera ezaugarritzen duelako eta borroka horiengandik oraineko eta etorkizuneko erronkei begira ikasteko.

Euskal Herriaren hari honen baitan kokatzen dugu ziklo laburra: 1960. hamarkadatik abiatutako ziklo politikotik, estrategia politikoaren aldaketaraino; hau da, joan den hamarkadaren hasieraraino. Frankismoaren gordinenaren aurrean ENAMek abiatzen duen borroka zikloari lotuta dago, gatazka armatua ezaugarri nagusi duen ziklo laburra da. Hori da estatuak kateatu nahi gaituen tokia, historiaren haria zatikatu eta desitxuratzearen bidez. Gure mugimendu politikoaren eta milaka eta milaka euskal herritarren borrokari zilegitasuna kenduz, gatazka politikoa ezkutatzeko. Horren aurrean, gatazkaren izaera politikoa aldarrikatzea eta transmititzea izango da gure ekinbide politikoaren muina, belaualdi berriengana transmisio hori heltzearen ardura geure eginez. Horrez gain, dagokion momentuan, aurreko ziklo politikoan eroritako borrokalarien memoria eta aitortza ere aldarrikatuko dugu.

Ziklo laburraren baitan jaio zen Jarrai, lehenengo gazte antolakundea. Gure ibilbidearen eta borrokaren gertakari eta une batzuk gatazka armatuaren

faseari estuki lotuta daudela jakitun, Gazte Antolakundearen antolakuntza eta borroka hori baino askoz gehiago izan da eta da gaur egun. Gazte Antolakundearen 43 urteko ibilbide oparoaren kontakizuna, izan ziklo laburrari lotutako legez kanporatze fasearena eta errepresio bortitzarena, zein gazteon bizi baldintzen alde, nazio eraikuntzan, Gazte Mugimenduaren hauspotzean, zein herri honen askapen borrokan egin dugun ekarpen guztiaren kontakizuna egitea guri dagokigu.

Memoriari lotutako lanketa indartzeko lerro propio iraunkorrik zabalduko ez dugun arren, ekimen zehatzak zein kanpainak martxan jartzea hurrengo urteetan egingo dugun lana izango da. Jardun horiek nazio mailatik zein maila lokaletik garatu ditzakegu.

Gazte Mugimenduan naziogintza indartu

Azkenengo lan eremua naziogintza Gazte Mugimenduan eta oro har gazteon espazio orotan indartzeari lotutakoa da. Hitz gutxitan, Euskal Herriko marko geografikoa modu naturalean kokatzeaz gain, lanketa politikoa ere egiteaz ari gara: nazio mailan jardutea, Euskal Herriaren aitortza egitea, nazio zapalduaren izaera aitortzea, askapen borrokarako marko gisa kokatzea, euskararen erabilera, aipatutako borrokan hariari aitortza, etab. Honak guztiak ondorio gisa hausturaren aldeko jarrera indartzea eragin behar du. Horrek ez du esan nahi uneoro eta edozein espaziotan bultzatuko dugunik. Logika hori noiz, nola eta zein dimentsiotan indartu nahi dugun momentuko koituntura eta baldintzen arabera erabakiko dugu.

Naziogintzak Gazte Frontearen osaketa eta Gazte Mugimenduaren zein Euskal Gazteriaren mota guztietako lanketak kohesionatu, Herri izaeraren baitan bildu eta identitatez hornituko ditu. Euskal Gazteriaren naziotasuna borroka eraldatzaileen baitan ulertuz, Gazte Frontea bera indartzeko asmoz jardungo dugu.

5.3.3. BORROKA EREMUAK

Aurrez azaldutako moduan, hurrengo ziklo politikoan Gazte Mugimendua indartzea eta hedatzea dagokigu. Jarraian borroka eremuetan sakonduko dugu; izan ere, garrantzitsua iruditzen zaigu problematika eta alternatiba sektorialen bidez gazte borroka duen indarra bikoiztea.

Borroka sektorial batzuk Gazte Fronteari ekarpen handiagoa egingo diote artikulazioan eman daitezkeen forma anitzen ikuspegitik. Beste borroka ildo

batzuk maila bati baino gehiagori egingo diote ekarpena, eta horiek gazte mugimenduetako espresio ugariatatik eta baita Ernaitik ere lantzeko zeregina dugu. Atal honetan batez ere borroka sektorialen inguruan hitz egingo dugu, baina horien itzulpena edo lurreratzea, Gazte Frontearen atalean azaldu bezala, maila nazional, sektorial edo lokalean eman daitekeela kontuan izan behar dugu.

Borroka eremu horien baitan bilatzen dugun helburu bakarra edo nagusia ez da artikulazioa izango beti, baina artikulazioa ematearen beharra modu transbertsalean ulertu behar dugu eta etengabe presente izan.

Hamaika eta anitzak dira borroka ildoak, bakoitzak duen dimentsioagatik, estrategikotasunagatik, proiektioagatik, gazteriarengana heltzeko irismenagatik... Guztietan eman behar ditugu aurrera urratsak, baina datorren ziklo politikorako lehentasunezko eremuak eta su txikian lantzeko eremuak bereizi ditugu, ulertzen baitugu batzuei arreta bereziarekin heldu behar diegula.

Azkenik, garrantzitsua da presente izatea Ernaiko kidegoari dagokigula Gazte Mugimenduetan egotea, jardutea eta burujabetza eta eraldaketa soziala hauetatik bultzatzea. Horregatik, eredugarriak izan behar gara ekarpena egiten dugun espazio guztietan. Aurrez azaldutako moduan, hurrengo ziklo politikoan Gazte Mugimendua indartzea, dinamizatzea eta hedatzea dagokigu.

LEHENTASUNEZKO ILDOAK

Bost dira hurrengo ziklo politikoan eta Gazte Mugimenduari dagokionez lehentasunez jorratuko ditugun ildoak: feminismoa, gaztetxeak eta gazte asanbladak, euskara, transmaribollo borroka eta bizi baldintza duinen aldeko borroka.

Bakoitzak duen irismenagatik, Gazte Estrategian egiten duen ekarpen politikoagatik, dimentsioagatik... hautatu ditugu. Nolanahi ere, borroka eremu bakoitzaren egituraketa maila eta gaitasun mobilizatzailea oso ezberdinak dira. Horregatik, borroka eremu bakoitzarekiko erronka zehatzak markatuko ditugu eta ekarpen kualitatiboak egite bidean aurrera urratsak eman.

Feminismoa

Estrategia feminista oso baten inguruan hausnartu behar dugu eta berau garatzeko konpromisoa hartzen dugu datozen hilabeteetan. Estrategia fe-

minista horrek Euskal errepublika zein prozesua eta horren baitan diseinatu daukagun Gazte Estrategia, feminista izan dadin, gazteon ekarpena eta jarduna bilduko duen bide-orria da. Honetan ernaiako kide ororen, neska, trans eta bollerak zein gizonezkoen papera definitu eta antolakundearen jarduna, kanpo zein barrura begirakoa norabidetuko duen proposamen integrala izango da.

Estrategia feministarekin, gaur gaurkoz, epe luzeko hiru helburu nagusi betetzeko diseinatzena goaz (ulertuz eztabaida eman bitartean beste zenbait azpi-helburu ere beteko ditugula eta erronka berriak identifikatuko ditugula):

- Euskal Errepublika Feminista. Non neskok subjektu politiko gisa gure zapalkuntzak gaindituko ditugun.
- Haustura momentuan oinarri politiko eta sozial batzuk eraiki, Estatu Feministaren aldeko gehiengo bat.
- Neska* gazte mugimendua artikulatua eta boteretua egotea, eraldaketa eta burujabetzak eskuratuko duena. Parte hartze politikoa izan eta bizi baldintzak hobetzea ahalbidetuko diguna.

Helburu horiek betetzeko hamaika hausnarketa eta eztabaida eman beharko ditugu. Horien artean kokatzen ditugu: diskurtsiboki zein aldarrikapen eta eredu bultzatu pentsatzea eta zenbait teorizazioetan aurrera urratsak ematea; burujabetzak eraikitzen eta borrokatzen joatea, maila lokaleko proiektu ezberdinen ikuspegitik baina baita beste dimentsio batzuetan ere; gazteria politizatze bide berriez hausnartzea eta Ernai ere agente izatea neska, trans eta bollerak politizaziorako; eta estrategia guztia aurrera eramateko subjektuen eta funtzioen bereizketa egitea; Antolakunde mistoen eginkizuna eta honekin batera gizonen papera.

Egun garatu beharreko erronka nagusia gazte mailako olatu feminista propioa sortzea eta balio feministen hegemonizazioa da. Olatu horretarako ezinbestekoa ikusten dugu olatua behetik gora artikulatzea eta Ernaiko militanten neskok ere indarra bertan jartzea. Horretarako, maila lokaleko neska gazte taldeen autonomia eta ahalduak indartzea dagokigu; herri, auzo eta campusetan eraldaketarako agente bilakatu behar ditugu talde horiek eta geure indarrak horretara bideratu. Talde bakoitzaren baldintzen arabera, gure apustua problematika zehatzak identifikatu, landu eta borrokatzea izango da. Eta horretarako maila guztietan indartu eta ez dauden tokietan

sortu behar ditugu proiektuak eta fokoak. Gazteentzako neska* gazte taldeak erreferente izatea lortu behar dugu eta zentzu horretan Euskal Herriko Neska* Gazteak indartzea neska, trans eta bollera ororen erreferentziazko mugimendu bilakatzea. Bestetik, Neska* Gazteen mugimendua burujabetza eta eraldaketa sozialarekin lerratzeko aurrera urratsak ematea izango da gure ardura.

Neska* gazteen mugimendua agente aktibo eta indartua izan daiteke konfluentziarako espazioak sortzeko, mugimenduak berak duen hedapen eta gaitasunagatik. Beraz, herriko, auzoko eta campusetako gainontzeko Gazte Mugimenduko eragileekin elkarlana sustatuko dugu konfluentzia espazioak zabaltzeko aukerak aztertuta. Zentzu honetan, Gazte Mugimendua eraldaketarako subjektu bilakatzea eta hauek proiektu feministak egiteko gaitasuna garatzea izango da neska, trans eta bolleron beste zeregin bat. Maila lokalean neska gazte taldeak indartuko ditugu eta horretarako Antolakundeak dituen baliabideak jarri. Lokaleko taldeen iturri ideologikoa EHNGak eta Bilgune Feminista izatea bultzatuko dugu, baita aurrez Ernaik sortuta dituen tresnak ere formakuntza eta borroka ideologikorako baliatzea.

Neska* gazte taldeetan lan egiteaz gain, mugimendu feministan eragiteko gaitasuna lortzen joan behar dugu neska, trans eta bolleroak. Eta horretarako ezinbestekoa izango da mugimendu feministan iraunkorki parte hartzea, gure iritzia eta diskurtsoa plazaratuz helburu argi batekin Mugimendu Feminista indartsu eta artikulatu bat izatea trantsizio feminista baterako proposamen konkretuak burutzeko gaitasuna izango duena.

Feminismoari lotutako erronka nagusia neska* gazteen mugimendua bada ere, Ernaik erronka propioa jartzen dio bere buruari. Batetik, eta proiektu politikoan aipatu bezala, gure jardunean transbertsalki lantzeko apustua egitea. Eta bestetik, eta proiektu politikoaz eta lanketa transbertsalaz haratago, jardun feminista propioa izateko apustua egiten dugu. Antolakunde feminista gisa, gai garrantzitsu eta estrategikoen aurrean gure posizioa zein den adierazi, iritzia sortu eta koiantura zein agenda feministari erantzungo diogu Ernaitik. Ez dugu maila diskurtsiboan soilik garatuko lerro hori, agente feminista gisa praktikan ere itzulpena izan behar du.

Gaztetxeak eta gazte asanbladak

Hurrengo urteetako erronka nagusia gazte asanblada eta gaztetxeei bultzada ematea da; berriro ere, auzo eta herrietako gazteon erreferentzia politiko eta kulturalak bilakatu behar ditugu. Eta horretarako, dauden to-

kian indartu eta ez ditugun tokietan sortzea dagokigu, formula bat ala bestea izan.

Gazte asanblada eta gaztetxeak gure herri eta auzoetako gazte mugimendu iraunkor eta egonkorrenak izan ohi dira, eta Gazte Frontearen artikulaziorako zein konfluentzia espazioen logikaren inplementaziorako agente garrantzitsuak dira. Izan ere, gazte identitatea sortzeko, herri edota auzoarekin lotura egonkorra mantentzeko, borroka ezberdinen topagune izateko eta eraldaketarako agente bihurtzeko potentzial handiko eremuak dira.

Gaztetxeen inguruko proposamen politikoan eztabaidatu eta jaso bezala, bertan landutako eredu hedatu eta hegemonizatu behar dugu. Gaztetxeak boterea eraiki eta gazteon egoera eraldatzeko subjektutzat kokatzen ditugu, izaera ireki eta anitzarekin: autogestioa, asanblearismoa, botertzea, aniztasun ideologikoa, horizontaltasuna, izaera ezberdinetako lanaketak garatzeko gaitasuna... oinarri izango dituen ereduaz ari gara, zeinak konfluentzia politikorako espazio izan behar duen, mugarri eta fronte komunetan alde lan eginez. Norabide horretan kokatuta, gaztetxeetan gazteon eta gazte mugimenduon identitatea indartzen da, Gazte Mugimendu trinko eta indartsua sortuz, beste eremuetan baino modu indartsuagoan sarritan. Epe laburrera, gaztetxeen indartzea erronka gisa kokatzen dugu, aipaturiko horretan guztian ekarpena egingo duelako.

Horrez gain, burujabetza modu berehalakoan eta lokalean gauzatzeko tresna direla ulertzen dugu. Zenbait problematikei modu erreal eta eraginkorrean aurre egiteko proiektuak abian jarri, autogestionatuz. Ez da ezartzen zaizkigun markoaren mugak seinalatzeko gune soil bat. Kontrara, guk gaurdanik gure eredu eraikitze espazioak dira, kontrabotere materiala, alegia. Gaztetxeen kasuan, gainera, botere-gune bat da; espazio fisiko bat ere eskaintzen duena bestelako borroka sektorial zein lokalak artikulatzeko.

Herri bat, gaztetxe bat filosofia indartu behar dugu. Gaztetxe bat izateak gazteontzat espazio bat izatea dakar; borrokarako espazio bat, konfluentziarako, eraldaketa politiko eta kultural bat emateko aukerak zabaltzen dituenak. Aipamen berezia eskatzen du aisialdi eredu alternatiboa garatzeko, gazte sortzaileei plazak eskaintzeko eta jai eredu alternatibo baten alde egiteko gaztetxe eta gazte asanbladek duten potentzialtasuna. Ez dugu espazioaren ikuspegitik soilik ulertzen baina. Proiektuaren prismatik begiratzeko diogu gaztetxeei, gaztetxe bakoitzak duen eraldaketarako proiektu horri hain zuzen ere. Hau indartzeko herri eta auzo ezberdinetako gaztetxeen arteko zubi lana egitea eta saretzea proposatzen dugu.

Euskara

Erronka nagusia gazte euskaltzaleak saretzen, hedatzen eta taldeak egonkortzen jarraitzea da.

Euskararen kontrako erasoak, eskubide urraketak, zonifikazioa, hezkuntzan ematen diren problematikak... erdigunera ekarri eta politizatu egingo ditugu. Horiei erantzunak ematea izango da lehentasuna. Gazte ikuspegia landu behar dugu diskurtsiboki eta belaunaldi ikuspegitik hitz egin.

Bestetik, euskararen aldeko data puntualak landu eta politizatu egingo ditugu ere, gure Herrian hizkuntza-gatazka dagoela mahai gaineratu eta borroka eremu gisa kokatuta. Eta hori zuzenki lotzen dugu aurrez aipatutako naziogintza ikuspegi batetik lantzearekin eremua.

Euskararen gaia jorratzeko indartuko dugun sarea gazte euskaltzaleena baldin bada ere, euskararen borroka gazte mugimenduak batzeko borroka dela ulertzen dugu, eta eragile ezberdinek lantzeko ezin aproposagoa: gaztetxeek, gazte asanbladek... Zentzu horretan, egun dauden eragile, dinamika eta sareak indartuko ditugu eta bestelako espazioetatik ere landu dadin jardun.

Ernairen erreferentziapean egin beharrekoa, proiektu politikoan aipatu gisa, euskalgintzako problematikak gure proiektu politikoarekin eta Euskal Herri euskalduna eraikitzearekin lotzean datza.

Transmaribollo borroka

Geroz eta indar handiagoa duen borroka eremua da transmaribollo borroka, beharrezkotasun eta potentzial handikoa gainera. Hurrengo ziklo politikorako erronka nagusia kolektiboko kidegoa saretu eta diskurtso eta praktika propioak sustatzea izango da, gazte perspektiba izango lukeen erreferentziak sortzearekin batera. Ditugun erronkak betetzen hasteko, ordea, ez dago prest ez antolakundea ez eta militantzia ere. Horregatik, lehen eginbeharra gure buruak formatzea eta deseraikitzea izan behar da, teoriarik eta praktikan.

Borrokaren aitzindari transmaribollo subjektua izendatzen dugu. Orain artean, maiz erabili izan dugu LGBTIQ+ izendapena. Alta, emantzipazio indibiduala baino askatasun kolektiboa bilatzen du transmaribolloon borroka. Normaren barruan eraikitzea baino, gairik gabeko borroka da; eta borroka hori aktiboa eta kolektiboa. Horregatik uste dugu hobeto barnebil-

tzen duela gure izaera izendapen honek. Halere, jakitun gara kolektiboaren beraren baitan subjektuaren inguruko eztabaida pil-pilean dagoela, eta Ernai, egun, ez dela gai eztabaida horri erantzuteko. Ondorioz, gaur gaurkoz subjektu transmaribolloa guretzat erreferentzia nagusia izango bada ere, aurrerantzean eztabaida hau sakontasun handiagoz hartu eta moldaketak egiteko aukeran berresten gara.

Borroka horrek mobilizatzen duen gazteria batuko duen espazioak sortzea dagokigu, aurrera urratsak ematea, egun esperientzia gutxi baititugu gazte perspektibatik gaia jorratzen duten espazio edo subjektuei dagokionean. Bestetik, dagoeneko sortuta dauden koordinadora eta plataforma ezberdinetan parte hartzen hastea dagokigu.

Ernairen dinamika politikoan ikuspegi hau txertatzeaz gain, apustu zehatza-
goak indartzera joko dugu: agenda transmaribolloa erantzutea, koiunturari erantzutea (beti ere sakontze teorikoan eta barne prozesuan aurrera urratsak eman ahala) eta Antolakundea zein balizko gazte subjektuak burujabetzaren noranzkoan elikatzea.

Bizitza duinen aldeko borroka

Bizi baldintza eta bizi eredu duinen aldeko borrokak hamaika ertz izan ditzake. Osasun mentala, mugikortasuna, osasungintza publikoa, espazio publikoaren pribatizazioa... eta beste hainbat ere borroka eremu honetan kokatzen ditugu. Hala ere, multzo honetan lana eta etxebizitzaren inguruko borrokak bilduko ditugu, batik bat. Ondorengo borroka eremua ez dute talde prekarioek eta etxebizitzako eragileek soilik landuko, askotariko subjektuek landuko dute. Eremu horretan, gure erronka Gazte Mugimendutik gazteria zapaldua aktibatu eta antolatzeko askotariko borroka eta proiektuak piztea da, bizi baldintza duinen aldeko lerroa Gazte Mugimenduan indartuz. Lanketa horietatik garaipen txikiak eskuratzea izango da bigarren helburua, bizi baldintzak hobetzearekin batera gazteon antolakuntza maila handitzea lortzeko. Ernaiko kideok gai honi perspektiba feminista eta marxistatik helduko diogu, eta argi laburrez gain, argi luzeak ere piztuta izan behar ditugu beti, garaipen txikiak bilatuz baina argi izanez zein den bizitza duinak bermatuko dituen gure ortzi-muga: euskal estatu sozialista eta feminista.

Lana

Talde prekarioak egungo testuingurura egokitzea izango da erronka nagusia. Martxan dauden ekimenak indartu eta egon daitezkeen aukeren baitan

taldeak egonkortu eta proiektu propioak garatzea izango da apustua jakitun izanik jada ez dutela duela urte batzuk izan zuten indarra.

Talde prekarioek gazteria zabala politizatzeke gaitasuna dutela uste dugu, borroka ideologikoan dute batez ere potentzial handiena. Egoerak, problematikak, alternatibak mahaigaineratzea eta borroka ideologikoaren bidez sozializatuz. Baina funtzio hori betetzera mugatzeak asko baldintzatu dezake talde prekarioen jarduna, eta beraz, bestelako jardun propioa izan behar dutela iruditzen zaigu, bakoitzaren behar eta baldintzei egokituta.

Baldintzarik ezean, ez dugu proiektu alternatiborik sustatuko. Eta azterketa orokor batetik abiatuta, egun dauden eragileak indartu eta aldarrikapen mugimenduen izaerako borrokekin apustu zehatzak egingo ditugu: herri edo eskualdeari lotutako kanpainak, lanari lotutako salaketa eta aldarrikapen kanpainak, etab. Dauden esperientzia ezberdinak indartu eta horiek erreferentzia irabaztea izango da gure lan egiteko logika.

Etxebizitza

Etxebizitzaren eremuan erronka lehen urratsak ematea da. Problematika honi Gazte Mugimendutik nola erantzun eta nola artikulatu zehaztu eta apustu zehatzak egitea da asmoa. Izan ere, ikuspegi materialetik eta esku-bideen aldetik garatu eta sozializatu izan dugu diskurtsoa azken urteetan. Baina hankamotz geratu izan gara Gazte Mugimendutik horren itzulpenak edota alternatibak proposatzeko garaian.

Etxebizitzaren inguruko gazte eragileak sortzera joan beharrean, maila lokaleko beste espazio batzuetatik lantzea izango da hurrengo urteetarako logika. Aldarrikapen mugimenduak bultzatuz hasieran eta proiektu alternatiboen inguruan ere hausnartuz, baldintzarik balego horiek sortzeko.

Ernairi dagokionez, gaia jorratzen jarraituko dugu. Etxebizitzaren eta lanaren inguruan proposamen politikoak egin eta horiek aldarrikapen terminoetan landuko ditugu, Ernairen dinamika propioaren atalean (5.3) aurrez azaldu bezala.

SU TXIKIAN LANTZEKO BORROKAK

Su txikian landu beharreko borroka eremuez hitz egiten dugunean, datorren ziklo politikoan lehen aipatutako borroka eremuen ondoan, beste intentsitate batez landu beharrekoen ari gara. Horrek ez du esan nahi garrantzi-

tsuak ez direnik; kontrara, duten potentzialagatik sukaldeko lan handiagoa eskatzen diguten borroka ildoak dira. Kidego formatzea, antolaketa espazioak eskaintzea eta saretzea da dagokiguna.

Horien artean kokatuko genituzke ekologismoa, hezkuntza ez formala, jai herrikiok, gazte sortzaileak eta borroka antiarrazista dekoloniala.

Ekologismoa

Ekologismoa izango da hurrengo ziklo politikoa markatuko duen auzietako bat. Eta belaunaldi ikuspegi batetik gaiari heltzea da erronka nagusia: ekologismoaren olatua indartu, belaunaldi ikuspegia garatu eta sozializatzea, eta gazte espazioak sortzea.

Antolakunde gisa lehentasunezkoztat hartzen dugun borroka eremua da ekologismoarena, baina Gazte Mugimendu ikuspegitik, eta batez ere, gazte mailako artikulaziori dagokionez, zailtasun handiak ditugu gaur gaurkoz. Horregatik, batetik, egun sortuak eta martxan dauden belaunaldiarteko eragileetan egon, bertatik ikasi eta gazte ikuspegitik ekarpena egitea dagokigu.

Eta bestetik, lehen aipatu gisa, belaunaldi ikuspegidun diskurtso propioa eraikitzen joatea dagokigu. Momentuz ez dugu ikuspegi hori modu integratuean lantzen duen gazte eragilerik. Gazteon artean Ernaik berak izan behar du diskurtso hau mahaigaineratuko duen subjektua, nahiz eta pixkanaka gazteria antolatzeko espazioak sortzea den gure anbizioa. Antolatzeko espazioak sortzeaz gain, gaiak duen mobilizazio gaitasunak espazio horietan ekarpen politikoa egitera eta begirada bat bertan izatera garamatza.

Ernairi dagokionez, beraz, ekologismoaren lanketa esplizitua egingo dugu. Euskal Herri eta jendarte ekologista aldarri gisa kokatu eta beste borroka batzuekin elkar lotuta ulertuz: eredu sozioekonomikoa edo jendarte antolaketari erreferentzia eginez, esaterako.

Hezkuntza ez formala

Hezkuntza ez formalak gazteon sozializazio prozesuan eta identitatearen eraikuntzan funtzio oso garrantzitsua jokatzen duela uste dugu. Gainera, naziogintza ikuspegi batetik ere ekarpena egiten duela ikusi dugu. Eta beraz, hurrengo urteetan arreta bereziz begiratu eta erronka zehatzak izan beharko ditugu eskuartean: lehenik, balore eta praktika jakin batzuk landu

eta bitzta eta zaintza erdigunean jarriko dituen bizi ereduak sortuz (parte hartzaileak, euskaldunak, feministak, antikapitalistak, ekologistak, zaintzaileak...). Bestetik, gazteria politizatzea, bizi dugun egoeraren inguruko irakurketa kritiko bat egitera bultzatzea eta jasaten ditugun zapalkuntzak identifikatzeko bide ematea, gazte problematika erdigunean jarritz. Eta azkenik, komunitatea ehuntzea.

Lanketa horretarako lehen pausua hezkuntza ez formala lantzen duten elkarte zein gazte taldeetako gazteak saretzea izango da. Aurrez aipatutako helburuak betetzeko funtzioa ematen diegu talde horiei, balio eraldatzaileen transmisioan lehentasuna jarritz. Ez goaz eragile nazionalik sortzera, tokian tokiko proiektu eta taldeak bultzatu eta Gazte Mugimenduarekin elkar loturan ulertzera baizik. Eragile nazionalik sortuko ez badugu ere, kontuan izan behar ditugu egun jada sortuta dauden zenbait proiektu (Euskal Udalekuak, Sormen negutegiak...), Euskal Herria bere osotasunean marraztu eta irudikatzen baitute, naziogintzan ekarpena oso handia eginez.

Hezkuntza ez formalaren ildoan aisialdiak leku handia izan ohi du eta aisialdirako eskaintza edo proiektu horiek balio jakinen transmisioarekin, komunitatearen ehuntzarekin eta gazte kontzientzia piztearekin lotuko ditugu hurrengo urteetan.

Gure proiektu politikoa eta kosmobisioa ahulen dagoen tokietan etorkizuneko belaunaldiekiko ate eta inertzia batzuk apurtzeko era eraginkorrenetakoa dira hezkuntza ez formala lantzen duten aisialdi taldeak. Euskal Herriko eremu batzuetan gazteei hitz egitea "beranduegi" izan daiteke. Ume, nerabe zein gazteei aisialdi kontsumista batetik kanpo elkar ezagutzera, disfrutatzea, ondo pasatzera, botere harremanak deseraikitzea, bihurriak izatera, herritarren arteko loturak eta konpromisoak eraikitzea... bideratutako espazioak sortzea eta hauek euskaratik eta euskaraz eraikitzea izan daiteke eremu batzuetan ditugun muga historiko batzuekin apurtzeko bidea. Epe luzera begira, eragile nazionalik sortu gabe, baina tokian toki aisialdi talde lokalak sortzeko egon daitezkeen aukerak baloratzeko apustua egin behar dugu, bai begiraleen gehiengoa gaztea izaten delako (eta honek gazteak horrelako proiektu baten lanean jartzeko aukera ematen digulako) eta baita aipatu bezala, ume eta nerabeekin lan egiteko ematen digun aukera dela eta.

Jai herrikoiak

Gure ia auzo eta herri guztietan dute lekua jai herrikoeiek. Horren potentzialitatea kontuan hartuz, gure balio eta jai eredu herrikoen bueltan alternatibak sortu, indartu eta bermatzea izango da hurrengo urteetako erronka nagusia.

Jai herrikoiengan gazte asko elkartzen gara, kuantitatiboki gazte gehien elkartzen ditugun eremua izateaz gain, belaunaldi ezberdinen arteko espazioa ere bihurtzen da. Belaunaldi gazteenak hurbiltzeko maiz lehen espazioa izaten dira, gainera. Konfluentzien logika jai herrikoiengan kristalizatzen da sarri, eragileen eta borroken arteko espazio eta proiektu bihurtzen delarik.

Modu batera edo bestera urtero indartzen ditugun borroka eremuak dira, baina pandemia osteko eszenatokiak egoera berri baten aurrean jarri gaitu. Garaiz heldu behar diogun gaia da. Antolakunde gisa, eremu horri ere dagokion hausnarketa propioa egitea dagokigula deritzogu.

Gure balioen baitako espazioak indartu eta saretzea da erronka, komunitatea sendotzeko asmoz. Jai eredu kapitalista zisheteropatriarkal hegemonikoaren parean, alternatiba erreal eta gauzagarriak dira jai herrikoiak; balio eraldatzaileen bueltan eta komunitatean lan egiteko espazio indartsuak. Zentzu horretan, gazte sortzaileekin zuzeneko harremana izan ohi dute jai herrikoeiek, eta horien arteko zubi lana egin eta elikadura bultzatzea ere gure zeregina da.

Jai eredu ahalik eta koherenteena bilatzera jo behar dugun bezala, behar dugu jai herrikoiak hegemoniko izatea. Lekuan leku lehentasunak ezberdinak izango diren arren, bi norabideetan egin behar dugu aurrera bata bestetik bereizi gabe.

Gazte sortzaileak

Gazte Mugimenduaren begiradatik indartu beharreko ildo gisa kokatzen badugu ere, datorren ziklo politikoan ekarpen nagusia naziogintzaren baitan egingo duela ulertzen dugu. Erronka nagusiak elkarren artean saretzea, gazte identitatearen sorkuntzan bultzada ematea eta gazte sortzaileen ekosistema propio bat eraikitzea da.

Hiru eremu nagusi identifikatzen ditugu ildoaren garapenerako: diskurtso propioa garatzea gazte sorkuntzaren inguruan; gazte sortzaileak saretzeko zirkuitu kulturalak eraikitzea eta subjektu gisa izan ditzaketen aldarrikapenak sozializatzea. Eremu guztiek egingo liokete ekarpena Gazte Mugimendua identitate, pertenezia eta balio batzuen baitako giroz bustitzeari. Hiru eremu horiek bi noranzko landu behar ditugu: sortzaileen ikuspegitik eta sorkuntzaren bidez indartu dezakegun komunitatearen ikuspegitik. Izan ere, komunitate baten kezka, balio eta ideiak sozializatzeko modu bat ere bada sorkuntza, eta etengabeko elkar harremanean ulertzen ditugu.

Gazte Mugimenduko beste eragileekin harremanak eraikitzea beharrezkoa ikusten dugu ildoan aurrera pausoak eman ahal izateko: gaztetxeekin, gazte asanbladekin, jai herrikoien antolakuntzaren bueltan dabiltzan gazteekin...

Hurrengo urteetarako erronka nagusia aipatutakoak praktikan jartzea bada ere, Antolakunde gisa eztabaida bat identifikatzen dugu: kulturak eta sorkuntzak prozesu independentista eraldatzailean eta, ondorioz, Gazte Estrategiari egiten dioten ekarpenaren eta noranzkoaren inguruko hausnarketa.

Borroka antiarrazista dekoloniala

Borroka antiarrazista dekoloniala Ernaitik zein gazte mugimenduetatik sustatu beharreko borroka eremu gisa identifikatzen dugu.

Egungo gazte mugimendua pribilegio zuriz ezaugarrituta dago eta hauen errebisio eta deseraikuntzatik urrun dago oraindik kidegoa. Hau horrela izanik, gazte mugimenduko espazioak seguruak eta erosoak bilakatu behar ditugu gazte migratu eta arrazializatuentzat. Era berean harremanak egin behar ditugu euren espazioak ezagutuz eta hauetan parte hartuz. Artikulazioan aurrera pausuak emateko anbizioa izan behar dugu.

Bestetik, Ernain lan handia dugu borroka antiarrazista dekoloniala ezagutzen, formatzen eta borroka honen baitan gure jarrera zein izan behar den ulertzen. Kanpora begira diskurtso antiarrazista dekoloniala garatu behar dugu gazteon artean pedagogia eginez.

5.3.4 PROIEKTU POLITIKOAREN LANKETA

Dinamika propioaz eta eremukako borrokez gain, garrantzitsua iruditzen zaigu gure proiektu politikoak ere bere lanketa eta lurreratze espezifikoa izatea. Horren sozializazio eta hedapena baita Gazte Antolakundearen eginkizunetako bat, baita Gazte Frontea elikatzea eta gazteoi ortzi-muga bat marraztea ere.

Independentzia, sozialismoa eta feminismoaren aldarriak kapitalismo zisheteropatriarkalarekin eta 78ko Erregimenarekin talkan agertzea da gure eginbeharra. Errotiko jendarte aldaketa mahaigaineratu eta horren baitako antolakuntza eskaini behar diogu Euskal Gazteriari. Errotiko problematiken aurrean errotiko konponbideak, proiektua, defendatzea da gure eginkizuna. Horregatik, garrantzitsua da koiunturari erantzuterakoan zein dinamika propioa lanketetan proiektu politikoarekiko loturak eta zubiak eraikitzea.

Forma ezberdinak har ditzake proiektu politikoaren lanketak. Horietako bat, eta asko erabili ohi duguna, borroka ideologikoa da. Gure proiektua sozializatzearen helburua egozten diogu. Masa bat konbentzitu eta ondoren horrek itzulpen praktikoa izan dezan, edukiz eta formaz betetzen joan behar garen jarduna dela deritzogu. Orokortasunean landu behar dugu, gazteriarantz ulergarri bihurtuz, baina aldi berean proiektu politikoak dituen ertz guztiak jorratzen joan behar gara. Horretarako proiektuan sakontzeko formakuntza eta borroka ideologikorako ahalduntzea ezinbestekoak izango dira. Gure proiektua erradikala da, arazoan erroa identifikatzen baitu. Eta horren aurrean proposamenak proiektu politikoaren baitan artikulatzeko eta praktikara jauzi egiteko anbizioa dugu. Egun posiblea den horretatik haratago joan behar dugu, gure zerumugarantz.

Errealitate materiala borrokatzeko tresna ere bada, proiektu politikoaren alde egitea bizi eredu eta bizi baldintza duinen alde egitea ere bada. Eguneroko txinaurri lanarekin lotu behar dugu, Gazte Botereak ahalbidetuko baitigu gure proiektu politikoaren egikaritzeko posizio hobea. Euskal Errepublikara eraikitzeko posizio hobea gure eguneroko borroka bidez lortzen dugu, azken batean.

Guztia noranzko horretan joateko, ortzi-muga komun hori izateko, ezinbestekoa da eguneroko jarduna independentzia, sozialismoa eta feminismoarekin lotzea. Lotura hori praktika politiko batek lagundu behar du, gazteek sinesgarri ikusi behar dute proiektu politikoaren, gure bizitzak aldatuko dituen

zerbait bezala perzibitu behar da. Eta horretarako, logika salatzailetik ofentsibara jauzi egiteko beharra ere badago.

Gure proiektu politikoa, gazteon arazoan aurrean, alternatiba erreala da. Proiektu politikoa errealtatera ekarri eta termino taktikoekin uztartuz lortuko dugu hori. Gazteriak bere beharrianak, kezka eta aterabideak hauteman behar ditu guk proposatutako alternatibetan. Alternatiba, batetik, proiektu gisa ulertuz; eta bestetik, norbanakoa eraldaketarako subjektu eta bizi eredu alternatiboen bultzatzaile moduan. Gure proiektu politikoak gure jardunean eta militantzia ereduaren ere itzulpena duela ulertzen dugu zentzu horretan; izan ere balio jakin batzuen baitan eraikitzen dugu proiektua eta militanteok gara gure egunerokoan balio horiek, ardatz horiek, praktikan jartzen ditugunak.

Problematika zehatzekin eta eguneroko borrokekin lotzeaz gain, gure proiektu politikoa modu esplizituan lantzeko momentu puntualak izan behar ditu Gazte Antolakundeak. Nagusiena, Udaberriko Ekimena.

Modu orokor eta esplizituan lantzeak subjektibitate batetik lantzea ere esan nahi du. Eta zentzu horretan, epika ortzi-muga horrek eta bideak ematen digula sentitu eta sinetsi behar dugu gazteok. Testuinguruaren erronketa eta jendarte aldatetara egokitu behar dugu gure epika, oinarrian dugunari uko egin gabe eta errealtatearekin zubi-lanak eginez. Horretarako, ezinbestekoa izango da, proiektu politikoaren atalean azaldu gisa, borroka berriak integratzen joatea eta baita ere horien sinbolo eta iruditegia gurearekin uztartuz aurrera egitea.

5.3.5 GATAZKAREN ONDORIOEN KONPONBIDEA

Jakina da gure Herrian badagoela gatazka politiko bat; termino horietan ulertu behar dugu gatazkaren inguruan mintzo garenean. Gatazka armatua egon zen, eta amaitu bazen ere, geure Herrian gatazka politikoak bizirik dirau. Eta horrela izaten jarraituko du konponbide integrala lortu arte; hau da, Euskal Herriak guztizko erabakimena eskuratzen duen egunera arte.

Atal honetan ordea, gatazka politiko-armatuaren ondorioen konponbidearen inguruan jardungo gara. Urteetan zehar, etxetik urrun, espetxean zein ihesean, ditugun kideak etxeratzearen eta aske egotearen beharrari egiten dio erreferentzia ildoak.

Azken urteetan, ildoari lotutako aurrera urrats kualitatibo eta kuantitatiboak eman dira preso politikoen baldintzen hobekuntzan zein jendartearen sentsibilizazio eta mobilizazio mailan, testuinguruaren atalean azaldu dugun moduan.

Egun, gauden egoeran egotea eta urrats horiek eman izana ez da kasualitatea. Horren atzean Ezker Independentismoak, Ezker Abertzaleak eta EPPK-k harturiko erabakien noranzkoa eta lan handia daude. 10 urte bete dituen Aieteko Konferentzian adostutako bide-orriarekin jarraitu eta aurrera urratsak eman dira zehaztutako puntuen baitan, EPPK-k ongi etorriak modu intimoan garatzeko hautua egin du, esaterako. Guk ere geure egiten ditugu erabaki horiek.

Azken garaian, salbuespen neurriak egon dira aldarri eta borrokaren erdigunean. Eman ditu zenbait fruitu: dispertsioaren amaieraren aurrean egon gitezke. Horrekin batera, baimenak eta gradu progresioak lortzen joan dira. Hala ere, ez da aski: bidea egiten jarraitu behar dugu preso eta iheslari guztiak etxean eta aske egon arte.

Aurrera begira, gaurdaino lortu den mugimendu sozialaren indarra eta bateratasuna ahulzten joatea arrisku posible bat da. Gazteongan, adibidez, azken urteetan jaitsi egin da gaiarekiko interesa eta babesak eta errelatoaren transmisioa egitea gero eta gehiago kostatzen da. Erronka handiak izango ditugu parez pare. Izan ere, dispertsioaren amaierarekin, zenbait sektoreen begitara gaiarekiko destentsionamendua eman daiteke, presoan afera gairatutzat jo baitaiteke. Horren aurrean, presoan kaleratzearen aldeko aldarri eta lanketak arreta berezia eskatuko digu.

Premia eta presa du gatazka politiko-armatuko ondorioei konponbidea emateak. Batetik, batzuk gure Herria iraganera kateatzeko eta prozesuak oztopatzeko erabili nahiko dituztelako preso politikoa; bestetik, auziari konponbidea emanez gero, independentziaz gertuago dagoen joko-zelai batean kokatu gitezkeelako.

Espazio zabaletan masa artikulazioa indartu eta gatazkaren izaera politikoan sakontzea dagokigu. Batak bestea osagarritzen duela ulertzen dugu; biak dira beharrezkoak. Laburbilduz, hiru funtzio nagusi egotzen dizkiogu Ernairi:

- Lehena, espazio zabaletan egiten dugun lanarekin jarraitu eta duen garrantzia aitortzea. Gure ustez Sare da presoan auzia gairatzeko palan-

ka. Gazte Antolakundeak belaunaldi berriak Sarera batu, gazte ikuspegia txertatu eta bultzada emateko eginkizuna du.

- Bigarrena, Ernaik izen propioz gatazkaren ondorioen izaera politikoa lantzeko funtzioa bete behar du. Presoen eskubide eta baldintzetatik haratago joan eta izaera politikoa lantzeko ardura daukagu. Gazteriarri adierazi behar diogu euskal preso, iheslari eta deportatu politikoak proiektu politiko baten aldeko borrokagatik daudela espetxeratuta edota erbesteratuta. Lan hori batez ere borroka ideologikoaren bidez egingo dugu. Honek egoera jakinen aurrean posizioa adieraztea ere eskatuko digu.
- Hirugarrena, preso politikoekin lotura militantea egin eta horren transmisioa bermatzea. Barne lanketaren bidez egingo dugu, batetik, preso politikoekin harreman politikoa eginez eta horrek belaunaldi berrietan jarraipena duela bermatuz. Eta bestetik, Antolakundearekin bat egiten duten belaunaldi berriei presoen izaera militantea azaltzea, gatazkaren ondorioen atzean hautu politiko bat dagoenaren ideia indartzea: proiektu politiko baten alde borroka egiteagatik direla errepresaliatuak, alegia.

Preso politikoaren problematikaz gain, Euskal Herrian indar okupatzaileen problematikarekin ez dugu amaitu. Urte luzez hauen kanporaketaren dinamikak aurrera eramanez, eta azken urteetan, lehentasunak ezartzeak eraginez, horrelako planteamenduek pisua galdu dute. Baina argi dago Guardia Zibila, Polizia Nazionala eta bestelako indar okupatzaileak gure herriaren bakera eta askatasuna oztopatzen duten indar errepresiboak direla. Horregatik, tokian toki hauen kontrako lanketak egiteko aukerak balioan jarri behar dira, gazte belaunaldien transmisioan pisuzko eremua dela ulerturik, eta erreferentzialtasuna garatzeaz gain, gaur egungo testuinguru politikoaren agente protagonistak direlako.

5.4. GAZTE BORROKAREN EZAUGARRITZEA

Hurrengo ziklo politikorako gazte borrokaren ezaugarritzeak jendartea eta gazteria politizatu, aktibazio politikoa sustatu eta gazteriarengan iritzia sortzea izango du xede. Beti ere, Gazte Estrategian baldintza berriak sortu eta Gazte Frontearen artikulazioa indartzea helburu izanda. Aurrez aipatutako helburuak betetzea izan behar da borroka molde orekin funtsean, unean unean modurik eraginkorrena baliatzen asmatzea. Beraz, borroka molde bat edo beste lortu beharreko helburuaren baitan erabiliko dugu eta molde horri ezaugarritze bat edo beste emango diogu, Ernaitik zein Gazte Mugimenduetatik jardutean.

Masa mobilizazioei dagokienez, estrategia independentista eraldatzailea eta Gazte Estrategia hauspotzeko mobilizazioak garatuko ditugu.

Bestetik, Gazte Antolakundeak urteetan zehar erabili dituen ekimen irudimentsuak ere indartuko ditugu, seriotasunik galdu gabe.. Batez ere zenbait gai sozializatzeko eta oihartzuna eragiteko asmoz.

Azkenik, borroka ideologikoa indartzeko betebeharra dugu hurrengo urteetan. Aurrez aipatutako gazteriaren politizazioa, iritzia sortzea eta gure proiektu eta strategiara gerturatzeko gaitasuna irabaziz. Horretarako, beharrezkoak diren baliabideak indartuko ditugu.

Desobedientzia eta konfrontazioa ere bilatuko ditugu, beti ere Gazte Frontearen artikulazioan edota Gazte Strategiaren garapenean aurrera urratsak bultzatzeko lagungarri direnean. Bi molde horien ulerkerazabal eta anitza presente izan behar dugu. Jendarteak arautzen duen normari, sistemari, aurre egiteko tresna gisa ulertzen ditugu borroka molde horiek. Ekin-tza jakin batzuen bidez, baina baita gure praktika pertsonal eta bizi-ereduei lotuta ere egin liteke hori, forma eta praktika ugariak sortuz.

Espainiar eta Frantziar Estatuetik konfrontazio bidez transmitituko diegu borrokara batu nahi ditugun belaunaldi berriei badagoela Euskal Herriaren eta estatu frantses eta espainiarraren artean gatazka politiko bat. Etorkizunean, estatuekin talka egitera goazenez gero, etorkizuneko erronka eta egoera desobedienteetarako prestatu behar dugu. Apustu honek, beraz, badauka berekin formakuntza baten beharra: errepresioaren inguruko lan-ketak, segurtasun-tailerrak, tailer komunikatiboak...eta horiekin batera sistemaren ahulguneen nahiz eragin guneen azterketak egin behar ditugu.

5.4.1. KOMUNIKAZIOA

Gazte borroka etengabea ezaugarritu, hobetu eta moldatu beharko dugu gure helburuak lortzeko, hori da aurreko lerroetan aipatutakoa. Eta ondorioz, komunikatzeko moduak, estrategiak eta bideak ere helburuaren baitan moldatu eta garaiaren baitan berritu beharko ditugu.

Behin baino gehiagotan aipatu dugu egungo jendartean komunikazioak duen pisua, egiten duguna, esan nahi duguna ez badugu komunikatzen potentzialitate handia galtzen duelako, egon denarentzako soilik gertatu delako. Horregatik, datozen urteei begira komunikazio estrategia oso bat garatzea dugu helburu (horretarako bitarteak eta beharrezko formakuntza

eskainiz): erregistroei dagokionez berritzailea izango dena, komunikatzeko modu berrietatik edango duena, apurtzailea, erakargarria, errebeldea eta probokatzailea izango dena, egoera desnormalizatuko duena, komunikazio gerrilla filosofia eta praktika moduan indartuko dituena, kanal bakoitzerako plan propioak dituena...

Identifikagarria izango den Ernairen komunikazio eta iruditegi propioa sortzea dugu helburu hurrengo hilabeteetan: erraz identifikatuko duguna, lokalak eta nazionalak lotura eta koherentzia izango duena, gaur egunera egokitutakoa azken batean. Eta denbora igaro ahala, testuingurura eta garaira egokitzeko mekanismoak jarriko ditugu.

Militanteok agente komunikatiboak izan behar dugu, egiten dugunak eta egiten dugun moduak asko esaten du. Etengabeko informazio jarria dagoen garai hauetan, guk ere gure berri eman behar dugu koadrilan, sare sozialetan, kirol taldean, familiako bazkarietan, aisialdi taldean...

Izan ere, garrantzia berezia eman behar diogu antolakunde gisa dugun kapitala probesteari. Goiko parrafoetan aipaturiko ezaugarriekin ardatzuko den komunikazio estrategia sare sozialetatik askoz haratago pentsatu beharra dugu. Gerra komunikatiboa ezin dugu guk kontrolatzen ez ditugun parametroen gainean eman, ez bakarrik behintzat. Eta sare sozialen logaritmoetan kateatuta geratzeak denentzako egiten ari garenaren sentsazioa eman diezaguke, betikoentzako soilik egiten ari garenean. Gurea bezalako gazte antolakunde baten komunikazio estrategiak, eraginkor eta efizientea izan nahi baldin badu, kaleak hartzea izan behar du oinarri indartsuenetako bat: plazetan eragitea, milaka pertsonak eta pertsona guztiek erabiltzen dituzten garraio publikoetan eragitea, milaka gazte batzen diren hezkuntza eremu, ekimen handi, hirietako erdiguneetako kaleetan eragitea... eta hau guztia marka bat eta marka horrek berekin dakarren iruditegi, izateko era eta abarrak zabaltzeko xedez, noski.

Kontuan izan behar dugu komunikazioaren helburua ez dela "ez dena komunikatzea", baizik eta egiten den hori komunikatzea. Gure buruari hau aitortuz gero politika da komunikazioaren oinarria eta gure jarduna politika egitera bideratu behar dugu. Komunikazio estrategia batek ez du Ernairen erreferentzialtasuna handitzeko balioko ez bada estrategia politiko batekin ardatzen. Horregatik, komunikazio estrategia hau aurrera eramateko profil anitzez osatutako lantalde bat behar dugu, gaitasun teknikoak izateaz gain, gaitasun eta ibilbide politiko bat duten militantez osatua.

5.4.3 GAZTE BORROKAREN AURKAKO ERREPRESIOA

Euskal Gazteriak beti pairatu du errepresioa eta hau ez da inoiz borroka alboratzeko arrazoi bat izan. Hala ere, errepresio honi erantzuteko beharra daukagu etekin politikoa atera eta antolakundeak zaintzeko. Horretarako, apustuak eta planak behar ditugu, kanpora zein barnera begirakoak.

Barnera begirakoei dagokionez, errepresioaren forma berrien inguruko formakuntza sustatuko dugu militanteon artean, batetik.

Kanpo jardunari dagokionean, berriz, errepresioari atera beharreko etekin politikoa mahaigaineratuko dugu ulertuz errepresioa koiunturala dela eta iraupen ezberdina izan dezakeen lana izango dela.

- Euskal gazteriaren izaerari garrantzia emango diogu, gazte izaera eta gazte harrotasuna kalera ateraz. Honen bidez, gazteriaren ezaugarritzea azaleratuko dugu gazteria gurekin identifikatzeko aukera berriak irekiz.
- Errepresioaren arduradunak, arduradun politikoak eta haien tresna edo agente errepresiboak interpelatuko ditugu. Honen bidez, azalatu beharko dugu pertsona edo agente errepresiboen benetako misioa eta izaera.

5.5 NAZIO ESTRATEGIARANTZ

Euskal Herria da gure subjektu politiko, Euskal Herria oso eta bateratua- ren askatasuna baita gure helburu behinena. Horregatik, Euskal Herri osoa aintzat hartuko duen estrategia bat diseinatu behar dugu. Nahiz eta, Hego Euskal Herriko antolakundeak izanda, erronka potoloa den, gure helburua nazio estrategia eraginkor eta erreal bat sortzea da (antolaketan ere itzulpe- na izango duena).

Ezaugarritze konfederala ematen diogu Nazio Estrategiari. Estrategia kon- federalak, Abianen zehaztu moduan, hiru prozesu eratzaille aurreikusten ditu (Ipar Euskal Herrian, EAEn eta Nafarroan); eta Euskal Herriaren autoeratzeko eta autodeterminazio prozesua hiru subjektu erabakitzaileetan oinarritutako bat-egite prozesu gisa ulertu. Hiru eragin-eremu, hiru subjektu, hiru erritmo.

Estrategia konfederala oinarri, Gazte Antolakundetik, batik bat, ikuspegi nazionaletik lan egitea dagokigu, gure strategiak ezaugarritzen taktiko-

-konfederala izango duelarik. Horrek esan nahi du Antolakundeak errealtate soziopolitiko ezberdinak kontuan hartzen dituela eta momentu jakin batzuetan hainbat planek itzulpen propioa izango dutela, batez ere Nafarroan.

Nazio estrategiarantz aurrera urratsak emateko, herri agendari eta lurralde agendei funtzio zehatzak eman dizkiegu. Eta zentzu horretan, burujabetza kokatzen dugu herri eta lurralde agenden artean dagoen ortzi-muga komun gisa. Bien oinarrian dagoena burujabetzaren beharra baita, auzi territoriala.

- Herri agenda Herria irudikatu, gorpuztu, eraiki edota trinkotu, eta inposaturiko zatiketen gaintik, errealtate berriak sortzeko taktika zein estrategia multzoa da. Gazteriaren marko mentala aldatzeko aukera ematen digu: begirada altxatu eta Euskal Herria lurraldetasunetik harago, marko politiko batetik harago, nazio gisa irudikatzen laguntzen digu. Identitate sortzaile ere bada; nortasun bat garatzen delako, identitarioa den horretan balore eta borroka jakin batzuek gain, nazioaren kontzientzia txertatzeko aukera ematen baitu. Nazio sentimendu bat sortuz, estrategiaren baitan kohesioa irudikatzen du.
- Lurralde agendak zatiketa juridiko-politikoak marrazturiko eremuen baitan, botere kuota edo erabakimen/burujabetza maila handiagoa eskuratzeko taktika zein estrategiak dira. Sarritan, estrategia zehatzagoak eraikitzen garamatzate. Ondorioz, zenbaitetan errazago konektatzen dute lurraldetutako gazte eta problematikekin, gertuago sentiaraziz proiektua. Lurralde agendek herri agendari ere ekarpena egiten diotela ulertzen dugu, lurralde agendak garatuz herri agenda ere egiten ari baidakara.

Herri agenda eta lurralde agendak beraz, elkar harremanean eta elkarrekin pentsatu behar ditugu. Horretan datza estrategia konfederalak: bata ezin da aurrera eraman bestea eraman gabe, etengabeko tentsio batean egoitea beharrezkoa da. Izan ere, herri agendak lurralde agendak indartzen ditu eta alderantziz, egiten diren erreferentzien eta uztarketek bidez.

Datorren ziklo politikorako herri agenda indartzea da gure helburua, desoreka bat egin beharko dugu horretan. Lurralde agendak desagerrarazi gabe, noski, baina lurralde agendak problematika lekutuei gehiago lotuz. Balioak transmititu, identitateak sortu eta Euskal Herria irudikatuko duten dinamika nazional eta lurraldetuak indartzea dagokigu.

Herri agendaren eta lurralde agenden logikan, identitate eta subjektibitateak eraikitzea garrantzitsua izango da. Biak ala biak nazioarekiko atxikimendua sortu behar dute, eta horretarako alor identitarioari dagokion pisa emango diogu.

Lehen ere aipatu dugu Ernai Hego Euskal Herriko gazte antolakundea dela, baina gure gain hartzen dugula nazioa bere osotasunean irudikatu eta gazteriarengan ikuspegi hori txertatzeko ardura. Hori dela eta, Ipar Euskal Herrian sortzen dabilen subjektu berriarekin eta, batez ere, bertako kideekin harreman estua izateko erronka dugu. Ikasturtean zeharreko elkarlana sustatuko dugu ahalik eta modu egokienean bi errealitateei erantzunez; mugaz gaindiko bi antolakundeetako militanteak eta errealitateak ezagutuz eta Gazte Mugimenduaren inguruko plan partekatuak eginez. Ernai sortu zenetik helburu bera izanik: nazio erakundetzerantz urratsak ematea.

STUDIO

WAVE

6. FUNTZIONAMENDUA

Hurrengo lerroetan barnera begirako gure jardunaren nolakotasunean sakonduko dugu. Gure eguneroko funtzionamenduak, Gazte Estrategian aurrera urratsak emateari erantzuteaz gain, gure balioekin estuki lotuta joan behar du. Balio euskaltzale, feminista, kolektibo eta horizontaletarako tresnak sortu eta konpromisoak hartu behar ditugu.

Azpirarra berezia egin nahi diogu funtzionamendu feministarantz pausoak emateari: militantziak guztiontzako espazio segurua izan behar du, prozesuei eta erritmoei garrantzia handiagoa eman behar diegu, neska trans eta bollerak arduradun gehiago izateko tresna eta mekanismoak jarri behar ditugu...

6.1. ANTOLAKUNDE EREDUA

Ernai masa-koadro antolakundeak da, Gazte Estrategiaren beharrei erantzuteko bien arteko hartu-emanaren beharrezkoa baita. Masa izaera, Ezker Aurretziaren ondare politikoak, Ezker Independentistaren baitako antolakunde erreferente izateak eta dinamika politiko propioaren bitartez gazteriarrengan eragin eta hauek aktibatzeak ezaugarritzen du. Koadro izaera aldiz, hori guztia egiteko zein Gazte Frontean beharrezkoa dugun dinamizazio politikoak eskatzen duen militantzia trebatuak ezaugarritzen du. Hortaz, koadro politiko gisa hezteak izango da militanteon zeregina. Horregatik, antolakunde gisa bien arteko hartu-emanen mugitzen gara, bien ezaugarri onenak hartu eta gure eginez.

6.1.1. BARNE DEMOKRAZIA

Antolakundeak aldaketen beharra du; eta horietako bat da barne demokrazia indartzearena. Izan ere, iraganeko inertzietatik tiraka eta gure tradizio politikoak izan duen funtzionamenduarekin jarraitu dugu zenbait eginkizunetan, kasu batzuetan barne demokraziaren lausotzea eraginez. Aldaketetarako garaia da. Jakin badakigu egun batetik bestera ezin direla horrelako aldaketak gauzatu eta horregatik prozesu baten baitan kokatzen ditugu. Baina eman emango ditugu.

Antolakunde guztia busti behar duen elementu bat dela uste dugu. Zentzu horretan, ardurak kolektiboak da barne-demokrazia bermatzea. Antolakun-

dea aberastu, militantzia ahaldundu eta trebatu, eraikuntza eta jakintza kolektiboa zukutu, erabakiak partekatu eta horiekiko leialtasuna eta konpromisoa indartuko direla uste dugu. Hasiera batean kontrakoa iruditu arren, Ernai bera eraginkortuko du (nahiz eta eztabaidetan, prozesuetan... denbora gehiago igaro, epe ertainera fruituak emango dituelako). Baliabide eta forma oso ezberdinak hartuko ditu prozesu horrek, kongresu batean hasi eta bestelako eztabaida-hausnarketa-erabakiei lotuta. Hurrengo atalean sakonduko dugu horretan.

Beraz, militantzia ahalduntzea eta trebakuntza izango dira barne demokraziarako berme nagusienak. Horretarako, alde batetik, militantzia eredu kohesionatu bat beharrezkoa izango dugu; predisposizio, konpromiso, denbora... ahalik eta gehien eskainiko duena. Eta bestetik, jadanik sortuta ditugun zenbait espazio hainbat eztabaida eta hausnarketa emateko baliatzea.

Barne demokraziarantz urratsak

Espazioak. Garrantzitsua da eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko ditugun espazioak kolektibizatzea. Horrek ez du esan nahi erabaki orok espazio propio bat izango duenik, edota horretarako espazio berriak sortu behar ditugunik. Ditugunak edo irudikatzen ditugun horiek eraginkortu eta indartu behar ditugu: bereziki kokapen hutserako beharrean, eztabaidarako eta erabakimenerako espazio ere bilakatzearen zentzuan.

Horretarako tresnak beharko ditugu, erosoak izan behar dute espazio horiek eta baita aukera berdintasunean eraikiak. Espazio edo marko horretako kide guztiek ahotsa izateko bitartekoak eta metodologiak sortuko ditugu.

Espazio horietan, Ernairen ikuspegi orokorra lantzeak antolakundeak bera aberasten du. Beraz, herrialdeko motor edo mahaiak, unibertsitateetako markoak, eskualde komiteak... transmisio eta kudeaketa marko izatetik, Ernairen ikuspegi integralari ekarpena egiteko marko izatera igaroko dira. Horrek ez du esan nahi etengabeko eztabaida integraletan murgilduko garerik, behar den momentuan helduko diegula baizik. Eta horretarako, ezinbestekoa da Antolakundeak produkzio erritmoak errebisatu eta apaltzea. Logika kapitalista zisheteropatriarkalaren baitan erortzen baikara gu ere sarritan; eta prozesuei erreparatu beharrean, etekinari erreparatzen diogu gehienetan.

Eztabaidatzeko ezinbestekoa zaigu informazioa. Informazioa izatea boterea izatea da. Informazioaren kudeaketa ahalik eta egokiena egiteak militantziak eztabaidarako gaitasun handiagoa garatzea dakar. Beraz, norabide horretan, informazioa elkarbanatuz boterea orekatzera goaz.

Kontuan izan behar dugu etengabeko informazio saturazioa gure kaltera etor daitekeela. Etengabeko tentsioan egon beharko dugu behar adinako informazioa guztion eskura egon dadin, baina aldi berean gure jarduna kolapsatu ez dadin. Hala ere, informazioa eskuratu nahi duen edonork informazio hori bermatua izango du. Ikuspegi horretatik, Saretzen informazioaren kudeaketarako tresna baliagarria da.

Sarritan, maila lokalean barne demokrazia handiagoa izateko baldintza hobeak izaten ditugu. Hala ere, pausoak emateko beharra ikusten dugu oraindik. Herri eta auzoak eztabaidako espazio ere izan behar dira, ez soilik ildo praktikara eramatekoa: ildo orokorraren inguruko eta herriko/auzoko errealitatearen inguruko eztabaidak eta hausnarketak sustatu behar ditugu.

Logika horretan aurrera urratsak eman eta maila lokalean modu horretara jarduteko konpromisoa hartu behar dugu. Arduradun politikoak hautatzeko orduan esaterako, taldeak izan behar du eginkizun horretan ardura nagusia: egiturako kideekin batera hausnartu eta proposatuko da nork izan beharko lukeen; baina herri edo auzoak izan behar du erabakimena eta horren inguruko hausnarketa emateko ardura.

Bestalde, militantziak Antolakundearen jardun orokorrari ekarpena egiteko tresnak sortuko ditugu.

Honetaz gain, funtzionamendua eta antolaketaren blokeetan bere osotasunean barne demokraziaren filosofia modu transbertsalean presente izateko apustua egin dugu (eraketa ereduan, eskubide eta betebeharren planteamenduarekin, marko ezberdinen funtzioetan...), aldaketa horiek guztiak modu gradualean barne demokrazian sakontzeari erantzuten diote.

Azkenik, barne demokrazian aurrera urratsak eman eta garapen egokia izan dugula bermatzeko, horren gaineko balorazio ariketa bat egitea proposatzen da, bi urteren buruan garatuko duguna ponentziaren errebisio ariketaren baitan.

6.1.2. ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

Ernaiko militanteok eskubide eta betebeharrak ditugu. Eskubideak kolektiboak dira, Antolakundearenak eta hau osatzen dugun militante guztionak. Hortaz, batzuek garapen indibiduala izan dezaketen arren, Ernaik ikuspegi kolektibotik ardazten ditu eskubideak. Hain zuzen ere, betebeharrekin zuzeneko loturan daudela ulertzen dugulako, eskubide baten gauzapen indibidualak kolektiboarekiko betebehar batekin loturan joan behar baitu nahitaez.

Esan bezala, eskubide horietako batzuk modu indibidualean garatu daitezkeen arren, izaera kolektiboaren baitan ulertzen ditugu eta eskubideen gauzapena Antolakundearen kanpo zein barne jarduna hobetzeko izango da beti. Hau da, ez dira behar indibidualetik ardaztuko, kolektiboaren eta Ernairen mesedetara egongo dira.

Horrez gain, eskubide eta betebeharrez aritzeak guk amesten dugun jendarte eredura hurbiltzen gaituelakoan gaude. Euskal Herri aske, sozialista eta feministan norbanakoek eskubideak zein betebeharrak izango baititugu, unibertsalak eta kolektiboaren mesedetan garatuko lirajtekeenak.

Finean, eskubide eta betebeharrek gure barne bizitza eta militantzia eredia hobetu eta Antolakundeari ekarpena egiten diote. Hori horrela izanda, hurrengo eskubideak identifikatzen ditugu:

- Antolakundearen eztabaida prozesu eta espazioetan parte hartzeko eskubidea: 4 urterik behin egingo ditugun kongresuetan, eremukako eztabaida prozesuetan edota bestelakoetan.
- Antolakundearen jardun edo erabakien gaineko kexa, desadostasun edota ekarpenak proposatu eta erantzun arrazoitua jasotzeko eskubidea, eta hau berau bideragarri izateko prozedura bat egotea.
- Informazioa eskatzeko eskubidea. Edonork eskatu dezake informazioa eta informazio hori eskainiko da baldin eta militantziaren edota Antolakundearen jarduna hobetzeko logikan edo mesedetan bada.

Aurreko prozedura bera jarraituko da.

- Antolakundearen eztabaidak proposatzeko eskubidea. Horrek egoeraren arabera prozedura ezberdinak izango ditu. Hala eta guztiz ere, beti jaso beharko dira eztabaidaren mamia eta arrazoiketa proposamenaren.

Militante orok du eskubidea eztabaida bat proposatzeko eta erantzun bat jasotzeko, norbanako gisa, kolektiboan edo herriko talde bezala. Aurrez aipatutako prozedurari jarraiki egin beharko da ekarpena. Proposamenak bere erantzun arrazoitua jasoko du herrialdeko kideen bitartez eta, eztabaida emango den kasuan, proposamena egin duenarekin batera adostuko da eztabaidaren garapena zein izango den. Beraz, eztabaida horiek diseinatzeko momentuan, alde biko harreman ezinbestekoa izango da. Biltzarrak eta proposamena egin du(t)en kide(e)ak elkarlanean aritzeko konpromisoa dute.

- Antolakundea, taldea edota proiektu politikoa oztokatzen dituzten jarreraren aurrean militanteei prozedurak irekitzeko eskubidea. Tresna horren helburua arduradun politikoek egoera horien aurrean Antolakundearen irizpideen baitan jardun ahal izateko euskarri bat izatea da. Militante orok du egoera bat aztertu dadin proposatzeko eskubidea eta militante guztioi aplikagarria izango da.

Ezer baino lehen, kontuan izan behar dugu horrelako jarrerak saihestea dela gure helburua. Hori dela eta garatu ditugu, esate baterako, zaintza hirukoitzaren baitako konpromisoak edo sarrera prozesuen ordenazioak. Horretan jarri dugu eta jarri behar dugu arreta, militantzia eredu osasuntsu eta jasangarri bat eraikitzean, alegia. Hala ere, tresna horiek fruituak eman bitartean, horrelako kasuak gertatzen jarraituko dute. Horien kudeaketarako arduradun zein militanteontzat euskarri lagungarria da prozedura hau:

Antolakundea, taldea edota proiektu politikoa oztokatzea deritzogu militanteen betebeharrak modu sistematiko edo jarraituan ez bete zeari. Horrek, hain zuzen ere, taldekideekiko erantzukizun falta, taldearen funtzionamendu okerra eta proiektuaren garapena oztokatzea dakarrelako, besteak beste. Horren adibide dira derrigorrezko espazioetan modu jarraituan parte ez hartzea, herrian/auzoan hartzen diren erabakiak modu sistematikoan ez betetzea, modu sistematikoan Ernairen irudia publikoki kaltetzea, taldekideekiko jarrera desegokiak izatea...

Kudeaketari dagokionez, esan bezala, herri/auzo/eskualde arduradunentzako helduleku bat eskaini nahi da, kudeaketa zilegi egin eta tresna erabilgarri bat izan dezagun. Hortaz, eraketatik jasoko dugu egoeraren berri eta herri/auzo edo eskualde arduradunek baloratuko dute zein espazio ireki behar diren informazioa jasotzeko (garrantzitsua izango baita informazioa ikuspegi ezberdin eta kolektiboetatik jasotzea, begirada eta kontakizun ezberdinak entzuzkizunez aztertu beharko baititugu) eta gatazkaren kudeaketarako. Kasuan kasu, aurrera eraman beharreko prozedurak ezberdinak izango dira.

- Espazio seguru batean militatzeko eskubidea. Egunerokotasunean jartzotzen diren jarrera zapaltzaileen, botere-harremanen, eta bestelakoen aurrean, militantzia esparruak espazio seguru izateko eskubidea.
- Beto feministaren aplikazioa.

Antolakundearen jardunean etengabeko begirada feminista izateko apustua dugu eta eremu horretan sakontzeko neurriak garatzen gabil-tza. Hori bermatzen ez den kasuetan, ordea, beto feministaren tresna dugu eskuragarri: eztabaida edo erabaki baten gainean neska, trans eta bollera militanteok, ikuspegi feminista arrazoitua oinarri, erabaki bat eteteko eskubidea dugu. Beti ere, helburua guztiok ikuspegi femi-nista hori garatzea eta etengabe presentean izatea izango da.

- Formakuntza politiko eta ideologikoa garatzeko Antolakundeko militan-teok beharrezko tresnak jasotzeko eskubidea.

Eskubideekin batera, militante orok betebeharrak izan behar ditu, elkar lo-turan ulertzen baititugu kasu askotan:

- Antolakundea humanoki, ideologikoki eta ekonomikoki sostengatzea.
- Ardurak hartu eta betetzea.
- Zaintza hirukoitza bermatzea. Kideekiko, taldearekiko eta proiektuare-kiko arduraz eta erantzukizunez jokatzeko, eta baita militatzeko espazio seguruak sortzea ere.
- Gure bizi ereduetan militantziak behar besteko erdigunea hartzea eta horren baitako antolaketak bultzatzea, ahal den heinean (militantzia ereduaren atalean sakonduko dugu).

- Bilera, ekimen, mobilizazio edota Antolakundearen sortutako espazioa anitzetan asistentzia bermatzea eta horietan inizatibaz jokatzea.
- Formakuntza indibidual eta kolektiboan sakontzeko betebeharra izango du militante orok, formakuntza teorikoan zein praktikoan.
- Militante orok gure pribilegioen berrikuspena egiteko eta deseraikuntza prozesuetan subjektu aktibo izateko betebeharra, batez ere gizonezkoen deseraikuntzan arreta jarritz.
- Agente komunikatzaileak izatea, Antolakundearen ahotsa gu ere bagarrela barneratu eta zabalpenean aktibo izatea.
- Antolakundea publikoki babestu eta bere irudia zaintzea.
- Militantzia zikloak modu txukunean garatzea. Izan sartze mahaiak jasotzeko, ardura berri bat hartzeko edo uzteko, edota kide berrien transmisio eta elikadura politikorako.
- Antolakundeak eta militanteok ardura espazioetan gutxienez dagoen kidegoaren erdia neska, trans eta bollerak izatea bermatu behar dugu. Jakinda horretarako espazio horiek erosoak izan behar direla eta ardura horiek hartuko dituzten emakumeek euren militantzia modu eroso batean garatu ahal dutela bermatu behar dugula, ez dela izendatze hutsa. Eta mutilez soilik osatuta dauden taldeetan plangintzan lehentasuneko izango da neska, trans eta bollerak ere taldean integratzea, horretarako beharrezko prozesuak garatuz.

6.2. ERAKETA EREDUA

Eraketa Ernairen lan eremu garrantzitsuenetakoa da, maila lokala indartzeko tresna nagusia: elikadura eskaintzeko, auzo eta herriak egiturarekin lotzeko, transmisiorako, zenbait eztabaida emateko... Hori horrela izan arren, eraketa ereduaren inguruko hausnarketa gutxi egin ditugu Ernaik bete dituen 9 urteetan. Ez dugu modu zurrun edo itxi batean ulertu behar; izan ere, tokian tokiko errealitatera egokitu beharreko tresna dela uste dugu. Baina eraketa garatzeko logika orokorraren eta ereduaren inguruan hausnartu eta sakonduko dugu.

Hasieratik kontuan hartu beharreko zerbait da ez dagoela eraketa eredu ideal bat eta bakarra, taldearen arabera egokitzen dena da eraketa eredu-

rik onena. Ez maiztasuna, ez eskala... ezin da guztiz homogenea izan eta horregatik beharko du autonomia maila bat, behar bakoitzera egokitzeko.

Oinarrian eraketa eredu politikoa jarri behar dugu. Eztabaidatik abiatu eta gako politikoak atera ahala, hausnarketarako markoa izan behar da; eta ez askotan gertatzen zaigun bezala, transmisiorako kanal hutsa. Horretarako beste bide batzuk baliatuko ditugu. Eraketak hausnarketarako, eztabaidarako eta plan edota plangintza zehatzak garatzeko marko izan behar du, militantzia ahaldundu eta trebatuko duena.

Ezinbestekoa izango da norabide bikoitzekoa izatea: egituratik herrira/auzora eta herritik/auzotik egiturara. Lehen aipatu moduan, militantziaren iritziek, kezkek, ezinegonek... Tokia izan behar dute Ernain, antolakundea bera aberasten dutelako. Eraketa da horretarako marko egokiena. Horregatik, eraketa bakoitzaren helburu zehatzak alde aurretik adostea komeni da, ez dadin informazio trukaketara soilik mugatu. Eskualde komiteetan edo herrialdeko mahaietan horrelakoen inguruan hitz egin eta eztabaidatzeak ildoari ekarpena egiteko eta trebatzeko bidea izateaz gain, Antolakundearekiko atxikimendua eta erantzukizuna handitzen ditu. Era berean, Antolakundeak eraketa bidez informazioa eta bitartekoak eskainiko ditu zenbait hausnarketa elkarrekin egiteko.

Eraketa zirkuituari dagokionez, Ernai ahalduntzearen eta koadroak indartzearen ikuspegitik lehenetsiko dugun formula ondorengoa da: herrialdeko kideek eskualde arduradunekin egitea eta eskualde arduradunek herri/auzo arduradunekin egitea; lana kolektibizatuz.

Eskualdeko komiteak (eskualde arduraduna(k) eta herri/auzoetako arduradunak) egotea bultzatu behar dugu baldintzak dauden lekuetan. Dinamizatzaile ahaldunduak izan behar gara, eskualdea dinamizatzen, eskualdeko baldintzetara egokitzen eta Antolakundearen eta maila lokalaren errealitatea uztartzen jakingo dutenak.

Tresna, mekanismo eta beharrak

Denbora gehiago eskaini behar diogu eraketari. Eraketa kualifikatua egin behar dute herrialdeko kideek. Horretarako ezinbestekoa da aurrez sistematizatuta izatea eta eraketarako baliabideak zein denbora izatea.

Zentzu horretan, eraketa ereduak homogeneousatu eta sistematizatu behar dugu: gutxieneko maiztasuna zehaztu, akta edo jasoketa ereduak antze-

koagoak bihurtu... Hala ere, eraketak tokian tokiko baldintzetara moldatzeari eta ekarpena egiteari erantzun behar dio.

Orain arte erabili izan ditugun logika batzuk indartu eta sustraitzea lortu behar dugu, batez ere herrialdeen ikuspegitik. Herrialde bilguneak indartu, herrialde ekipoak hausnarketarako espazio ere bilakatu, herrialdeetako motorrak sortu eta indartu... Herrialde ekipoak lehentasunezko espazio bihurtu behar ditugu, bertan emango ditugulako Antolakundearen ikuspegi integralaren inguruko zenbait eztabaida Eta, nola ez, eskualdeetako koa-droak sortzen laguntzen dutelako, Ernai indartuz.

6.3. MILITANTZIA EREDUA

6.3.1. ERNAIKO MILITANTEON KONPROMISOAK

Eskubide eta betebeharren inguruan jardun dugu aurrez, baita Antolakundearen funtzionamendu egokirako duten garrantziaz. Horiez gain, estrategia azken bururaino eramateko, ezinbesteko balioa da geurean konpromisoarena.

Gure proiektu politikoarekin bat egin eta azken bururaino eramateko konpromisoa izan behar dugu Ernaiko militanteok. Guztiok gure herriarekiko/ auzoarekiko, Antolakundearekiko eta proiektu politikoarekiko erabateko konpromisoa izan behar dugu; ondoren, gauzapenerako ardura ezberdinak egon arren. Horretarako garrantzitsua da militante bakoitzak gure funtzioa zein den argi izatea. Nahiz eta misioa aldakorra izan daitekeen sortzen diren proiektu, eremu edo arduraren arabera, funtzioak definitu eta horiekiko konpromisoa hartzea dagokigu. Hortaz, ardura ezberdinak badaude ere, erabateko konpromisoa izan behar dugu ardura hauekiko.

Militantziarekin konprometitzen gara, eguneko 24 orduetan gara militante. Pertsonala politikoa dela ulertzen dugu, iraultza gugandik hasten dela. Horregatik, ezinbestekoa zaigu gure eguneroko jardunean zenbait kontu presente izatea eta konpromisoak hartzea:

Batetik, feminismoarekiko kontzientzia eta pribilegioen gaineko hausnarketak eta lanketak indartu behar ditugu; zaintzaren ikuspegitik, gure jarrerren eta harreman ereduaren errebisio bat eginez. Zentzu horretan, Urrats Feministarekiko konpromisoa hartzen dugu. Baita gizonezkoek ere; eta konpromiso hori indartzea dagokigu.

Euskara da hurrengo alorra. Ukaezina da erabilerari dagokionez atzerapausoak ematen ari garela. Norbanako zein kolektibo moduan, eremu informal eta formaletan, euskararekiko erabateko konpromisoa hartu behar dugu.

Bestetik, kontsumoaren eta ikuspegi ekologistaren ardatza presente izan behar dugu. Amalurrarekiko errespetuz, bizi eredu jasangarriak garatzeko konpromisoan aurrera urratsak eman behar ditugu.

Militante gisa pentsamendu kritikoa sakondu behar dugu. Ingurunearekin konektatuta egon eta etengabe kritikoki aztertzeke eginkizuna dugu, (auto) formakuntza lantzearekin batera. Kritikoak izateaz gain, langileak, umilak, diziplinadunak, inizatibadunak, zintzoak, arduratsuak, konprometituak eta zaintzaileak ere izan behar gara. Eta militanteon konpromisoa eta ardura da militantzia esparruak espazio seguru bilakatu eta jarrera zapaltzaileak deuseztatzen ditugula bermatzea ere.

Konpromiso horiez gain, garrantzitsua iruditzen zaigu militantziak gure bizitzan erdigunea hartzea. Horrek ez du esan nahi inola erez eguneko 24 orduak bileretan edo pankartak egiten pasa behar ditugunik. Baina gure bizi-antolaketa garatzerako momentuan militantziak garrantzia berezia hartu behar du. Pertsona orok bezala, guk ere egunen, asteen eta ikasturtearen antolaketa egiten dugu: atsedenerako momentuak, ikasketak, lana, aisialdia... Bertan militantzia kontenplatu eta zaindu behar dugu. Dagokion kalitatezko denbora eskaini behar diogu, ezin da zerrendara gehitzen dugun egiteko bat gehiago soilik izan.

Askotan azpimarratu dugu militantzia gozagarria bezain sufritua dela, halakoxea delako. Baina guk jendartea, Herria eta mundua aldatzeko militatzen dugu. Eta horrekiko konpromisoa dugu, horrek betetzen gaituelako, ez dugulako autokonplazentziaz militatzen. Egungo gizarte indibidualista eta likidoan balio kolektiboek duten indarra berretsi eta militantzia bizi garen mundu ezegonkorrerako helduleku gisa ulertzen dugu.

6.3.2. MILITANTZIA ZIKLOAK

Ernaiko militante izateko ezinbesteko baldintza izango da sartze mahaietan parte hartzea. Sartze mahaiak militantziaren hasieran kokatzen ditugun formakuntza saioak dira eta bertan oinarrizko jakintza landuko dugu. Formakuntzaren atalean (6.4.3.) sakonduko dugu horretan.

Ernaiko militante orok militantzia zikloaren pauso eta prozesu guztiak bete behar ditu. Modu erabat lineal eta itxian ulertzen ez badugu ere, militantzia modu osasuntsuan ematen dela bermatzeko, zikloaren fase ezberdinetatik igaro beharko dugu. Zikloen garapen egokia Antolakundeko kide guztion ardurara da. Norbanakoak, ziklo bakoitzean eta etengabean ikasteko eta gaitasunak garatzeko prestutasuna izango du eta taldeak zein Ernaik horretarako bitartekoak eskaini eta transmisio ariketak modu txukunean garatuko ditu.

Hiru fasetan banatuko genuke Ernaiko militantzia zikloa: sarrera (antolakundean hastapena eta ardura berri bat hartzea), ardura egonkorreko fasea eta antolakundetik irteera edo amaiera.

Sarrera diogunean, bi momenturi egiten diogu erreferentzia: Ernain sartzeari eta ardura berri baten hasierari. Militante berriek Gazte Antolakundearen oinarrizko jakintza eta antolakundearen oinarri politiko eta ideologikoak lantzeko sartzeko mahaiak jasoko dituzte. Herriko/auzoko arduradunaren funtzioa izango da sarrera horiek diseinatu eta jarraipena egitea. Herri edo auzoetan talde berriak sortzerakoan eta transmisio hori egingo duen inor ez dagoen kasuetan, eskualdearen edo egiturako kideen esku geratuko da horien lanketa.

Ardura berri bat hartzerakoan, aurreko arduradunarekin transmisio ariketa oso bat egin beharko dugu, gure buruak kokatzeko eta hainbat formakuntza jasotzeko. Horretarako, Ernaik tresnak eskainiko ditu ahalik eta modu egokienean eman dadin ardura aldaketa eta jarduna eten ez dadin.

Ardura egonkorra. Momentu horretan gure militantziaren une gorenean egongo ginateke: behar besteko ezagutzarekin, esperientziarekin, hainbat espaziotan parte hartzen... Urte horietan zehar ardura eta funtzio ezberdinak izan ditzakegu, gure ezagutza eta interesak zabalduz. Beti ere, taldearen erantzukizuna izanik eta beharrezko neurriak hartuz.

Ardura aldaketak egiten ditugunean garrantzitsua izango da prozesu gisa irudikatzea. Arduraren amaiera eta hasiera modu antolatuan eta eraginkorrean eman behar dugu. Horretarako, jarraibide bat diseinatuko da ardurak edo funtzio zehatzak uzteko eta kideek lekukoa hartzeko.

Amaiera prozesuetan asko zaindu beharreko kontua da ardurak gradualki utzi eta ondorengoei transmisio egokia ematea. Horretarako, errelebo plan zehatzak osatuko ditugu, gure erreleboekin konpartitu eta pixkanaka eginez prozesu hori.

Ziklo hauek emateaz gain eta ziklo hauek ematen ari diren bitartean, militante eredu egoki baten garapena ematen dela bermatu behar dugu antolakunde gisa. Antolakundearen funtzio behinena hurrengo 50-60 urteetarako militante konprometitu, prestatu, kualifikatu, konbentzituak... eratzea baldin bada, garapen hau ematen ari dela bermatzeko tresnak behar ditugu. Tresna hauek moldagarriak izan behar dira, tokian tokiko errealitate eta beharretara egokitzeko. Izan ere, herrietako eta auzoetako taldeak dira militantziaren gehiengoak biltzen duten espazioak eta militante gehienontzako hezkuntza eta hazkuntza eremuak. Militante bakoitzaren ziklo bakoitza denboralizatzeko, denboralizazio horretan garatu beharreko kompetentziak, baloreak, deseraikuntza prozesuak... zerrendatzeko, horiek garatzeko prozesu eta tresnak adosteko eta ebaluazio sistema bat inplementatzeko beharrezko diren tresnak sortzeaz ari gara. Ez ikuspegi homogeenoa, zurrun eta are gutxiago punitibo batetik, baizik eta gerora gure estrategiak (eta beraz egiturak) exijitzen dizkigun kompetentziak garatzen ari garela ziurtatzeko, garatu ezean zergatiak indentifikatu eta konponbideak jarri ahal izateko helburuarekin.

Gazte Antolakundeko kideon militantzia ez da gazte zikloarekin amaitzen: gazte konpromisoa bizitza militante oso baten hasiera da, hamaika borroka eremurentzako eskola. Horregatik, Ernaiko zikloa amaitutakoan ere, Ezker Abertzalean, Ezker Independentismoan edota bestelako herri mugimenduetan militatzen jarraitzeko bultzada emango du Antolakundeak.

6.3.3. ERNAIKO MILITANTEAK, EHULEAK

Ehuleak izan behar dugu Ernaiko militanteok. Definizioz *ehunak ehotzen dituen langileak* dira ehuleak; material ezberdinekin, forma ezberdinetako ehunekin, korapilo mota ezberdinak eginez... oihalak eskuz sortzen dituzten langileak. Historian zehar emakumeek bete izan dute itzalpekoa baina herriarentzat oinarritzakoa den langintza hori.

Guk ere horrela ulertzen dugu militantzia: hamaika borroka eta ideietan murgildu; subjektu, espazio eta aldarri ezberdinak txirikordatu; dimentsio ezberdinak dituzten problematika eta alternatibak elkar lotu eta guztiak bat eginda osatzen dugun borroka. Eguneroko jarrerak ere kontuan izan behar ditugu, hau da, teorikoki defendatzen dugun bizi eredu alternatiboa praktikara eraman behar dugu. Hala nola, lokalean kontsumitu, aisialdi alternatiboa kontsumitu... Egindako lan guztiek oihal berera eramango gaituzte: Euskal Herri aske, sozialista eta feministara.

Horregatik ulertzen dugu ehuleen jostorratza bezain zorrotza den tresneriarekin eta material ugari elkar lotzeko gai diren korapilo indartsuekin osatu behar dugula gure lana, eta ondorioz, baita gure militantzia eredu ere.

Herria izan behar dugu, eta Herria(n) e(ra)gin. Ernaiko militanteok Herria izan behar gara, gu Herrian gaudelako. Baina ez da aski izan eta egotearekin. Herrian, gure eguneroko espazioetan, eragitea da gure anbizioa; gure bizitza ereduarekin eta txinaurri lanaren filosofiarekin bat eginez hartu beharreko jarrera eta konpromisoerik buruz ari gara, alegia.

Gure kabuz bakarrik ezin dugu Herria askatu, herriarekin batera egingo dugu. Eta horretarako garrantzitsua da gure herri eta auzoetan egotea, gure herritar eta auzokideekin harremantzea, hitz egitea, iritziak eskatu eta elkarlanak sustatzea. Ernaiko militanteok gazte eta herri mugimenduetako egitasmoetan aktibo izan behar dugu, ilusioz eta umiltasunez lan eginez.

Garrantzitsua da, zentzu horretan, agente komunikatzaileak izatea. Gure oinarri politikoak eta balioak eraman behar ditugu horren politizatuta ez dauden eguneroko espazioetara (lagunartera, familiara, kalera...). Horietan guztietan ere gure ideia, iritzi eta dinamiken berri eman behar dugu.

80/20 filosofia: Ehuleentzat korapilo batzuek garrantzia berezia dute. Oinarri sendoa eraiki ahal izateko arreta eta inbertsio berezia behar duten txirikordak direlako. Horiek, guretzat, gazte mugimenduak eta bertan garatzen dugun militantzia dira. Ez dugu banatuta ulertzen Gazte Mugimenduan eta Ernain egiten dugun jarduna: batetik, Ernai ere Gazte Mugimenduaren parte delako, eta bestetik, Ernairen militanteok gazte mugimenduetako beste espazio batzuetan ere parte hartzen dugulako. Gure estrategiak herria izatea, Gazte Mugimendua izatea, eta eragitea du oinarri. Hori gauzatzeko indar inbertsio berezia egingo dugu Gazte Mugimenduan: gure militantziaren denbora, indar, inbertsio... gehiena gazte mugimenduetan garatu behar dugu. Gazte Mugimenduaren eta Ernairen jarduna noranzko berean ulertuta.

Txinaurri lana izango da hori egiteko bidea. Gu ez gara inor baino gehiago, ezta gutxiago ere. Umiltasunetik eta harrokeriarik gabe Gazte Mugimendua dinamizatzeko ardura dugu; gu geu ere parte garela eta ikuspegi horretatik abiatzen garela kontuan izanda. Isilpeko lanez eta inizatibaz jokatzeko hauspotu behar dugu Gazte Mugimendua, eta gure auzo eta herrietan erreferentziazko kideak bilakatu. Baina kasu, hori ez dugu norbanako gisa egiten dugun zerbait bezala ulertzen, kolektiboki egin behar dugu. Horregatik, Ernaiko taldeari ere badagokio Gazte Mugimenduaren inguruan hausnartzea.

Zaintza hirukoitza

Ernaiko kideok ez gaude sistemaren eragin mekanismoetatik salbu. Indibidualismoa, produktibitatea, erritmo frenetikoak, bereziki emaitzari begiratzea... Sarritan sistemarekin zuzenean bat egiten duten zenbait inertzia erreproduzitzen ditugu guk geuk ere.

Horren aurrean, militantzia ereduaren atalean behin baino gehiagotan aipaturiko balioen eta kolektiboaren alde jokatu behar dugu. Militantzia norbanakook osatzen badugu ere, kolektibo baten bidez proiektu bat eraikitzeke esparrua baita. Horregatik, garrantzi bereko hiru ardatzen elkar loturak osatzen du zaintza hirukoitza: nia, taldea eta proiektuarenak.

Hiruen arteko orekan datza zaintza hirukoitzak. Bat kenduz gero, beste biak erori egiten dira. Niaren zaintza albo batera uzteak taldearen funtzionamenduan eragin negatiboa du, eta taldea ez badago egonkor edota ez badago osasuntsu, horrek proiektuan eragingo du. Talde osasuna zaintzen ez badugu, nekez lortuko dugu gustura lan egiteko eta anbizioz jokatzeko talde bat, proiektu bideragarri eta eraginkor bat. Eta ondorioz, proiektua bera eta baita nia ere kaltetuko ditugu. Eta niaren edo taldearen osasunari bakarrik erreparatzen badiogu, ezingo dugu proiektuan aurrera egin.

Azkenaldian indartzen dabiltzan balio neoliberalak nia erdigunean kokatzera bultzatzen gaituzte, kolektiboa eta proiektuaren kaltetan. Guk, ordea, balio horien kontrara, norberaren zaintza taldearekiko eta proiektuarekiko konpromiso gisa ulertzen dugu; eta ez indibidualismo hutsal moduan. Hiru ardatzen arteko tentsioa onartu eta oreka mantentzeko apustua egiten dugu.

Zaila izaten da aipaturiko hiru ardatzen baitako oreka egokia bilatzea, ertz asko ukitzen dituen eta erabat transbertsala den gaia baita. Horregatik, zenbait tresna eta baliabide jarriko ditugu hurrengo hilabeteetan praktika-
ren bidez zaintza hirukoitza zaindu dezagun.

- **Urrats Feminista:** barne prozesuen atalean sakonago azalduko dugun bezala, urratsaren helburuetako bat militantea eraldaketarako subjektu bilakatzea da. Zaintzaren eta zaintzaile izatearen interpelazioa ere bilduko du horrek: nork zaintzen duen nor eta zaintza hirukoitza erreala eta guztion gain dagoen zerbait izatea nola lortuko dugun.
- **Hainbat tresna praktikoa:** ikasturte hasierako plangintzatze ariketetan, ikasturte erdiko berplangintzatzeetan eta ikasturte bukaerako balora-

zioetan zaintza hirukoitzaren atalari garrantzia emango diogu. Nia, kolektiboa eta proiektuaren oreka bermatzera bideratuak egongo diren ariketak sortuko ditugu (arduren errebisioak, asistentziak...). Horrez gain, zaintza hirukoitzaren bermeen mesedetara egongo den bitarteko kutxa bat sortuko dugu. Tresna horrek talde bakoitzaren beharren inguruko ariketak jasoko ditu eta modu iraunkorrean landuko ditugu.

Zaintza genero ardatzak zuzenki zeharkatzen duen elementua da. Horregatik landu behar dugu ikuspegi feminista batetik. Taldearen eta taldekideen zaintza ikuspegi kolektibo eta komunitario batetik jorratuz eta ez neska, trans eta bollera militanteon gain utziz.

6.4. BARNE LERROAK

Ernaik Gazte Estrategia eta kanpo jardun eraginkorra izan dezan, ezinbestekoa da barne mailako lerro sendo eta indartsu bat izatea. Ingurunea irauli eta eraldatzeko, subjektuaren beraren eraldaketa bat beharrezkoa baita. Antolakundea bera barnetik eraldatzeko, formatzeko eta komunikazioa eraginkortzeko hainbat tresna eta espazio garatu ditugu:

6.4.1. BARNE PROZESUAK

Barne Prozesuen bidez militanteon eta Ernairen eraldaketa lortu nahi dugu. Balore iraultzaileen inguruko oinarrizko formakuntza bermatzeaz gain, gure jardunean eta jarreretan aldaketa bat ematea da prozesu horien helburua.

Definizioz, dimentsio indibidual zein kolektiboa dute Barne Prozesuek, norbanakoaren eta taldearen eraldaketa bat dakartelako. Izan ere, bestelako eredu bat eraiki nahi duen antolakundeak beste eredu horren ispilu izan behar du; eta hori da gure apustua, izaera transbertsalarekin lantzea.

6.4.1.1. BARNE PROZESUAK PROPOSATZEKO PROZEDURA

Militante orok du Barne Prozesuak proposatzeko aukera. Beti ere, lehenetik aipatutako definizioarekin bat egiten badute eta horren garapenerako konpromisoa hartzen bada. Horiek proposatu, eztabaidatu eta garatzeko momentu aproposenak kongresuak eta kongresu tarteko plan politikoen osaketak dira. Hala ere, edozein unetan egongo da proposamenak egiteko atea zabalik, eskubideen atalean azaldutako prozedurari jarraituz.

Biltzarrak, prozesuen garapen egokiaren eta egingarritasunaren mesedetan, beharren eta momentu organizatibo zein politikoaren arabera ari-keta bat egingo du, Ebazteko zein barne prozesu eta noiz martxan jarri. Zentzu horretan, Biltzarra da zein barne prozesu, zein unetan eta zein dimentsiorekin militantzia osoari proposatzeko ardura duena. Irizpidez, urte berean bi prozesu batera abiatzea saihestuko da; beti ere, izango duten dimentsioa kontutan hartuta eta unean-unean baloratuz.

6.4.1.2. URRATS FEMINISTA

Urrats Feminista izugarritzko tresna izan da Ernaik ikuspegi eta jardun feminista txertatzeko, maila nazional zein lokalean. Azken urteetan baina, gaiarekiko destentsionamendu bat egon dela sumatu eta hainbat espaziotan diagnostiko partekatu bat egin ondoren eta estrategia feminista baten garapenaren aldeko apustua kontuan hartuta, Urrats Feministaren beharra ikusi dugu. Gure baitako bigarren iraultza feminista baten beharra baitugu.

Urratsaren helburua Ernaiko militanteok eraldaketarako subjektu bihurtzean datza. Gure jarreraren eta praktiken errebisiotik hasi, eta taldea zein Antolakundea bere osotasunean feminista izan dadin, formakuntza eta hausnarketarekin pausuak ematea. Kongresuan urrats hori ematearen konpromisoa hartu behar dugu eta datorren ikasturtean martxan hasteko baliabideak eskaini.

6.4.1.3. EUSKARA

Azken urteetan, Ernain modu nabarmenean suma genezake euskararen erabileran emandako atzerapausoa. Geroz eta joera handiagoa dugu gaztele-raz aritzekoa, euskara toki askotan bilerak egiteko hizkuntza hutsa da (eta zenbait kasutan hori ere ez), eremu informaletan bestelako erdarak entzuten ditugu... Horregatik, erabilerari dagokionez eta, lehen aipatutako balore iraultzaileekin batera, euskara eta euskaltzetasunari bere tokia eman, barne prozesu bat abiatzea proposatzen dugu. Antolakundean balio politikoa eman eta prozesua datozen hilabeteetan abiatzeko beharra ikusten dugu, Herri euskalduna gugandik ere hasten delako.

6.4.1.4. TRANSMARIBIBOLLO

Urrats Feministarekin gertatu moduan, egun Urrats Transmaribibolloaren beharra agerikoa da. Militantzia osoa busti behar gara borroka horrekin eta horretarako formakuntza eta deseraikitze prozesuz zipriztindu behar gara.

Barne prozesu horren helburuak militante orok zisheteroaraua zalantzan jartzea, formakuntza jasotzea, Antolakundeak dituen praktika zisheteroarautzaileak errotik identifikatu eta deseraitzea, eta kolektibo transmaribibolloarentzat antolakunde segurua eta eroso bilakatzea dira. Aldi berean, emandako hausnarketa, formakuntza eta eztabaidetatik gure proiektu politikoa elikatzeke beharra ere sumatzen dugu.

6.4.2. EKOLOGISMOAREKIKO KONPROMISOAK

Proiektu politikoan eta Gazte Estrategian behin baino gehiagotan aipatutako borroka izan da ekologismoarena. Orain artean ezer gutxi produzitu dugu maila teorikoan ekologismoari buruz; eta gure praktikak ere ez ditugu zalantzan jarri ikuspegi horretatik. Baina, testuinguruari begiratuz gero, ezinbestekoa iruditzen zaigu afera horrekiko konpromisoak hartu eta martxan jartzea. Hiru izan dira hurrengo urteetarako identifikatutakoak:

- Batetik, ekologismoari lotutako formakuntza garatuko dugu. Belaunaldi-erronka horri neurria hartu eta diskurtso zein teorizazio propioak garatzeko apustua egiten dugu.
- Bigarrenik, Gazte Estrategiaren baitan lan eremu gisa kokatu eta hurrengo urteetan Nazio Eraikuntzaren baitako lerro gisa landuko dugu. Gazte Estrategiak ekologismoarekiko izan beharreko garapena fintzen joango gara, praktikara jauzi egiteko anbizioarekin.
- Hirugarrenik, Ernaik eredu jasangarriago baten bidean konpromisoak hartzen hasteko ariketa abiatuko du. Gure ekimenetan elikadura burujabetza sustatuz, material berrerabilgarriak eta birziklagarriak erabiliz...

6.4.3. FORMAKUNTZA

Azaldu dugu Ernaiko militanteok ikuspegi kritikoa izan behar dugula; eta horretarako ezinbesteko tresna da formakuntza. Zentzu horretan, autoformakuntzarako zein formakuntza kolektiborako espazio eta bitartekoak eskaini behar ditu Antolakundeak. Formakuntzaz ari garenean, ez dugu formakuntza teoriko gisa soilik ulertzen; baizik eta modu transbertsealean, teorikoa ez ezik, bestelako trebakuntzarako espazioak ere eskaintzeaz ari gara.

Asko dira Ernaik modu trinkoan eskaintzen dituen formakuntzarako tresna eta baliabideak:

- Hasi berrien saioak eta liburuxkak: kide berriek Ernain sartzen diren urtean saio hauek jaso behar dituzte, antolakundearen oinarri ideologiko eta politikoak jasotzeko (dinamizazio politikoak; ekimentza eta segurtasuna; I. Urrats Feministaren laburpena; Ezker Abertzalearen bilakaera; pentsamendu kritikoa eta materialismo dialektikoa; materialismo historikoa eta gazte iraultza...). Jada sortuta dauden materiala da, baina Kongresu osteko erronka da edukia gaurkotu eta egungo beharretara egokitzea, hauek trinkotzearekin batera.
- Eskola Politikoa: Antolakundeko formakuntza eta hausnarketa orokorrak emateko espazioa da, unearen eta beharraren baitan lantzen ditugu gai batzuk ala besteak. Militantzia osoari bideratua da eta udara hasieran egin ohi ditugu.
- Eskola Feminista: lerro feminista definitu eta momentuan eremu horrekiko ditugun beharrak lantzeko espazioa da. Militantzia osoari bideratutakoa da.

Gure egunerokoan txertatuta dauden espazio eta baliabide horiez gain, unean uneko beharren arabera formakuntza saio berezituak eskainiko dira. Dimentsioaren eta beharraren baitan, eskala ezberdinetan. Datorren ikas-turteei begira Euskal Sozialismoaren inguruan sakontzeko espazio eta bitartekoak sortzea da erronka zehatz horietako bat. Ernaiz gairikiko bestelako formakuntza espazioak ere bultzatuko ditugu eta hauetan parte hartzea indartuko dugu; bereziki, Iratzar Fundazioarekin elkarlanean garatzen diren Iparrorratza eta KLIK saioak.

6.4.4. TRESNAK

Indarkeria Matxistaren Kontrako Barne Protokoloa

Ezker Abertzaleak indarkeria matxista kasuei aurre egiteko protokolo propio bat garatu du. Oinarrian eraldaketa eta erreparazioa egonik, gure espazioak seguru bilakatzea helburu duena. Indarkeria matxistaz hitz egiten dugunean patriarkatuak zapaltzen duen gorputz ororen inguruan ari gara; horregatik, gorputz guztientzako egokitua dago protokoloa.

Indarkeria kasu orok oso forma ezberdina hartzen du; horregatik hainbat tipologia eta trataera proposatzen ditu tresnak, egoera bakoitzari aurre egin ahal izateko. Hiru erpin lantzea du helburu protokoloak. Kasuan kasu forma bat edo beste hartzen du, erpin bakoitzaren garapenari dagokionez, eta

baita prozesuari dagokionez ere. Hau da, erasoia jasan duenaren, erasoia egin duenaren eta komunitatearen arteko prozesu berezituak aurreikusten ditu tresnak; urratsak ere logika horren baitan aurreikusiz.

Tresnak indarkeria matxistaren kasuen aurrean kudeaketa koherente eta kolektiboa burutzen laguntzea du xede. Zer egin, nola, zergatik eta nor(tzu) ekin erabakitzen lagunduko digun euskarri praktikoa da.

Saretzen

Antolakundearen barne funtzionamendua eta komunikazioa ordenatu eta eraginkortzeko tresna da Saretzen. Orain arte, Barne Sareak betetzen zituena funtzioak eta Antolakundeko hainbat behar asetzeko erabili dugu: gai-ordenak eta aktak bidali, izen emateak, zentsuak eta inkestak bete, zirkularrak helarazi... Beharren arabera hainbat funtzio beteko ditu .

Barne komunikaziorako tresna nagusia izango da, egunerokotasunean militantziaren eta egituraren arteko komunikazioa bermatuko duena. Horrek ez du esan nahi orain arteko eraketa kanalak ordezkatzera datorrenik; kontrara, horiek indartzeko tresna da. Horregatik, derrigorrezkoa izango da militante orok Saretzen izan eta erabiltzea.

WE
MAKE
TOOLS
THAT

7. ANTOLAKETA

7.1. ANTOLAKETA MARKO ETA ARDURAK

Atal politikoa zein funtzionamenduaren atala garatu ondoren, azken atal honetan Ernairen antolaketa zehatza azalduko dugu. Atal honetan murgildu aurretik, bi argipen egingo ditugu.

Bestetik, Ernairen antolaketa ereduaren eta estrategia politikoaren garapean funtsezkoak diren eremuei lotuta, ideia bat azpimarratu nahiko genuke: gure estrategia politikoa garatzeko, herri eta auzoak eta Nazio Eraikuntzari lotutako eremu politikoa dira indartuko ditugunak. Hausnarketa hori ez da berria, baina garrantzitsua da norabide horretan berrestea, horren indartzeari lotuta egituratzeko antolaketa eredu.

7.1.1. ERNAIREN ZUZENDARITZA

- **Biltzarra:** Ernairen zuzendaritza papera betetzen duen espazioa da. Epe luzera begirako eztabaidak eta erabakiak hartzeko markoa. Estrategiaren ertz guztiei lotutako hausnarketak ematen dira bertan; lerro zentralaren ingurukoak, zein erdigunean ez dauden eremuei lotutakoak.
- **Biltzar Zabala:** Gazte Estrategiaren norabidean eragin zuzena duten hausnarketa eta erabakiak hartzeko markoa da, strategiaren muinean dauden gaiak lantzeko.

7.1.2. KOORDINAZIO ETA ERAKETA MARKOAK

Antolakundearen ildo politikoaren garapena, horri lotutako kudeaketa eta koordinazioak eta eguneroko zuzendaritza funtzio betetzen duten markoak dira.

- **Idazkaritza:** Antolakundearen jarraipenerako, ordenaziorako eta kudeaketarako markoa da. Antolakundearen lantalde eta markoen jarraipena, eztabaiden ordenazioa eta horien erritmoak zehazteaz arduratzen da, baita errelebo prozesuak zaintzeaz ere.

- **Idazkaritza Zabala:** Biltzarretako ondorioak egutegian kokatu eta egutegi horretako egitekoak ordenatzen dituen markoa da, erritmoak markatuz. Egiturako transmisioarekin lotuta dauden gaiak landu, dinamika nazional eta espezifikoei jarraipena egin, hainbat eremuren egoera eguneratu edota lurraldearen araberrako hausnarketak kokatzeko espazioa da.
- **Idazkaritza Feminista:** Ernain modu transbertsalean feminismoa lantzeko espazioa da. Bertan, feminismoarekin lotura duten markoen jarraipena egiteaz gain, logika komunak eraiki eta bustitzen gaituzten prozesuen irakurketa feministak egiten dira. Bestalde, neska, trans eta bolleron arteko aliantzak sortu eta feminismoak erdigunea hartzen duela bermatzeko espazio ere bada.

Herraldeak eguneroko koordinazioa, kudeaketa eta eraketa egiteko bigarren dimentsiorik zentralena dira. Antolakundeko informazioaren transmisioa, herraldeetako hausnarketa propioen garatzea eta eraketa gurutzatzen dira bertan. Malgutasun baten baitan ulertuko dugun arren, hurrengoa da garatu nahi dugun eredu orokorra:

- **Herralde Motorra:** herraldearen zuzendaritza papera betetzen du espazioak. Egiturako informazioa transmititzeaz gain, herraldeko estrategia diseinatu eta norabidetzeko eremua izango da, baita eskualdeekin eraketa diseinatu eta egikaritzeko gunea ere. Antolakundearen ikuspegi orokorraren inguruan hausnartzeko eta ekarpenak egiteko markoa ere bada.
- **Herralde Mahaia:** eskualdeei informazio transmisioa egin, dinamika politikoaren jarraipenaz arduratu eta herraldeari begirako hausnarketa eta erabaki propioak garatzeko markoa da. Antolakundearen ikuspegi orokorraren inguruan hausnartzeko eta ekarpenak egiteko markoa ere bada.

7.1.3. PRODUKZIO MARKOAK

Hiru produkzio marko nagusi ditugu, bakoitza bere eremuari begirako egin beharreko lana produzitzeaz eta jarraipena egiteaz arduratzen da. Herralde bakoitzeko arduradunetako batek bi produkzio markotan hartzen du parte, besteak produkzio marko batean eta idazkaritza zabalean.

- **Barne Antolaketa:** Ernairen barne funtzionamendu egokia bermatu eta indartzeko produkzio, hausnarketa eta kudeaketarako markoa da.

- **Ekintza Politikoa:** oro har Enairen izen eta erreferentzia propioz egiten den lanaz arduratzen da. Horretaz gain, bestelako mugimenduei egin beharreko akonpainamendu lanaz ere bai. Koiunturari lotuta dago bereziki eta beharrezkoak diren epe luzerako hausnarketak ere garatzen ditu. Hori hausnartu, produzitu eta garatzen du. Antolakundearen dinamika propioa modu kolektiboan pentsatzea bultzatzeko, bertako hausnarketa eta planifikazioen kontrasteak beste marko batzuetan egingo dira.
- **Nazio Eraikuntza:** logika orokor bezala espazio zabaletan eta bereziki Gazte Mugimenduan egiten dugun lanaz arduratzen da. Horren inguruan hausnartu, produzitu, planifikatu eta garatzeaz, hain zuzen ere.

Nazio Eraikuntza Mahai Zabala: Nazio Eraikuntzari dagokionez zuzendaritza estrategikoa egiteko markoa izango da, jardunaren ezaugarri orokorrak zehaztuz.

Produktzio marko nagusiak hiru hauek badira ere, eremu zehatzen produktioari erantzun eta eremu horien jarraipen eta garapenera bideratutako espazioak ere badaude:

- **Formakuntza:** Antolakunde osoari begirako elikadura politikoa produzitzeko markoa da. Bere esku dago Alearen zein barne saioen prestaketa eta dinamizazioa. Zenbait biltzarkidek eta herrialde bakoitzeko militante banak (herrialde arduradunak izango ez diren kideak) hartzen dute parte. Herrialde bakoitzak bere formakuntza sarea du, herrialdeko saioak prestatzeaz arduratzen dena.
- **Indarkeria matxistaren aurkako protokolo lantaldea:** Antolakundearen barnean ematen diren indarkeria matxista kasuen kudeaketarako eta jarraipenerako markoa da.
- **Internazionalismo lantaldea:** internazionalismo lantaldea Enairen praktika internazionalista ardazten duten lau lan eremu nagusiak garatzeaz arduratzen da. Lehenengoa, jardun internazionalistari lotuta, helburu berberak lortzeko beste eragile internazionalista batzuekin garatzen dugun elkarlana da. Bigarrena, elkartasun internazionalista, gure jardun propioz gainontzeko herri eta askapen prozesuei babesa adierazi eta Euskal Herrian sozializazio lana egitea. Hirugarrena, izaera internazionalista, nazioarteko borroketatik irakaspenak ateratzeko garatzen dugun barne mailako ildoak. Laugarrena, nazioarteko harremanak, eragileekin kanpo-harremanak garatzeaz arduratzea.

- **Komunikazio lantaldea:** komunikazioari lotutako hausnarketak eta produkzio lanak garatzeaz arduratzen da.
- **Borroka ideologikorako mahaia:** Gazte borrokan berebiziko pisua du borroka ideologikoak eta proiektu politikoek arteko lehia. Lehia hori argumentu politikoak eraikiz, zabalduz eta dialektika gauzatuz plazaratzen da. Azken urteetan izan ditugun hutsuneak identifikatu, eta tresna berriak sortu behar ditugu bide horretan. Horregatik, marko berria eratu dugu: borroka ideologikorako mahaia. Horretarako, antolakundean egokiak izan daitezkeen profilak identifikatu (dialektikarako gaitasuna, formakuntza politikoa, publikoki agertzeko prestutasuna...) hornidura politikoa eskaini eta marko hori sortuko dugu. Bi ardua izango litzuke aipatu markoak: Sare sozialetan gure irakurketak zabaldu, mobilizazioak edo hitzorduak testuinguratu eta diskurtsoa zabaldu, egiten diziguten kritika politikoei argumentu politikoek bidez erantzun, falazien izaera azalerratu, eztabaidatu... Kontu pertsonaletatik, baina era zentralizatuan. Finean, borroka ideologiko ordenatu eta plangintzatua garatu, eta militanteon erreferentzia publiko izan. Momentu zehatzetan (une politiko esanguratsuetan, deialdi oso garrantzitsua dugunean edo gure aurkako polemika handia sortzen denean, kasu), markoa testuinguratu eta argumentu-sorta banatuko zaio militantziari Saretzenen bidez, borroka ideologikoa hauspotzeko eta formakuntza garatzeko helburuarekin. Agerikoa denez, bertan parte hartuko luketen militanteen lehentasuneko ardua izango litzateke.

7.2. NAZIO ERAIKUNTZA APARATUA

Gazte Frontearen eraikuntza eta horretarako Gazte Mugimenduak oinarri gisa dituen estrategia garatu ahal izateko, inbertsio berezia egin behar dugu Nazio Eraikuntza aparatuan. Gazte mugimenduetan jarduteko, horiek eratu, dinamizatu eta elkarlanean aritzeko estrategia diseinatuko dugu Nazio Eraikuntzatik. Militantziari horretarako beharrezko elikadura politikoa emango dio, hausnarketa sustatzeko espazio bereziak eskainiz.

Gazte Estrategian markatutako lehentasunek ematen digute hurrengo zikloan indartu beharreko borroken inguruko informazioa. Dena den, Gazte Mugimenduko espresioen arteko harremana eta konfluentzia indartzeko logikan egingo dugu lan, Gazte Mugimendua subjektu gisa indartuz eta gazte ikuspegia trinkotuz. Nazio Eraikuntza aparatua Euskal Herriko Gazte Mugimenduko gainontzeko eragileekin harremana izango du horien egunerokotasuneko jardunaren berri izan. Aurrez aipatutako Nazio Eraikuntza markoa

eta Nazio Eraikuntza Mahai Zabala dira eremu horretako zuzendaritza, eta lantaldeek eta sareek osatzen dute aparatu osoa.

Ildo bakoitzeko lantaldea gaian trebatutako militantez osatuta egongo da; jakintza maila eta interes altua duen eta eremuan militatzen duten kideez, batik bat. Ez ditugu lantalde jendetsuak izango, jarduna eraginkorra izan dadin. Ildoaren, jardunaren eta lan kargaren arabera definituko dugu parte hartzaile kopurua. Betiere, herrialde eta genero oreka bermatuko dugu. Horrez gain, ildoaren gaineko azterketa egin eta hausnarketak eman, sareak diseinatu eta ildoaren plangintza egingo du. Funtsezkoa da lantaldeak indartzea, Antolakundearen produkzioa kolektibizatu eta aberastu, gazte mugimenduei begirako lana indartu eta bertako militanteak ahalduntzen dituelako. Hori bermatzeko, bertan parte hartzen duten kideen lehentasunezko markoa izango da.

Sareak

Sareak lantaldeetako kideak eremu horietan militatzen duten kideekin biltzeko espazioak dira, ildoaren hausnarketa espazioa nagusia. Herri edo auzo bakoitzean lantzen diren ildo bakoitzetik gutxienez kide batek hartuko du parte ildo horretako sarean. Bi sare mota ditugu:

- **Sare nazionala:** ildoaren hausnarketa espazio nagusia izango da. Bertan ikasturteko plangintza kontrastatu eta ekarpenak egingo zaizkio. Ildoaren norabidea espazio horretan zehaztuko da, ildoaren gaineko eztabaidak eman eta erabakiak hartuz. Esperientzia lokalak ezagutarazteko eta ildoko militanteen arteko harremana indartzeko espazioa ere bada, militantziak ildoarekin duen atxikimendua indartuz. Ikasturtean birritan batuko da.
- **Herrialdeko sareak:** Ildo bakoitzaren sare nazionalen parte hartzen duen herrialdeko kideek osatuko dute herrialdeko sarea. Norabide eta plangintza nazionalaren baitako herrialdeko planak egingo dira, apustuak eta erronkak markatuz. Lantaldean parte hartzen duen kidegoaren gain geratuko da dinamizazioa. Maiztasuna malgutasunez zehaztuko da, erronka eta beharren arabera.

7.3. UNIBERTSITATE APARATUA

Unibertsitate eremuko aparatua unibertsitateetako funtzionamendu eta jardunerako aparatua da. Egun bi koordinatzailez, bost campusetako taldez eta hiru lantaldez osatuta dago. Proposamen politikoan jasotako proiektu politikoa ipar izanik, estrategia modu egokian betetzen dela bermatzea da aparatua funtzio nagusia.

Bi koordinatzaileak izango dira eremuko arduradun nagusiak. Unibertsitate eremuko antolaketa aparatua funtzionamenduaren ardura izango dute eta gainontzeko egiturarekin harreman zuzena izango dute, elkar elikatuz Antolakundeko eremu ezberdinak. Campusei eta lantaldeei eraketa egiteaz, unibertsitateetako marko nazionala dinamizatzean eta eremuaren garapenaren jarraipenaz arduratuko dira.

- **Unibertsitateko Marko Nazionala:** hausnarketa, eztabaida eta erabaki espazio nagusia da. Ikasturteko plangintza diseinatzeko espazioa da eta baita unibertsitate eremuko hezkuntzari lotutako gogoetak emateko espazioa.
- **Campuseko Taldea:** plangintza nazionalaren baitan campuseko plangintza produzitu eta garatzeaz arduratzen diren taldeak dira. Ikasle Mugimenduari, Ernairen dinamika propioari zein koiunturaren erantzunari erreparatuko diote. Bi arduradun izango ditu.
- **Unibertsitateko Komunikazio Lantaldea:** dinamika politikoari lotutako hausnarketa komunikatiboak eman eta komunikazio plangintza garatzeko espazioa da.
- **Unibertsitateko Lantalde Feminista:** campusetan feminismoari eta ikasle neska* gazteei lotutako hausnarketak emateko eta plangintzak diseinatzeko funtzioa du.
- **Unibertsitateko Euskara Lantaldea:** campusetan euskarari eta gazte euskaltzaileen eremuari lotutako hausnarketak eman eta plangintza diseinatzeko funtzioa du. Euskararen ildoko bestelako eremuekin harremana du.
- **Unibertsitateko Bilgunea:** unibertsitateetako militantzia osoak osatzen duen espazioa da, derrigorrezko parte hartzea duena. Eremuari lotutako hausnarketak eman eta plangintza lurreratzeko espazioa da. Ikasturtean birritan batuko da, ikasturte hasieran plangintza nazionala kokatzeko eta ikasturte erdian birplangintzatzerako funtzioarekin.

Azken aipamen bat ere egin nahiko genuke unibertsitateetako funtzionamenduaren inguruan. Unibertsitatekoa ziklo laburra izateak, konfrontazioarekin lotzen den eremua izateak, borroka eremu garrantzitsutzat ez jotzeak edota unibertsitatetik gertu ez bizitzea bezalako arazoiek herrietan/auzoetan militante diren askok eta askok bertan ez militatzea ekarri du. Horren aurrean, herrietako/auzoetako militantzia unibertsitatean urtzeko hau-tua egiten dugu; bakoitzak dagokion ardura edo parte hartze mailarekin, baina beti ere gure ekarpena eginez.

7.4 ANTOLAKETA LOKALA

Eskualde, herri eta auzoak: Antolakundearen oinarria

Gazte Antolakundearen oinarria dira eremu horiek, eta bereziki, herri eta auzoetako jarduna. Gure estrategia politikoaren garapena eta militantzia eredu ulertzeko modua herri eta auzoetako errealitateari lotuta daude. Gauzak horrela, Ernairen antolaketa ereduak herri eta auzoetan eragite gaitasuna irabaztera eta horiek indartzera bideratuta egon behar da.

Tokian tokiko logika orokor bat ardaztu nahi dugu. Herrien eta auzoen antolaketak eredu horren bidez, eta Ernairen funtzionamendu eta antolaketa osoa aintzat hartuta, Gazte Estrategiaren garapena indartuko dugulako.

Eskualdeetatik hasita, baldintzak dauden leku orotan eskualdeetako komiteak sortuko ditugu. Hau da, gutxienez eskualde arduraduna(k) eta herrietako/auzoetako arduradunek osatutako espazioa. Zereginen artean daude: Antolakundearen ildo orokorra lantzea, ildoaren inguruan hausnartzea, ildo orokorrak eskualdean izango duen garapenez hausnartzea, eskualdeko hausnarketak mahai gaineratzea herrialdeko mahaletan, eskualdeko Gazte Estrategiaren inguruko hausnarketak ematea eta horren garapenerako tresna zein espazioak sortzea (eskualdeko bilguneak adibidez) eta, azkenik, herriko/auzoko arduradunen trebakuntza eta elikadura sustatzea.

Eskualde mailan, hiriburuen berezitasuna dugu. Gazte Frontearen atalean landutako estrategikotasuna dela-eta, lehentasunezkoa da hiriburuetan hiriburu mailako espazio indartsuak sortzea eta Antolakundeak horiei beharrezko arreta eskaintzea.

Horrekin batera, hiriguneen sare bat sortzea proposatzen dugu. Hasiera batean, proposamen politikoa ikuspegi propioz osatzeko oinarrizko espazioa

izan daiteke, eta ostean hiriburu mailako hausnarketak eta estrategiak garatzeko espazioa bihur daiteke.

Bestetik, urteetan herri txikietako taldeak galtzen joan gara eta horrekin batera bertan genituen militanteak bidean galdu ditugu. Horren arrazoa estrategia eta funtzionamendua herriotara ez egokitzea da. Hori dela eta, estrategiaren garapena eta antolakuntza proposamena egokitu beharrean gaude.

Herri txikietan Ernaiko talderik ez izateak ez du esan nahi herri txikietan mugimendurik ez dagoenik. Askotan indarrak galdu izan dira taldea mantentzen eta indarrak honetan jartzeak, desagerpena eraman gaitu.

Herri txikietan proiektu asko ari dira gazte sektoreetatik aurrera eramaten, alternatibak eraikitzen... Horregatik garrantzitsua izango da Ernaiko egiturak proposamen politikoak garatu ahal izateko herri txikietan harremanak izatea, modu jarraitu batean herri txikietan mugitzen ari denaren jakitun izateko eta aldi berean, herri horietako kideek elikadura politikoa jasota proiektu hauek beste kokapen bat izan dezaten. Eztabaida eman beharko da Gazte frontearen teorizazio horrek, herri txikietan zer nolako lurreratzea izan behar duen, eta inguruko Ernaiko militanteok zein paper jokatu behar dugun proiektzio horrekiko (harreman sareak, informazio transmisioa, kokapen politikoa...). Horrez gain herri txikiei gure strategiaren gauzapenean duten papera aitortu behar diegu. Kontraboterearen eraikuntzan eta bizi eredu berrien eraikuntzaren bidean aurrera pausu kualitatiboak emateko giltza direla uste dugu; norabide horretan herri txikietan, bizi eredu alternatiboak eraikitzeke eta proiektu izarrak sortzeko aukera erreal gehiago egon daitezke.

Herri eta auzoei dagokienez, herri guztietako taldeek ondorengo funtzioei erantzungo diete:

- Herri edo auzoko Gazte Strategiaren diseinu eta garapena. Hori da, zailtzarik gabe, herri edo auzo baten eginkizun nagusia eta zentrala; eta horren mesedetan ulertzen dira hurrengo guztiak. Hori horrela, herri edo auzo bakoitzeko militanteen artean eraiki behar da herrira/auzora begirako estrategia. Horretarako, herriaren/auzoaren eta bertako gazteen azterketa egoki bat egitea, hausnarketa eta eztabaidak sakontasunez ematea, plangintza egokiak garatzea, koiunturako auziei erantzuten jakitea eta dinamizazio politikoan trebatzea ezinbestekoa da. Azken horretatik tiraka, gazte mugimenduen sorrera eta dinamizazioaren funtzioa azpimarratu nahiko genuke.

- Gazte Estrategiaren garapenerako diseinu-tresnak garatzea eta erabil-tzea, herrian sortuak zein Antolakundearen beste marko batzuetan sor-tutakoak: plangintzak, zaintza hirukoitzaren tresnak edo bestelako ba-tzuk.
- Ildo orokorraren garapena eta maila lokaleko erronka propioei erantzuz-tea. Biak ala biak elkar loturik ulertuta.
- Herriko edo auzoko Ezker Abertzaleko antolakundeekin eta bestelako he-rri mugimendu edo gazte mugimenduekin harremana izatea.
- Ernairen komunitatearen lanketa; horretarako espazioak sortuz, harre-manak zainduz, elikadura politikoa eskainiz, etab.
- Talde berriak sortu eta militante berriak batzea.
- Herrietako edo auzoetako militantziarentzat trebakuntzarako eta koka-penerako diren espazioetan parte hartzea. Baita herrietako edo auzoe-tako militantziaren ikuspegiz antolakundeari ekarpena egiteko espazioe-tan ere: Nazio Eraikuntzako sareetan, komunikazio sareetan, etab.

Funtzio horiei erantzuteko antolaketa eredua zehaztuko da herriz herri. Bi espazio nagusi egongo dira horretarako: herriko/auzoko taldea eta komu-nitatea.

Herriko/auzoko taldea da Ernairen maila lokaleko gune nagusia. Bertan mi-litante guztiok hartuko dugu parte eta herriko/auzoko bilguneetan parte hartzea derrigorrezkoa izango da. Ondoren ardua banaketan sakonduko dugun arren, oso garrantzitsua da ulertzea herriko/auzoko militante oren ardua dela herriko/auzoko strategiaren garapena. Eta beraz, militante bakoitzak duen lan eremu zehaztetik harago, Gazte Estrategiaren lan guz-tiak egiten ditugula gure: eurekiko jarrera aktiboa, eraikitzailea, lanerako prestutasuna, etab. Izan behar dugu. Ildo beretik, zaintza hirukoitza ere mi-litante guztien ardua izango da: proiektuaren eta talde lokalaren zaintza gure gain (ere) hartzea eta, bide horretan, norberaren zaintza ere bermat-zeko oinarriak jartzea.

Herriko/auzoko taldeko ardura eta funtzio nagusiak hurrengoak dira; eta beraz, toki orotan bermatuko dira:

- Herriko/auzoko arduraduna
- Hezkuntza arduraduna
- Komunikazio arduraduna
- Diruzaina
- Sorturekin eta Ezker Abertzaleko eragileekin harremana egitea
- Komunitatearen arduraduna
- Gazte Mugimenduetako eremuen arduraduna(k)
- Zaintza arduraduna

Ernairen II. Kongresuan oinarri sozialaren ulerkera klasikotik komunitatearen ulerkerara egin genuen salto, horren subjektu izaera indartuz. Herriz herri eta auzoz auzo eredu ezberdinak egongo diren arren, talde guztien ardura da Ernairen eta Ezker Abertzalearen baitako gazteria osora heldu eta Gazte Estrategian agente aktibo bilakatzea. Ondorengo ezaugarri nagusiak hartu behar ditugu aintzat:

- Harreman iraunkorra izatea
- Harremanaren norabidearen izaera bikoitza: hau da, taldeak elikadura politikoa eskaini, parte hartze espazioak ireki, eztabaidarako guneak sortu... eta komunitateak proposamenak egin eta ekarpenak egiteko modua izan dezan ahalbidetuko dugu.
- Konpromiso maila ezberdinak aitortzea eta horri egokitzea: komunitateko kide bakoitzak zehaztuko du Gazte Antolakundearekiko duen konpromiso maila eta hartuko dituen lan edo ardurak.
- Espazio eta eredu anitzak: espazio nagusi bat izan dezake komunitateak, baina ez du zertan. Espazio kolektiboak zein indibidualak zabaldu ditzakegu.

7.5. ZIKLO ETA ESPAZIOAK

Ikasturteko zikloa

Antolakundeko zikloek ikasturtea ordenatu eta jarduna eraginkortzen laguntzen dute. Ez dira erreferentzia aldaezinak, koiuntura eta barne beharren arabera dinamikoak dira. Ikasturteko espazio finkoak, ikasturteko espazio dinamikoak eta ikasturteko ariketa kolektibo-finkoak ditugu.

Ikasturteko espazio finkoak:

- **Bilgune Orokorra:** militantzia osoak parte hartzen duen asteburu osoko derrigorrezko saio trinkoa da. Epe ertain-luzera begirako eztabaidak eman eta erabakiak hartu, estrategiaren berrikuspen ariketak egin, eremu eremuko proposamen politikoak eztabaidatu, formakuntza ariketak egin edota ikasturteko plangintza nazionalari dagozkion kokapenak egingo dira bertan. Urte osoan zehar maila nazionalen eta asteburu oso batez biltzen garen une bakarra izateak balio subjektibo handia ematen die. Irailean egingo ditugu.
- **Herrialde Bilgunea:** herrialdeko militantzia osoak parte hartzen duen goiz edo egun osoko derrigorrezko saioa da. Plangintza nazionalaren kokapena eta lurreratzea egiteko eta herrialdearen beharrei lotutako ariketak egiteko edota erronkak markatzeko funtzioa dute. Ikasturte hasieran eta urte hasieran egingo ditugu.
- **Batzar Nazionala:** militantzia osoak parte hartzen duen goiz edo egun osoko derrigorrezko saioa da. Ikasturteko balorazioa egin, hurrengo ikasturteko plangintzaren eztabaidak ematen hasi eta proposamen politikoak eztabaidatzeko funtzioak betetzen ditu. Ikasturte amaieran egingo dugu.

Ikasturteko espazio dinamikoak:

Dinamizazio Markoa: eskualde eta campus arduradunek osatzen duten maila nazionalako espazioa da. Antolakundearen hausnarketak emateko, egitasmo zehatzak lantzeko, eskualde arduradunei kokapen berezituak egiteko eta maila lokalaren inguruko eztabaidak emateko funtzioa du. Ikasturtean behin edo bitan egingo dugu, urtea amaitu baino lehen eta ikasturtea amaitu baino lehen.

Bizkarrezurra: auzo eta herrietako arduradunek osatzen dute, nazio mailan koordinatua da eta herrialde mailan biltzen da. Plangintza nazionalaren sarkoneko ariketak, herri/auzo arduradunei lotutako trebakuntza eta kokapen berezituak, dinamizazioari lotutako trebakuntza eta herrialdearen beharrei erantzuteko ariketak egingo dira bertan. Espazio hori indartuko dugu datozen urteetan, herri/auzo arduradunek elikadura politiko zuzena izatea funtsezkoa baita. Ikasturtean behin edo birritan egingo dugu, urtea amaitu baino lehen eta ikasturtea amaitu baino lehen.

Ikasturteko ariketa kolektibo-finkoak

Plangintzatzea: Ernairen talde orok, maila guztietan, ikasturteko jarduna arduatzeko duen plangintza izango du. Ariketa modu kolektiboan egingo da beti.

Plangintza nazionalari dagokionez, ekaineko Batzar Nazionalean ikasturteko balorazioa egin ostean, hurrengo ikasturtearen plangintzatzean murgilduko gara udan zehar. Bilgune Orokorra behin-behineko plangintza nazionala eramango dugu, eztabaidatu eta ekarpenak jasotzeko. Azken zehaztapenak egin eta Herrialde Bilguneetara eramango dugu behin-betikoa, bertan erroka edo gako nagusietan sakontzeko.

Plangintza lokalei dagokienez, udan abiatuko dugu herri edo auzoari lotutako hausnarketa momentua, baita erroka orokorrak finkatzeko ere. Irailan herri eta auzoetako plangintzak zehaztasunez egingo ditugu.

Birplangintzatzea: ikasturteko lehen erdiaren ondoren egingo dugun ariketa, ikasturte erdiaren balantzearen gainean, ikasturte amaierara arteko plangintza berrikusi eta fintzeko. Gabonetan plangintza nazionala birplangintzatuko dugu eta Herrialde Bilguneetan kokatuko dugu birplangintzatzea. Urtarrilean herri eta auzoetako plangintzekin ariketa bera egingo dugu.

Kongresu arteko zikloa:

Kongresu arteko zikloa kongresu batetik besterako tartea bera eta tarte horretan egiten ditugun ariketa multzoa dira. Ernaik lau urterik behin egingo ditu kongresuak. Kongresu baten ostean, zehaztutako ildo politikoaren gaineko bi urteko plan politikoa diseinatuko du. Plan politiko hori garatu ostean; hau da, kongresua igaro eta bi urtera, kongresu arteko ariketa egingo du: plan politikoaren garapena eta kongresuan markatutako helburuak baloratu eta hurrengo bi urteetarako plan politikoa diseinatuko da.

8. AMAIERAKO HITZA

Ernaiko militanteok egunez egun ehotzen gabiltza, eta ehotzen jarraituko dugu. Hausnartzen, eztabaidatzen, eraikitzen (eta deseraikitzen), borrokatzen, amesten... jarraitzeko momentuan gaude. Gu geu gara gure puntada bakoitza kolektiboki erabaki eta gure ehunei forma emango diegunak.

Ehotzen, ehotzen, ehotzen... Euskal Gazteria ez dago geldirik, eta lanean jarraituko dugu, ari ginen, ari gara eta ariko gara. Gaurko gazteoi dagokigu biharko Euskal Herria ehotzea. Ekin diezaiogun bada Herri hau ehotzeari... ehotu dezagun bidea. Garaipena geurea izango da!

Ernai Gazte Antolakundea,
2022ko ekaina.



I N D E P E N D E N T Z I A

S O Z I A L I S M O A

F E M I N I S M O A

GLOSARIOA

GLOSARIOA

GLOSARIOA

GLOSARIOA

GLOSARIOA

GLOSARIOA

GLOSARIOA

GLOSARIOA

9. GLOSARIOA

78ko erregimena: Espainiako Trantsizio ostean ezarritako sistema politikoa da, Franco diktadorea hil eta gero ordura arteko dominazio sistema betikotzeko sortua. Sektore oligarkiko ezberdinen (burgesia, militarrek, zenbait epaile, elite politiko batzuk...) dominazioan dago oinarritua, eta monarkia, Estatuaren nazio batasuna eta klase zapalkuntza dira bere ardatz nagusiak.

Abian: 2016an Ezker Abertzaleak mugimendu gisa emandako hausnarketa prozesu bat izan zen. 2011n aldaketa estrategikoa ematearekin batera ate berriak irekiko zirenen esperantza eta uztea ez ziren hala izan, Estatuak preso eta iheslarien eremua blokeatuta baitzuten eta hortaz, Ezker Abertzalea bera ere. Blokeo hau gainditu eta argipen estrategikorako xedearekin egin zen eztabaida hau. Titular gisa, bai GOK-ren eremuan zein askapen prozesuan aldebiko izaeratik aldebakarrekora igaro zen, aldaketa honetarako bloke berri baten osaketa apustu gisa kokatuz.

Borroka ideologikoa: diskurtso eta errelatoaren bidez egungo sistemaren mugak azalerarazi eta gure proiektu politikoaren eraikuntzan eta sozializatorako egiten dugun lana da. Errealitatea eta marko mentala eraikitzeko.

Burujabetzak: norbanako zein kolektibo batek erabakiak hartu eta hauek betetzeko duen boterea da burujabetza. Bi burujabetza mota bereizten dira, batetik, burujabetza materiala, gaitasun politikoari lotua, eta bestetik, burujabetza formala, erabakimen gune bat eta bere eskumen zalantza ezinak. Burujabetza ez dugu lurralderen gaineko erabakimen soiltzat ulertzen, burujabetzak forma poliedrikoa baitu, eta hortaz, gure buruari lotuta dauden afere guztiak (territoriala, gorputzen gainekoa, ekologikoa, soziala...) gobernatzeko gaitasun bezala ulertzen dugu, independentzia nazionala honetarako ezinbestekoa izanik.

Desazkundera: krisi ekologikoaren aurrean etengabeko ekoizpenaren eta hazkunde ekonomikoaren logika hautsi eta ekonomia eta bizi eredu jasangarriago baten alde egiten du desazkunderak.

Digitalizazioa: digitalizazioa prozesu analogiko eta objektu fisikoak digital bihurtzeko prozesua da, esparru ezberdinetan ematen dena (lan-harremanetan, kontsumo ohituretan, aisialdian...) Gaur egun ematen ari den digitalizazioa sistema kapitalistaren kapital metaketaren logikaren baitan ulertu behar dugu.

Ekintza politikoa: Ernaik dinamika eta erreferentzia propioz garatzen duen jarduna, eta jardun hau produzitu eta aurrera eramateko markoa.

Ekofaxismoa: trantsizio ekologikoaren aurrean portaera politiko ezberdinak mahai-gaineratu dira, horietako bat ekofaxismoa deritzoguna. Hauek trantsizio ekologiko batera bidean trantsizioa egiteko borondaterik ez duten joera autoritario eta faxistak lirateke. Gutxi batzuen (burgesia, Estatu aberatsak) bizi maila eta etekin metaketa mantenduz gainotzeko herritar, langile eta herrialdeen zapalkuntzan oinarrituta, azken hauek kolonialismo forma berriak sortuz.

Ekojustizia: etengabeko hazkunde ekonomikoak eta kontsumismoak eragindako krisi ekologikoaren aurrean, ingurunearekiko jasagarria izango den zibilizazio eredu bat aldarrikatzen duen kontzeptua da ekojustizia.

Elikadura politikoa: formakuntza eta trebakuntzaren izate eta jasotzeari egiten dio erreferentzia. Hau iturri eta forma ezberdinetan izan daiteke eta ez soilik antolakundeak emandakoa.

ENAM: Euskal Nazio Askapen Mugimendua Euskal Herriaren askapen nazional eta sozialerako mugimendu politikoa da. 60.hamarkadan sortu zen ETAK ordura arteko abertzaletasuna gainditu eta hau askapen sozialarekin lotzearekin batera.

Eraketa: herrialde arduradun-eskualde arduradun / eskualde arduradun-herri/auzoko arduradunekin, plangintza (nazional, herrialde, eskualde edota herriko) barneratu, landu eta eraikitzeko markoa da. Gainera informazio fluxu nagusia da. Aldebiko noranzkoa.

Estatugintza: 90.hamarkadan Nazio Eraikuntza estrategia erdigunean jarrita, nazioa eta estatua gisako kontzeptuen ulerkera estatikoa gainditu eta modu dinamikoan ulertzera pasa ginen, hau da, estatua eta nazioa eraiki eta deseraiki daitezken elementu gisa. Hortaz, independentzia unera arte zain egon gabe, gaurdanik eta esparru ezberdinetatik etorkizuneko Euskal Estatuaren egiturak eraikitzeko prozesua da estatugintza.

Estrategia eta taktika: estrategia helburu bat lortzera begira marrazten dugun ikuspegi luzeko bidea. Honen baitan epe motzekoak diren mugimenduak egin daitezke, helburu partzialak lortzera begira, kasu honetan taktikaz harituko ginateke.

Estrategia independentista eraldatzailea: Abian eztabaida prozesuan Euskal Sozialismorako bide-orri gisa izendatu zen Estrategia Independentista Eraldatzailea. Hiru ezaugarri nagusi barnebiltzen ditu. Estatuetik haustura demokratikoa (erabakitze eskubidearen aitortzatik), estrategia prozesu eratzaile gisa ulertzea, E egunaren zain egon gabe egunez egun errealtate berria eraikitzea eta hirugarrenik, euskal langile eta herri sektoreak prozesura batzea.

Ezker independentismoa: Ezker Independentismoa balio independentista eta ezkertiarren baitan artikulatzen den espazio politiko eta soziala da, mugimendu izaera duena. Independentziaren eta Euskal Errepublikaren proiektua azken bururaino eramateko funtzioa du.

Gazteria zapaldua: kapitalismo zisheteropatriarkalak eta honek eragindako krisi anizkoitzaren askotariko zapalkuntzak jasaten dituen gazteria: klase zapalkuntza, nazio zapalkuntza, genero zapalkuntza, sexu zein genero identitate zapalkuntza, etab. Gazteria zapalduak bere egoeraz kontzientzia hartu eta Euskal Gazteriaren askapen borrokan antolatzea da Ernairen xedea.

Haustura demokratikoa: egungo estatu zapaltzaileekin eta horien formazio sozial kapitalista, zisheteropatriarkala eta inperialista-kolonialarekin hautsi, eta agertoki demokratikoa erdiesteko unea. 1978ko Erregimenaren oinarriak zartatu eta burujabetza zein erabakimena Euskal Herrian eta euskal herritarren eskura izango dugun unea.

Hegemonia: jendartean gailentzen den eredia, eragile batek besteekiko duen nagusitasunari egiten dio erreferentzia. Hegemonia izateak posizio zehatz bat nagusi izan eta neutraltasunean agertzen datza.

Herri agenda: herri agendak, herria irudikatu, gorpuztu, eraiki edo trinkotu eta inposaturiko zatiketen gaintetik errealtate berriak sortzeko taktika zein estrategiak dira.

Ikuspegi interseksionala: Botere Zapaltzailea botere sistema ezberdinek egituratzen dute, elkar-ekintzan daudenak eta elkar osagarritzen direnak,

eta modu ezberdinetan gurutzatzen direnak elkarren artean. Feminismo beltzetik garatu den begirada interseksionalak zapalkuntza hauen aldi bereko elkar-harremana aztertzen du.

Koadro politikoa: dinamizazio politikoan, formakuntzan eta trebakuntzan oro har, abila den pertsona. Ernairen estrategia ulertu eta garatzeko ikuspegia daukan pertsona.

Konfederalismoa: estrategia konfederalak, Abianen zehaztu bezala, hiru prozesu eratzaile aurreikusten ditu (EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria) eta Euskal Herriaren autoeratzeko eta autodeterminazio prozesua hiru subjektu erabakitzailetan oinarritutako bat egite prozesuan ulertzen dugu. Hiru eragin-eremu, hiru subjektu, hiru erritmo.

Krisi anizkoitza: krisi anizkoitzaz ari garenean zibilizazio krisiaz edo krisi sistemikoaz ari gara. Hau da, gizarteko eremu guztiak zeharkatzen dituzten eta elkarren artean konektatuta dauden egiturazko krisiez ari gara. Krisi klimatikoa, osasun larrialdia, indibidualismoa, migrazio krisia...

Krisi klimatikoa: krisi klimatikoa deritzogu gizakiaren jarduera produktiboak planetaren egoera klimatikoa ekarri duen arriskuzko eszenatokiari. Iraultza Industrialetik gaur egunera, etengabe handitu dira baliabide naturalen ustiaketa eta hondakinen isurketak. Horrek guztiak eragina izan du planetaren portaera klimatikoan eta kolokan jarri ditu etorkizuneko izaki bizidunen bizi baldintzak. Krisi klimatikoa gainbehera energetikoak, klima aldaketak eta biodibertsitatearen galerak definitzen dute.

Lurralde agenda: lurralde agendak zatiketa juridiko-politikoak marrazturiko eremuen baitan, botere kuota edo erabakimen/burujabetza maila handiagoa eskuratzeko taktika zein estrategiak dira.

Masa: gizarteari oro har eta gure kasuan gazteri zabalari egiten dio erreferentzia, masa izaera dugula deritzogu gazteria zabala gure baitan aktibo egotea eta parte hartzea baita ernairen erronka.

Masa borroka: gazteri zapalduarentzako eskaintzaren bitartez garatzen duguna, gehiengoak sortu, artikulatu eta mobilizatzea oinarri duena.

Nazio eraikuntza: 90.hamarkadan Ezker Abertzalean Nazio Eraikuntzaren

estrategia garatzen hasi zen. Euskal botere propioak eraikitzean datza estrategia honek; gaur egungo ikuspegian E egunaren zain egon arte burujabetzak eskuratzen joatea gure Herria eraikiz.

Nazio estrategia: Euskal Herria hauspotzeari erantzuten dion epe luzeko eta ikuspegi integraleko bide orria. Honetan biltzen da antolakundearen jarduera nolakoa izango den existitzen diren mugak gainditu eta nazioaren irudikapena, nazioaren egitea lortuko duena.

Neoliberalismoa: sistema kapitalistaren aldaera edo forma zehatz bat da. 80.hamarkadan hasi zen indarra hartzen, eta orduz geroztik Ongizate Estatuko eredu interbentzionista suntsitzen ari da. Estatuak ekonomian duen esku-hartzea minimoetara mugatze du xede, pribatizazioen, desregulazioen, zergen jaitzieren etabarren bidez.

Ongizate estatua: bigarren Mundu Gerraz geroztik Europan garatu eta gauzatu den estatu-eredua da, liberalismo klasikoaren hutsuneak eta Sobietar Batasunaren indartzearen ondorioz sortzen dena. Estatu bateko herritarrei prestazio, eta zerbitzuak eskaintzen dizkie (hezkuntza, osasunean, lan-arloan...) Estatuak ekonomian duen esku-hartzearen bitartez.

Pedagogia independentista: fase politiko honetako erronka independentziaren aldeko gehiengo bat eskuratzea izanik, pedagogia independentista gisa izendatzen dugu gehiengo hori osatzeko egin beharreko lana, hau da, Espainiar eta Frantziar estatuen mugak azaleraziz independentzia alternatiba bakar eta erreal gisa proiektatzeko lana.

Produkzioa: baliabide material zein ez-materialen sortzeari egiten dio erreferentzia. Ernaiaren antolaketako produkzio markoak plangintza, formakuntza, dinamika, baliabide eta bestelakoak produzitzeko funtzioa dute.

Sistema kapitalista zisheteropatriarkala: burgesiaren etekin ekonomikoaren metaketari erantzun, eta gutxi batzuen botere eta zapalkuntza espresioen betiketean (patriarkatuaren eta zisheteroarauaren bidez) oinarritzen da. Gauzak horrela, sistema kapitalista zisheteropatriarkala kapitalaren etekin metaketa bermatzen duen zapalkuntza anitzeko sistema ekonomiko, juridiko, politiko eta kulturala da. Bere oinarrian, zapaltzaile eta zapalduen jendartea dago, etengabeko talka eta kontraesanean, interes kontrajarriak dituzten talde sozialetan oinarritzen den sistema, beraz.

Sinbiosia: Bi pertsona edo erakunderen artean ezartzen den babes edo elkarrekiko laguntza harremana, bereziki lan egiten dutenean edo zerbait komuna egiten dutenean. Guretzat, Gazte Frontearen hiru dimentsioak ulertzeko logika da.

Subjektua artikulaziorako: gazte Frontearen baitan artikulatzera goazen subjektu zabala, gehiengoak metatzera bideratuta duguna eta Euskal Gazteria gisa izendatuko duguna, honen osaketa izanik datorren ziklo politikoko erronka nagusia. Aipatu bezala eraldaketa soziala edota burujabetzaren bidean aurrera urratsak ematea izango da subjektu honen xedea.

Transmaribibollo: sexu zein genero disidentzien izendapenerako subjektu politikoa. Zisheteronormaren kanpo kokatu eta honen aurka egitea dakar.

Zapalkuntza: arrazoi ezberdinengatik (arrazo, generoa, klasea...) talde edo kategoria batzuen artean dagoen botere harremana da, egiturazko botere batek ardaizten duelarik. Zapalkuntza ezberdinen artean harremana dago, eta horrela antolatzen dira sistemak.

Zatiketa juridiko politiko: legez (arautua eta onartua) agindua X-ren banaketa. Lurraldeari lotuta, Hego Euskal Herriaren zatiketa juridiko politikoa, konstituzioan hala jasota 2 eremu eta beraz, administratiboetan banatzea dakar.

Zentzu komuna: garai historiko batean jendartean zabalduetako mundu-ikuskerak nagusia. Eraikuntza aldakorrean oinarritzen da. Hegemoniaren eraikuntzan boterean dagoen bloke historikoari lehiatu behar zaio.



I N D E P E N D E N T Z I A

S O Z I A L I S M O A

F E M I N I S M O A